

2018KO URTARRILA

BETE-BETETA

Hiru hilabeteen bikoiztu egin da ur maila Urkuluko urtegia / 5

2017KO AZAROA



Oraingo martitzenean airetik hartutako irudian ikusten da goraino beteta dagoela Debagoieneko urtegia; eta argazki txikian, iaz azaroan zelan zegoen. ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

Eskualdetik ez pasa arren, herri bakoitzak kilometro bat izango du ekainaren 10eko GEDren giza katean / 4

X. mendeko gazezur bat aurkitu dute Arrasaten, San Bixente ermitaren hondarretan / 10

Euskaraldia dela-eta lanean hasi dira Eskoriatzan, eta Kike Amonarrizen hitzaldia iragarri dute / 20

Arrate Bergara bergararra Emakume Master Cup pilota txapelketan hasi da lehiatzen / 28

SINADURAK

 URTZI AMIANO SALTERAIN / 6	 ANDER BOLIBAR / 25
 ANE ZUAZUBISKAR / 10	 JOSE LUIS MADINAGOITIA / 35
 MARIA IZAGA / 23	 AGURTE BARRUSO / 48

Elgetako gaztetxea itxi ostean, ondarearekin zer egin erabakiko du Gazte Asanbladak / 32

 **puntua**

Arte martzialen gorakada Debagoienean

Bittor Rodriguez nutrizionistari elkarrizketa



Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

**MERKE
ALDIA**

2mõ
betaurreko
graduatu
erretxerren aurkako leurrekin
79€

www.multioplicasgipuzkoa.com

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Kontsumatzailearen zuzenean oporren kanpainaren erabazgarriak.
Erango da beste eskaintza batzuetan erabiliz.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Euskadi Lagunkoia egitasmoa hedatuz doa

Debagoieneko erretiratu eta pentsiodunek batzarra egin zuten eguaztenean, Aretxabaletan. Eta aurrera begira jarriak dira: Euskadi Lagunkoia egitasmoa zabaldu gura dute ibarreko herri guztietan. Ez da ekimen berria zenbait herrirentzat

Iker Oñate DEBAGOIENA

Herri eta hirietako gizarte ongizatearen eraikuntzan esku hartu gura dute adinekoek; horretarako lanean dihardute Debagoieneko zenbait herritan –Aretxabaleta, Antzuola, Eskoriatza eta Bergara–. Eta, horrekin aski izan barik, ibarreko herri guztietara hedatu gura dute egitasmoa. Hala, Debagoieneko Agijupens erretiratu eta pentsiodunen elkarteak batzarra zuen deitua eguaztenerako; zuzendaritza batzordeko kideak, Euskadi Lagunkoia egitasmoaren bueltako lantaldeak eta zenbait udal ordezkari izan ziren bertan. Euskadi Lagunkoia egitasmoaz jardun zuten, nagusiki; Matia Fundazioak abiarazi eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailak sustatu du proiektua.

"Gizarteko zenbait alor aztertzen ditugu, horren ahulgune zein indarguneak identifikatuz. Diagnosi hori erakundeei helarazten diegu ostean, eskura izan dezaten", argitu du Pedro Etxebarriak, Debagoieneko Agijupens elkartearen jarduneko lehendakariak. Hala, zortzi alor dituzte aztergai; tartean dira etxebizitza-

tzaren, eraikinaren eta garraioaren gaiak. Eta, horrenbestez, ekimenarekin bat egiteko eskatu diete erakundeei. Zenbait herrietako Udalak prest azaldu dira horretarako; eta, tartean, eguazteneko batzarrean euren konpromisoa berretsi zuten Aretxabaletako eta Antzuolako alkateak.

Besteak beste, Euskadi Lagunkoia egitasmoaren metodologia azaldu zieten bertaraturikoei, 2012an adostutakoa. "Gai bat lantzea erabakitzean, lantaldea sortu beharra dago. Aldian aldian bilerak egitea dagokie horiei, bi astean behin-edo. Beraz, ez da lan handia. Oraingoan, ondo doakigu, eta prest da jendea", azaldu du Etxebarriak. Argitu dute helburua ez dela tekniko batek egin dezakeen analisia egitea: "herritarron ikuspegia gurek erdigunean".

Debagoiena osora

Ibarreko herri guztietara zabaldu gura dute egitasmoa. Eta Arrasateko erretiratu eta pentsiodunen ordezkariak proiektuarekin bat egiteko asmoa iragarri zuten batzarrean. Bide beretik jarraitu gura dute.

Elurra iragarri dute datozen egunetarako: "abisu horia" nagusi

Eguraldi iragarleek elurra aurreikusi dute datozen egunetarako. Eta gora eta behera jardungo du elur mailak. Hain zuzen, gaurko, 500 metroan finkatu dute –arratsaldean–, eta gora egingo du ondorengo orduetan. Abisu horia iragarri dute, beraz. Neguko bide-zaintza plana aktibatu zuen atzo Trafiko Zuzendaritzak.

Bihar, zapatua, bide beretik jarraituko du elur mailaren gorakadak, 1.000 metroko garaierara iritsi arte –700 metroan finkatu dute baxuena–. Eta, horrenbestez, bere horretan segituko du abisu horiak.

Domekarako, ostera, elur mailak berriz egingo du behera. Eta, goizean goiz, 400 metrora jaitsiko da. Bestetik, eguraldi iragarpenen arabera, elurra egiten jarraituko du datorren aste hasieran. Elur mailak beherago egingo du, gainera.



ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK



Bete-bete ezagutu dut zer den irakasle izatearen errealitatea.

Ane Korrabakia Fernandez
Arrasate. Lehen Hezkuntza, 4. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA ARRASATE • OTSAILAK 3 LARUNBATA, 10:30 / Areta Nagusia	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA ESKORIATZA • OTSAILAK 17 LARUNBATA, 11:00 / Areta Nagusia
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA BILBAO • OTSAILAK 8 OSTEGUNA, 18:00 / Areta Nagusia	ARETXABALETA • OTSAILAK 17 LARUNBATA, 11:00 / Areta Nagusia
	GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center DONOSTIA • OTSAILAK 15 OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium



902 110 436
www.mondragon.edu/prest





Ibarreko erretiratu eta pentsiodunek Aretxabaletan eginiko batzarra. MIRARI ALTUBE



Urkulu urtegia, eguaztenean, %98,17ko betetze mailarekin. GOIENA

Hiru hilabeteen ur maila bikoiztu egin da Urkulun

Hiru hilabeteen ia bikoiztu egin da Urkuluko ur maila: %52,27tik %98,17ra. Hurrengo egunetarako, gainera, eguraldi txarra aurreikusi dute iragarleek; elurra, tartean. Aurreikuspenen arabera, beraz, goraka segituko du betetze mailak

Iker Oñate DEBAGOIENA

Hiru hilabeteen bikoiztu egin da Urkuluko ur maila; eta gora bidean jarraituko duela adierazten dute eguraldi iragarpenek. Zehatz esanda, urtegiaren edukieraren %52,27 zegoen beteta azaroaren 3an; eta eguaztenean –urtarrilak 31– %98,17koa zen ur maila. Gaur-gaurkoz, "nor-

maltasunaren" mugen barnean da balioa. "Oso beteta dagoela irudi dezake. Baina normala da egoera, garai honi dagokiona", argitu du Imanol Zabaletak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Debagoieneko antolaketa ardura-dunak. Bada, gauzak horrela, ez dute "aparteko" neurririk aurreikusten.

Hala ere, ur bolumena pila-tzeko gaitasuna gaindituko balitz, hainbat askabide luke Urkuluk: presako askabidea eta hodi sistema. "Noizean behin, hodi sistematik askatu behar izaten dugu ura. Bi arrazoi leudeke erabaki hori hartzeko: beteta egonda eguraldi iragarpena eskasa izatea, prebentzio-

rako, batez ere; edo uraren tramendurako ezaugarri fisikoek eta kimikoek hala eskatzea", argitu du Zabaletak. Urkuluren azpian dauden bi hodiekin betetzen dute funtzio hori.

Bestetik, bigarren askabide bat du Urkuluk, presakoa. Eta ura bere kabuz joango litzateke bertatik, "ura edukieraren kota maximora iristean". Modu horretan, bere bidea segituko luke urak: Urkulu errekatik Oñati aldera joango litzateke, "aparteko arazo barik".

Hamabost hilabeterako ura

Gaur-gaurkoz, esan bezala, ia beteta dago Urkulu. Hain zuzen, 10 milioi metro kubiko ur pila-tzeko gaitasuna du urtegiak. Eta urtean 6 milioi metro kubiko ur kontsumitzen dira. Gauzak horrela, hamabost hilabeterako ur beharra asetzeko lain legoke une honetan. Eta eguraldi iragarpenak beteko balira, gorago egingo luke. Zehatz esanda, eurria eta elurra aurreikusten dute eguraldi iragarleek datozen egunetarako.

Gehiengo historikoa

Ohikoa ez den arren, tarteka, gainezka egin izan du Urkuluko urak. "Erregistroen arabera, gainezka egin ostean, hemezortzi zentimetro gora egitera iritsi da, gehienez, bertako ura. Duela bost urte izan zen hori", azaldu du Zabaletak. Eta ez zen "aparteko" arazorik izan. "Finean,

segundoko 5 metro kubiko ur irten zen presako askabidetik; horrek ez du eragin handirik erreka-errendako", gaineratu du. Euri asko denean, segundoko 120 metro kubiko ur eroateko gaitasuna du Deba ibaiak. Beraz, ohikoenean, urtegiak ez du eraginik erreka-errendari.

Neurketa eta indizeak

Etengabea da Urkuluko ur mailaren kontrola. "Gaur egun informatizatuta dago hori, eta une oro jakin dezakegu zein den ur maila", adierazi du Zabaletak. Ostean, balio horren arabera, indize batzuen barnean kokatzea dagokie –larrialdia, alerta, aurre alerta eta normala–. "Urtegiak egun berean izan dituen balio historikoekin alderatzen dugu eguneko neurketa. Eta horren arabera sartzen dugu talde batean edo bestean".

Dena den, argitu du ez dela "zorrozki" hartu behar urtegiaren egoeraren katalogazioa –indizea–, "konparazio bat delako, besterik ez". Eta azaldu du asko alda daitekeela hori. "Alerta egoeran geunden duela hiru hilabete; eta ikusi orain", dio Zabaletak.

GAUR-GAURKOZ, %98TIK GORAKOA DA UR MAILA URKULUN, IA 10 MILIOI METRO KUBIKOKOA

KELER

Banatzaile berria Debagoienean



Beristain
LOGISTIKA BANAKETA

ostalaritzako espezialistak !!

Elkarte gastronomikoak, tabernak, jatetxeak... Tel.: 902 180 635 • www.beristain.net



Angel Oiarbide, Gure Esku Dagoren bozeramailea, Goiena telebistan oraingo astean. TXOMIN MADINA

Erabakitzearen aldeko ekaitz perfektuaren bila

Gure Esku Dagok azken ekimena aurkeztu du: Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak batuko dituen giza katea, duela lau urtekoa baino luzeagoa izango dena, eta Eusko Legebiltzarrean amaituko dena, Herriarren Ituna bertara eroanez

Eneko Azkarate ARRASATE

201,9 kilometroko giza katea, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen, egin gura du Gure Esku Dagok ekainaren 10ean. Erabakitzearen eskubidea aldarrikatu du, beste behin, ekimen jendetsua izan nahi duen herriekin. Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean atarian, amaituko da katea. Herriarren Itunean ja-

sotako erabakitzearen arrazoiak plazaratzeko eguna izango da.

"Herri honetan ziklo bat itxi eta beste bat irekitzeko osagai guztiak ditugu eta osagai horiek ondo nahastu nahi ditugu, erabakitzearen eskubidearen aldeko ekaitz perfektua osatzeko", dio Anjel Oiarbidek, Gure Esku Dagoren bozeramaileak. Goiena telebistan izan da asteon, *Hemen*

Debagoiena saioan, giza kate berri horren gaineko zehaztasunak ematen. Erabakitzearen eskubidearen gaia gori-gori dagoela dio Oiarbidek. Ez bakarrik Katalunian. Baita "Europako beste toki batzuetan ere". Eta eztabaida hori ez dela desagertuko dio, "geratzeko" etorri dela. "2019an ziklo elektorallean sartuko garela kontuan

izanda, garaia iritsi da elkarrekin zer egin genezakeen erabakitzeke".

100.000 lagun

Oraingoan, giza katea ez da Debagoienetik igaroko, baina eskualde bakoitzari ibilbidearen puntu zehatz batzuk izendatuko zaizkio 201,9 kilometro horietan barrena. Eskualde horietako herriarrek esleiturako puntuetara joan beharko dute giza katea osatzeko dela ziurtatzeko. Datozen egunetan jarriko da martxan izen-ematea, Interneten, Gure Esku Dagoren webgunean eta herrietako taldeen bitartez. Izan ere, gutxienez, "100.000 lagun beharko dira" giza katea osatzeko, eta, hutsuneak betetzeko eta finantzaziorako ez ezik, baita antolaketa ere, Oiarbideren esanetan.

"Mamiz osatutako giza katea izango da eta mamia herriarrek lotzeko erabiliko diren zapietan egongo da. Arrazoiz betetako zapiak lotzeko, 100.000 lagun beharko dira", dio Angel Oiarbidek. Hala, 5 euroren truke, zapi bat jasoko dute herriarrek. Gero, maiatzaren 10ean, Klik Eguna egingo da eta arrazoiekin beteko dira zapiak. Herriarrek emandako arrazoi horiek Herriarren Itunean batuko dira eta hori izango da ekainaren 10eko giza katearen amaieran Eusko Legebiltzarra eroango dena.

Herri bakoitzak kilometro bat izango du giza katean, eta, horrenbestez, kilometro hori antolatze ardurak. Bada, horretarako, deialdi berezia egin die Oiarbidek herriarrei: "Giza katea zerbait berezia da, herriarren konpromisoa eta parte hartzea eskatzen du. Eta, horregatik, ezinbestekoa da mi-

laka eta milaka herritar aktibo, protagonista".

Giza katearekin batera, mahai-inguruak antolatuko dira hiriburuetan. Oraingo eguaztenean egin dute lehena, Bilbon, ongizatea gai hartuta. Hainbat alorretan adituak direnek gai ezberdinen inguruan jardungo dute eta aditu horiek jasotakoekin martxoaren 14ko eta 21eko asteburuetan ahalik eta herri gehienetan eztabaida publikoak izango dira kaleetan, "metodologia berritzaileen" bidez. "Zergatik eta zertarako erabakitzea komeni zaigun izango da gaia". Eta horren sakontzea izango da herriarren egitekoa. Helburua delako "2.019 arrazoi batzea" erabakitzearen alde.

Herria "ahaldundu"

2014ko ekainaren 8an egin zuen lehen aldiz giza katea GEDk. Bilbo eta Iruñea batu zituen ordukoak eta Debagoiena zeharkatu zuen. 123 kilometro zituen hark, eta, hortaz, 75 gehiago ditu aurtengoak. Hain justu ere, duela lau urteko giza kate jendetsu hura mugarri moduan jarri du Oiarbidek: "Hasi ginen konturatzeko gure indarrak, herriarrek batera, sarea osatuz, aritzeak dakarrenaz, hasi ginen ahalduntzen". Orain arte egindako ekimenak bezala, ekainaren 10eko ere erronka handia izango dela dio. "Herri honetan aro berri bat ireki nahi badugu, eragile, talde eta herriarren artean konplizitateak landu beharra dago".

DEBAGOIENETIK IGAROKO EZ DEN ARREN, HERRI BAKOITZAK KILOMETRO BAT IZANGO DU KATEAN

Ekintzaileei bideratutako prestakuntza tailerrak, doan

Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik, bost tailer praktiko egingo dituzte otsailean eta martxoan

E.A. ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak "ekintzaileendako prestakuntza tailerrak" antolatu ditu, Ekin Debagoienean izenburupean. Hain zuzen ere, prestakuntza tailer horiek otsailean eta mar-

txoan izango dira, doan. Hori bai, parte hartzeko beharrezkoa izango da aldeztu aurretik izena ematea eta aurreikusitako tailerrak egiteko gutxienezko parte hartzaile kopuru bat beharko da. Izan-ematea Mankomunita-

teko garapen Agentziak Arrasateko Nafarroa etorbideko 7an duen egoitzan egin daiteke. Baita bertara telefonoz deituta (943 79 30 90), rgarcia@debagoiena.eus helbidera idatzita eta webgunean bertan ere: www.debagoiena.eus.

Bost tailer praktiko

Bost tailer aurreikusi dituzte. Honako hauek: otsailaren 21ean, 22an eta 23an, 09:30etik 13:30era: *Negozio plana, ideietatik ekintzetara*. Edozein lan jardura

dela, negozio plan bat egitea izango da tailer horren helburua. Otsailaren 28an, *Ekonomia eta finantza* modulua. Honetan, oinarriko kontzeptuak, prezioa kalkulatzeko gakoak eta negozioaren kontrola egiteko tresnak erakutsiko dituzte. Goiz eta arratsalde izango dira tailerrak: 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Martxoaren 7an, *Negozioa abian jartzea*, 09:30etik 13:30era. Bertan landuko dituzte arlo juridikoa eta baita administrazio, fiskal eta lan iza-

pideak ere. Martxoaren 14an, *Fiskalitatea* izango da tailerraren izenburua eta gaia, eta hori ere goiz eta arratsalde egingo da, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara; hastapena, BEZa, Pertsona Fisikoen Errenta Zerga, eta abar landuko dituzte bertan.

Azkenik, martxoaren 21ean, *Ikasi hobeto komunikatzen* tailerra egingo dute, 09:30etik 13:30era; komunikatzeko teknikak eta programazio neurolinguistikoa jorratuko dituzte.

IKASTOLA EREDUA HEZKUNTZA ERALDATZEN



Matrikulazio
epa zabalik:
Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra

www.ikastola.eus


ikastolenelkartea


ARANZADI ikastola
Kollatorteko Euskal Heziketa
943 76 90 71
www.aranzadiikastola.eus


arizmendi
ikastola
943 77 20 25
www.arizmendi.eus


Txantxiku
Ikastola
943 78 12 04
www.txantxikuikastola.eus



ZABALIK

URTZI AMIANO SALTERAIN

Txaketeroa!

Txaketeroa, urteetan zehar, askotan entzun dudan hitza. Gaur, hitz horren esanahia azaltzen saiatuko naiz; betiere, nire ikuspegitik, noski.

Orain dela gutxi –eta oraindik puri-purian dago gaia–, bere betiko taldetik *kontrako* taldera joan den jokalaria. Denetik entzun beharra izan du, iritziak milaka.

Futbolak asko eman ditu horrelakoak. Futbolak ez ezik, beste kirol guztietan ere horrelakoak gertatzen dira: txirrindularitzan, saskibaloian, eskubaloian... kirol guztietan. Baina, hara! Futboleant gertatzen diren talde aldaketek min handiagoa ematen dutela dirudi.

Beti erlazionatu izan dugu *txaketero* hitza kirolarekin, baina, nire ustez, askoz gehiago batzen du hitz horrek: badira herrialdez aldatu direnak Olinpiar Jokoetan dominak irabazteko; badira, aldiro, botoa talde politiko ezberdinei ematen dietenak; badira politikan ezkerretik eskuinera aldatzen direnak, eta alderantziz; badira gerrateetan bandoz aldatzen direnak; badira diskurtsoa aldatzen duten nutrizionistak, prestatzaile fisikoak, irakasleak, agintariak, harakinak, arotzak, iturginak, fraideak, eta abar, eta abar. Ogibide guztiak.

BADIRA POLITIKAN EZKERRETIK ESKUINERA ALDATZEN DIRENAK, ETA ALDERANTZIZ

Argi dago txaketero izateak aldaketa dakarrela. Norberaren bizitza maila hoberantz aldatzeko hartzen den erabakia dela uste dut, idealak alde batera utziz.

Beraz, arrazoi horiengatik aldaketa egin duena, bai, txaketeroa da.

Baina ez naiz orain txaketeroak kritikatzeko hasiko, ni neu ere goian idatzitako kasuren batean pixka bat identifikatua sentitzen naiz eta.

Guztiz kontrakoa, txalo zaparrada eskaini nahi diet tentazioei aurre egin eta haizea kontran izan arren aurrera egin duten eta txaketero bihurtu ez diren horiei guztiei.

Txaketeroa denborak, historiak, ahaztu egingo du. Fidela, idealen defendatzailea, burugogorra, betiko geratuko da, historian edo bertan geratzen direnen buruetan. Biba zuek!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Hiru-hankan

MIREN AMURIZA
HTTPS://LABUR.EUS/31Y1G ('BERRIA')

Sarri erortzen naiz (literalki), zuetako batek baino gehiagok jakingo du zertaz ari naizen.

Eroriko batzuk bat-batekoak izaten dira: mendian behera zoazela, bat-batean, ipurdia bustita nabaritzea lakoak.

Beste batzuk kamera geldoarekin hartuak diruditenak, "jausten-ari-naiz, jausten-ari-naiz, jausten-ari-nai" pentsatzeko astia ematen dutenak: eskailerak jaisten hasi eta bi, lau, sei maila bilin-bolaka egitea, adibidez.

Orain hurrengoan kalean nindoan, telefonoari begira, eta ohartzerako espaloian nengoen lau-hankan.

Tira, lau ez, hiru-hankan, mugikorra neroan eskuari airean eutsi bainion (lehenago txikituko nituzke, genituzke, haginak; pentsa zenbateraino dauzkagun telefonoak geuretuta!).

Zutitu orduko begiratu nuen atzerantz eta ez dakit, egia esan, inork ikusi ez ninduela ziurtatu gura izan nuen edo, sakon-sakonean, desiatzen nengoen norbait *ondoalzaude*-ka hurrera zekidan. Minbera neuzkan belauak, negarrez hasteko

tentaziotxo... Negar norentzako, baina?

Ezer gertatu izan ez balitz lez jarraitu nuen aurrera, "heltzea hauxe izango da" pentsatuz.

Mina pasatu, ahaztu egin zitzaidan, baina nago, alboan baten bat eduki izan banu, gehiago iraungo zidala.

Txiklearena gertatzen baitzaigu askotan penak kontatzen hasten garenean: neurrigabe, alferrik puzten ditugula, harik eta geure (edo inoren) muturretan lehertzen zaizkigun arte.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Venezuelan urre meategiak
ustiatu nahi izatea akatsa da"

LUIS UGALDE APAIZA

Eneko Azkarate CARACAS
Venezuelako Historia Akademiako kide izendatu berri dute Luis Ugalde apaiz jesulagun bergararra. 79 urte ditu eta, besteak beste, urteetan Caracasko Andres Bello Unibertsitate Katolikoko errektore izana da. **Ustekabean hartu duzu izendapena?**
Orain dela urtebete, Venezuelako Historia Akademiako kide batzuek galdetu zidaten ea ze iruditzen zitzaidan nire izena proposatzea akademiako kide izateko. Erantzun nien nekeza egingo zitzaidala batzarretara joatea eta ez zitzaidala ideia ona iruditzen beste akademia baten sartzea. Handik denbora batera, beste kideren batek nire hautagaitza aurkeztu zuen eta horren berri jakin nuen duela lau hilabete, ustekabean, telefono dei baten bidez, zeinetan adierazi zidaten aukeratua izan nintzela Venezuelako Historia Akademiako kide izateko.



Luis Ugalde apaiz bergararra. GOIENA

Sarrera hitzaldian diozu oso garrantzitsua dela Venezuelako gazteek ezagutzea euren herriaren historia.

Gazteek oraina bizi dute eta Venezuelan, zehazki, etorkizunaz kezkatuta daude,

emigratzea pentsatzen. Baina eraldaketan murgildu eta konprometitzen direnean, ohartzen dira identitatearen sustraiak ulertu beharra dagoela. Kontua ez da data, errege, buruzagi edo batailak

ikastea, nor bere izaera ulertzea baizik, etorkizun itxaropentsua eraikitzeko. **Mito, ilusiones y miseria de El Dorado da sarrera hitzaldiaren titulua. Zer kontatu nahi izan duzu?**

Venezuelaren azken 100 urteetan, erabakigarria izan da petrolio. Hari esker, herrialde txiro izatetik, herrialde latinoamerikar aberatsena izatera heldu zen. Horrek ekarri zuen desitxuratze bat; herrialde aberatsa gineneko uste okerra. Arazo hori areagotu egin zen duela 15 urte, petrolio upelaren prezioa 100 dolarrera igo zenean. Lan egin barik lortutako dirua zen, erraz gastatzen dena. Horrek ekarri zuen produkzioa, sormena eta giza talentua gutxiestea. Baina orain ez dago dolarrik ezer inportatzeko, milaka enpresa itxi dira...

Egoera horretatik zelan irten?

Agintean dauden militarrek beste tentazio bat dute orain: urre, diamante eta beste metal preziatu batzuen meategiak ustiatzea. Huts egitea da. Espainiari gertatu zitzaion Ameriketatik ekarritako urre eta zilarrarekin, nekazaritza eta industria sustatu beharrean, gerrak ordaintzeko erabili zituelako.

HAU BE BADOGU!

Irabaziko al du Goyarik 'Handia' filmak?



Bihar banatuko dituzte Goya sariak Madrilen eta Jon Garañok eta Aitor Arregi oñatiarrak elkarrekin zuzendutako pelikulak 13 hautagaitza ditu:

@gipuzkoakultura: "Festa herriko baten bidez ospatuko dira Donostian larunbatean Goya sariak, *Handia*, *Nur eta herensugearen tenplua* eta gainontzeko hautagai euskaldunei babes emateko".

@rosasuria11: "Handia. Ederra, liluragarria, dotorea, hauskorra. Ikusteko beharrezkoa" (itzulita).

Iñigo Martinezen agurra, ondarrutarrez

Zalaparta handia piztu du sare sozialetan Athleticek Realeko Iñigo Martinez defentsa fitxatu izana, baina, txiolarari euskaldunen artean, jokariaren agur mezuak deitu du arreta, baita ere. Martinezek, euskara batuan idatzi beharrean, ondarrutarrez idatzi du zale txuri-urdinei zuzendutako agurra, eta Twitterren, batez ere, euskalkian agurtzeagatik aldeko eta kontrako txio ugari jaso ditu, baita txantxa eta *meme* ugari.

Alex Txikon, Everestera igotzeko prest

Asteon Everesteko laugarren kanpalekura heltzea eta bidea behar bezala egokitzea lortu du alpinista bizkaitarrak.

@AlexTxikon: "Jardunaldi gogorak hor goian. Bukatutzat eman dugu lana nahiz eta 4. kanpalekutik oso gertu gelditu; izan ere, eguraldi eskasa izan dugu eta taldekide bat ez zen oso ondo sentitzen. Oso pozik gaude egindako lanarekin 7.850 metrora, eta BK-ra denok elkarrekin heltzeagatik *#TxikonGoesToEverest*".

ITURRI ONETIK

Emakume musulmanak, dokumentalean

Bideak gurutzatzen izenburua du Debagoieneko emakume musulmanen kolektiboaren gaineko dokumentalak. Iratxe Esnaola idazle donostiarra eta Itziar Baskarrika argazkilari eta bideogile oñatiarra aritu dira ikus-entzunezkoarekin, IMME Arrasateko Emakume Musulmanen Kolektiboaren enkarguz. Kolektibo horrek bistaratu egin nahi ditu emakumeok egunerokoan dituzten zailtasunak. Jatorri askotariko zortzi emakume musulmanen testigantzak jasotzen ditu lanak. Otsail amaierarako prest egongo da.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-02-06

Espaloia kudeatzeko baldintzen plegua

Goibeko elkarteak Espaloia kudeatzeari laga zionetik burua ezin altza dago Espaloia Kafe Antzokia. 2004ko otsaileko lehen egunetan *Goibekokale*-n argitaratutako albiste horretan ikus dezakegu nola zegoen kultura aretoa, hutsik. Hura kudeatzeko baldintzen berri ere ematen zen albistean. Gerora, urte hartan bertan zabalduko zen aretoa eta 10 urteren ostean utzi zion Goibekok, egindako inbertsio guztia herriarendako lagata.



GOIENA

GUTUNAK

Castillak 22, Aramaiok 0

ANE ILLARDUIA ARGANDONA

ARRASATE

Zapatu arratsalde ilunkera euritsua.

Aramaioko auzo bateko sagardotegi batean luze eta bapo bazkaldu eta gero, herrira jaitsi ginen trago bat hartzeko asmoz lagun batzuk.

Frontoi ondoko aparkalekuan aparkatu eta frontoi barrura sartu ginen, kuriositatez, pilota partiduren bat egongo ote zen edo.

Herriko neska-mutikoak zebiltzan jolasean bertan. 22 ume kontatu genituen.

Batzuk, erdiak, futboleak zebiltzan.

Beste batzuk, pilotan zein saskibaloian.

Jolasean zebiltzanei begira, beste taldetxo bat, eta abar.

Guztien artean, ez zituen helduenak 13-14 urte baino gehiago edukiko.

Taldetxo bakoitza bere aldetik zebilen, baina ezaugarri bat zeukaten komunean. Guztiak gazteleraz hizketan beraien artean.

Futboleko baloia etorri zen gugana.

Nire alboko lagunak hartu eta hau eusten zuen bitartean, baloi bila etorri zen umeari galdetu zion: "Zenbat zoazte?". "¡Seis-dos nos ganan!". Ba, bai, "¡nos ganan! ¡Por goleada!". Non eta Aramaion.

Ez dauka Eustat-ek etorri beharrik euskararen gaineko estatistikak ateratzera.

Arnasguneak itotzen ari ote gara?

218.400 kilometro: estatu krimen planifikatua

IÑAKI USANDIZAGA GALARRAGA ETA RAMON ARKAUZ ARANA

DEBAGOIENEN PRESO POLITIKOEN

SENITARTEKOAK

DEBAGOIENA

Iazko urtearen hondarrean izan genuen euskal preso politikoen senide eta lagunak izandako azken istripuaren berri, 2017ko bederatzigarrena.

Kasu hartan, Marta Igarriz presoaren senideek istripua izan zuten Castello I espetxetik itzultzean.

2018ko lehen hilabeteari agur esateko astirik gabe izan dugu urteko lehen istripua: Susana Uribe txeberrria oñatiarrak Xabier bikotekidea bisitatzetik zetorrela Salamancan jasandako krimen planifikatua.

Horrela besterik ezin baitugu dispertsio politika definitu: mendekuan oinarritutako estatu krimen planifikatua.

Planifikatua baitago Oñatiko euskal preso politikoa bisitatzeko senide eta lagunok urtean egin behar ditugun kilometro kopurua: 218.400.

Norbaitek uste al du kilometro kopuru hori eginaraztearekin ez direnik istripua izateko aukerak areagotzen?

Euskal preso politikoen senide eta lagunak gara eta,

horregatik, kondenatu egiten gaituzte; dispertsioarekin gure eskubideak sistematikoki urratzen dituzte, zigortu egiten gaituzte, soilik, senide edo lagunak izateagatik.

Giza Eskubideak sistematikoki urratzen ditu dispertsioak, bai preso ditugun gure senideenak baita gureak ere.

Eta gaur bezalako egunetan, bereziki gogorra da errepideetara halabeharrez irten behar izatea. Derrigorrez beste aukerarik ematen ez digutelako. Gure bizitza arriskuan jartzera behartzen gaituzte.

Elurretara, izotzera irtetara behartzen gaituzte.

Errepideetara irten behar gara.

Beste aukerarik ez dugulako.

Gure senide eta lagunak maite ditugulako!

30 urte beteko dituen dispertsio politikak 400 istripu baino gehiago eragin ditu eta 16 dira dispertsioak eragin dituen hildakoak, haien artean Nati Junco oñatiarra 2007an.

Dispertsioa amaitu beharra dago eta hori eskatzeko ezinbestekoa da guztion indarrak metatu eta herri presioa egitea.

Ostiral honetan eskualdeko presoaren senideek giza katea burutuko dugu, 19:30ean, Oñatin.

Eskuz esku dispertsioa amaitzeko eskatuko dugu, beste behin.

Bertan espero zaituztegu!

HANDIK ETA HEMENDIK

Pello Zabalaren ildotik

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

HTTPS://LABUR.EUS/2HDSS

Amezketarraren nortasunean murgil egiten bada, Euskal Herrian sortutako pertsonaiarik interesgarrienetakoen multzoan sartu behar dugula ondoriozta daiteke, samur asko. Horregatik irakurri nuen *Puntua* aldizkarian egin berri zaion elkarrizketa. Hamaika plazatako bizipenak gainditu ondoren Pellok badaki zein ertz askotakoa den mundua, borobila marrazten zaigun arren. [...]

Besteak beste, egungo euskal eliz agintarien gaineko balorazio txikia egin du Pellok aipatu elkarrizketan. Hitz gordinak erabili ditu, oso. Eta ene ustez horixe ematen dio balioa bere ekarpenari: barne-barneko sentimenduaren islapena da, apaingailurik gabea. Pellok ondo ezagutzen zuen Juan Garmendia Larrañagak ohi zioen bezala, gauzak alda ez daitezen ez dago hoberik haien gaineko hitz erditan ibiltzea baino. Pelloren gisako eliz militanterekin beste kuku batek kantatuko luke, adibidez, Artzain Onaren katedraleko dorretik. Osasuna, Pello!

Barau

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/026FA

Sigmund Freuden *Die Traumdeutung* liburuan, ametsen interpretazioari

buruzko horretan, azaltzen da Zarautz. Joango gara Fiturrera, egingo ditugu web-orriak, aipatuko du sarri-sarri Argiñanok, baina nekez lortuko du herriak hainbesteko oihartzuna duen beste inon azaltzea.

Halako liburu bati dagokionez, ez da modu arruntean azaltzen. Freudek aipatzen du ez dakit berari, bere lankide bati edo bere pazienteren bati Varas edo Daraus edo Zarautz hitza agertu zitzaiola ametsetan eta ez ziola horri inongo logikarik aurkitzen. Harik eta gogoratu zen arte Espainiara egindako bisitaldi batean Donostiatik Bilborako tren hartu eta geltoki batean Varas, Daraus edo Zarautz izeneko txartela irakurri zuela.

Pasadizoa kontatzen dudana aldiro eransten diot epaia: "XIX. mendeko azken hiru edo lau urteetan egingo zuen bidaia hori. Orain Donostiatik Bilbora trenak bi ordu eta erdi behar baditu, pentsa zenbat denbora beharko zuen orduan. Ez zen ametsa izango, amesgaiztoa baizik!".

Euskotrenek hizkuntza eskakizunak jaitsi egin nahi dituela jakin genuen atzo. Zenbait postutako kontratazio berrietarako maila txikiagoarekin aski dela iritzi diote nonbait. B2 gehitxo jo dute tailerreko teknikari eta gidari kobratzaileentzat. Amesgaiztoa hau ere...

Post gehiago 6. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Ertzaintzaren patruilak, Monterron parean, urtarilaren 19ko eraso gertatu zen tokian. IMANOL SORIANO

Xabi Gorostidi ARRASATE

2018a gertakariz beteta hasi da Arrasaten, eta, herritarren dagoen kezka ikusita, Arrasateko alkateak eta bigarren udaltzainburuak agerraldia egin zuten pasa den egunean. Helburua garbia zen: herritarrei lasaitasun mezua helaraztea eta segurtasuna bermatzeko esku artean darabiltzaten ekintzen berri ematea.

Amaitasun Frontaura bigarren udaltzainburuak azaldu zuenez, 2016an zehar ez zen droga trafikarekin lotutako jarduketarik izan. Baina iaz, zazpi ekintza burutu zituzten, 30 lagun inguru atxilotu zituzten eta gaur egun horietako hiru espetxean daude.

Maria Ubarretxenaren esanetan, droga trafikoa eragozteko zero ekintza egitetik zazpita pasatze hori ez da kasualitatez

Gertakari ugari denbora laburrean

Urteberri eguneko eraso lorezaintzako aitzoarekin, labankada Monterronen eta pasa den ostegunean lapurreta eta udaltzain bati eraso. Horiez gain, azken asteburuan bi lapurreta izan dira Arrasaten, eta Udal Gobernua eta herritarrak kezkatuta daude

gertatu. "Herrian xiringak agertzeaz gain, droga kontsumoaren gorakada bat igarri genuen. Hala, arazoari aurre egiteko erabaki irmoa hartu genuen, Udaltzaingoarekin eta Ertzaintzarekin koordinatuta".

Etzaluzeko egoitzako gertakaria

Agerraldia pasa den ostegunean egin zuten, aurretik bi gertakari garrantzitsu egon zirelako: Eguberri eguneko eraso eta urtarilaren 19an Monterron parean gertatutako labankada.

Horrez gain, urtarilaren 23an lapurreta saiakera bat egon zen San Andres auzoko kirol denda batean. Baina prentsaurrekoa egin eta ordu batzuetara, beste gertakari azpimarragarri bat izan zen. 21 urteko gazte bat

Etzaluzeko egoitzan lapurreta egin nahian zebilen. Bizilagun baten abisua jaso ostean bi udaltzain bertaratu ziren, eta, gaztea atxilotzera zihoazenean, hark eraso egin zien estolda-tapa batekin. Udaltzainetako bat buruan kolpatu zuen, eta, ondorioz, zortzi puntu eman zizkioten zauria ixteko. Horren harira, atxilotutako gaztea epailearen esku utzi ostean aske geratu da, epailetaren zain.

Asteburuan, ordea, bi lapurreta izan ziren. Horietako lehen zatutuan gertatu zen, 18:45 aldean. Munar auzoko biztanle batek udaltzainei dei egin zien, lapur bat bere etxe barruan ikusi zuela esanez. Gau partean, aldiz, lapurreta izan zen Santa Teresa auzoko elizan. Kristala apurtu ostean, lapurra eliza barrura sartu zen, eta bertako megafonia ekipoa eraman zuen.

Udaltzainak, baliabide eske

Etzaluzeko egoitzako lapurreta saiakeran udaltzain bat zauritua izan ondoren, ohar bat kaleratu zuen Arrasateko Udaleko Enpresa Batzordeak. Zauritutako lankideari elkartzasuna adierazteaz gain, gaueko txandetan giza baliabide gehiago eskatzen zituaz, "ziurgabetasuna izugarria" delako, euren ustez. Gaur egun, 30 udaltzain daude lanean; 25 hiru txandatar eta bost bi txandatar.

Bestalde, udaltzainen zuzendaritzak beharrezko ikusten du herriko agenteek arauzko armak erabiltzea. "Tramite bat egin genuen hori eskatzeko. Bizkaian, adibidez, herri guztietan erabiltzen dituzte, lautan izan ezik. Legez, erabili ditzakegu, baina erabaki politikoa behar da", adierazi du Iñaki Arriagak, Arrasateko udaltzainburuak.

151.000 euro prebentzio lanetara

Lau arlo desberdinetan egiten du prebentzioa Udalak: ikastetxeetan, gurasoei, jai giroan eta aisialdian. Ikastetxeetan, adin tarte bakoitzean egon daitezkeen kontsumoekin lotutako lanketak egiten ditu, gurasoei tailerrak eta hitzaldiak eskaintzen zaizkie, AGIPAD elkarteak antolatuta, eta irakasleei zuzendutako zenbait saio ere egiten ditu Udalak.

Jai giroaren arloan, 2003a ezkerro martxan dagoen Testing Zerbitzuaz gain, 2017an bi zerbitzu berri jarri zituen martxan Udalak: *Lonja Laket* eta *Botilatzarra*. Azkenik, kale hezitzaileen zerbitzuan lau langile daude, bi lanaldi osoan eta beste bi erdian. Udalak 121.000 euro bideratzen ditu zerbitzu horretara —iaz baino %46 gehiago— eta 30.000 euro gainontzeko programetara.

**JOSE LUIS EZKURRA**
ERRETIRATUA

"Nire ustez, segurtasun sentzazioa ez da jaitsi. Eskolan prebentzioa egiteari ondo deritzot, baina benetako oinarria etxean jaso behar da".

**AMAGOIA ZUBIZARRETA**
LANGILEA

"Ez naiz Arrasatekoa, baina lankideengan beldur pixka bat igartzen da. Arrasate ez da Bilbo, baina udaltzainek armak edukitzea komeniko litzateke".

**ANDONI ETXEBARRIA**
IKASLEA

"Gertakari gehienak drogarekin lotzen ditut. Komenigarria da gazteak kontzientziatzea, eta baita susmagarriak diren pertsonen jarraipena egitea".



Aurkitutako hilobia, eta barruan garezurra. ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

X. mendeko garezur bat aurkitu dute Garagartzan

Arrasate Zientzia Elkarteak kideek eta Euskal Herriko Meatzaritza Museoko ikerlari Josu Etxezarragak aurkitu dute, San Bixente ermitaren hondarretan dagoen hilobi baten. Urrian aurkitu zuten, eta Miamiko laborategi batean egin diote datazio proba

Xabi Gorostidi ARRASATE

2016an hasi zuten bi aldeko elkarlana, helburu partekatuta batekin: Arrasateko antzinako burdingintzaren eta populaketaren antolaketa jakintzan sakontzea. "Arrasateko gaua luzea da. 1260an hiribildua sortu aurretiko Arrasate misterioz beteta dago, eta bertan argi apur bat ematea izan da gure asmoa", azaldu du AZEko Xabier Bengoak.

2016an Iturritxipi inguruan XI. mendeko haizeola bat aurkitu zuten, eta aurkikuntza horretatik tiraka lortu dute X. mendeko hilobia aurkitzea. "Haizeola alboan San Balerio dago, eta, toponimia ardatz hartuta, San Balerioren eta San Bixenteren arteko lotura ikusi genuen; garaikideak ziren, eta bata bestearen ikasle ere. Dokumentu zaharrei esker bagenekien 1721an San Bixente basiliza desagertu egin zela. Gaur egungo Korreoena baserriko lurretan dago lurperatuta; beraz, jabeen baimena eskatu eta in-

dusketa lanekin hasi ginen. Bide batez, Korreoena baserrikoei esker ona adierazi nahi diegu, izan duten prestutasunagatik".

Hilobiratutako lehen arrasatearra 2016an, basilizaren lehen aztar- nak aurkitu zituzten, eta, 2017an egindako bigarren saiakeran, hilobia eta garezurra aurkitu dituzte.

"Hilobiaren zati bat da aurkitu duguna. Harlauza du oinarrian, marga harria ertzetan, eta hauen gainean tapa batzuk. Garezurra aurkitu dugu, baina ziur gaude gainontzeko hezurak bertan egongo direla", azaldu du Josu Etxezarraga arkeologoa.

Garezurraren lagin bat Miamiko Beta Analytic laborategi-

DATAZIOAK DIOENEZ, GAREZURRA X. MENDE ERDIALDEKOA DA, 970. URTE INGURUKOA, GUTXI GORABEHERA

ra bidali zuten aztertzeko, eta, emaitzek esan dutenez, X. mende erdialdekkoa da; 970ekoa, gutxi gorabehera.

Honela baloratu du Xabier Bengoak aurkikuntzaren garrantzia: "Galdera asko ekarri dizkigu burura aurkikuntzak. Lehenik, kristautasuna lurralde hauetara etorri zen data hiru-rehun urte aurreratzen du. Bigarrenik, hilobiratutako lehen arrasatearra aurkitu dugu. Baina arrasatearra zen? Garagartzakoa zen? Ugarandarra zen?".

Ermitaka antolatuta

Garezurra nongoa zen definitzeko zalantza horiek Josu Etxezarragaren teoriaren ildotik doaz. "Aurkikuntza honek gure hipotesia baieztatzen du; hau da, gaur egun basilizak diren horien inguruan herrixkak sortzen zirela. Gaur egun Arrasate dena herrixka txikiz osatuta dago, eta baliteke, kasu honetan bezala, lurperatutako herrixka gehiago izatea".



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Ahizpak

Duela bi urte izan zen. Plazaz ari ginen, bertsolari emakumeen erronkez, eta amorratuta aitortu zion bata besteari: "Erasotua sentitu nintzen antolatzaileak zuri deitzen hasi zirenean, niri zegokidan postu bat emango balizute bezala; 'saiko neska' izatea lapurtu bazenit bezala". Minduta hitz egin zuen, horrelakorik sentitu izanaz haserre. Iaz izan zen. Ezagutzen eta miresten nuen musikari baten kontzertuaren zain eman nuen astea, urduri, ingurukoek begiradak harengan jarriko zituztela jakinda. Inoiz entzun dudako kontzerturik onenetakoa izan zen. "Hegan nabil oraindik", esan nion kantariari, diskoa erostera hurbildutakoan. -Ez nion esan: "Zenbat lasaitu nauen kontzertua gozatu izanak, zenbat amorratzen nauen zu mehatxutzat hartu izanak".

To ahizpatasuna. Diskurtsora ekarri arren geure azalera ekartzen ez dakiguna. Baditugu etxerako lanak, baina ez nau horrek bakarrik kezkatzen. Kezkatzen nau neure egiteke ditugun espazioetan guretzako leku bakarra dagoela pentsatzeak. Sinetsita dugula oholtzako "neska" izan gaitezkeela; baina ezin dugula oholtzako makarra" izan, edo "ahots serioa", edo nik zer dakit.



Amagoia Muniozguren, Jasone Giraldo, Saba, Farhat Yasmine eta Arantza Beitia. M.B.

'Gugandik': emakume migratzaileen topagunea

Elkar ezagutzeko eta beste kultura batzuei buruz ikasteko espazioa da Berdintasun Sailaren ekimen hori

Mireia Bikuña ARRASATE

Proiektuaren muina zein den galdetuta, zera erantzun du Arantza Beitiak, Arrasateko Udaleko Berdintasun teknikariak: "Helburua da herrian dauden emakume migratzaileei esperientzia eta bizipenak kontatzeko gune bat, espazio bat eskaintzea. Euren lorpenak baliogan jarri gura ditugu eta euren artean sare bat sortzeko lehen pausoak ematea".

Emakume etorkinei eskatzen zaien gauza bakarra da gaztele-raz berba egiteko gutxieneko maila izatea.

Gugandik egitasmoa egubakoitzero egingo dute, otsailaren 9an hasita. Marisol Abreu psikologoak dinamizatuko ditu saioak, 09:30etik 11:30era, eta irekiak dira. "Gune irekia izatea gura dugu. Behin saioak hasita, interesa erakusten duen edonorendako egongo da zabalik. Zaintza zerbitzua egongo da, seme-alabak dituztenek oztoporik izan ez dezaten".

Lanbideren urtarriaren leko datuak aintzat hartuta, Espainiatik kanpo etorritako 1.566 etorkin daude Arrasaten. Horietatik 798 dira emakumeak.

Hamaika hilabete etorkizuna argitzeko

2019ko urtarrilaren 1ean agortuko da San Frantzisko parrokiaren erabilpena arautu duen azken akordioa. Eraikinaren jabe diren frantziskotarrek ez dute oraindik ezer erabaki, eta herriko apaizak begi onez ikusten du desakralizazioaren aukera

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urte erabakigarria izango da hau Seber Altube plazako San Frantzisko parrokiaren etorkizunerako. Eraikina frantziskotarren jabetzakoa da, baina 2009a ezkerro ez da frantziskotarrik bizi bertan.

Urte hartan, hamar urtez eraikina erabiltzeko baldintzak adostu zituzten frantziskotarrek eta Arrasateko parrokiak. Bertan ez bizi arren, Jose Luis Arrizabalaga frantziskotarra arduratzen zen parrokiaren kudeaketaz, Arrasateko apaiz Horazio Argarateren eta bere lan aldearen laguntzarekin. Baina 2016an, Arrizabalaga



Oinezko bat San Frantzisko parrokiari begira. XABI GOROSTIDI

Oñatira bideratu zuten, eta parrokiako ateak ixteko zorian izan zirela azaldu du Horazio Argaratek: "Akordioa amaitzeko hiru urteren faltan, sorpresaz hartu genuen Arrizabalagaren erabakia. Momentu hartan, ateak itxi edo zerbitzua ematen jarraitzea ziren bi aukerak, eta frantziskotarrekin batera adostu genuen beste hiru urtez jarraitzea, 2019ra arte".

Hiru irtenbide

Datorren urteko urtarrilaren 1ean agortuko da hitzarmen hori, eta hortik aurrera hiru aukera zabalduko dira: frantziskotarrek eraikina ustiatzeko apaizak aurkitzea, Arrasateko Parrokiak apaizak aurkitzea edo desakralizazioa.

Gaur egungo apaiz eskasia ikusita, hirugarren aukera da indar handien duena, baina hori gauzatzeko erabakia frantziskotarren teitatu dago. Arantzazuko frantziskotarren buru Juan Inazio Larreak GOIENARI adierazi dio ez dutela eraikinaren etorkizunari buruz ezer erabaki. "Duela bi hilabete hitz egin genuen gaiari buruz,

baina, gaur-gaurkoz, ez dugu ezer prentsatu".

Desakralizatuz gero, frantziskotarrek eraikina saldu beharuko lukete eta ondoren Donostiako gotzainak desakralizazio dekretua eman beharko luke. "Leku sakratua izateari uzteko, beharrezkoa da gotzainaren dekretua, eta, horretarako, haren oniritzia behar da", azaldu du Argaratek.

Etorkizuneko erabilerak

Kulturaleko alboan izanda, kultur etxearen jarraipen izatea litzaiteke aukeretakoa bat, eta azkenaldian hileta zibilak egiteko leku estali gisa erabiltzearen aldeko iritziak ere agertu dira.

Frantziskotarren buruari bi erabilera horiei buruz galdetuta, zera erantzun du: "Nahiago dut ezer ez esan gaia helduago dagoen arte". Aldiz, gaur egun bertan mezak esaten dituen Horazio Argaratek begi onez ikusten ditu bi aukera horiek. "Nik uste dut merezi duela Udalaren esku geratzea, publikoa izatea eta erabilera kulturaletara bideratzea. Kulturateri hauspo handia emango lioke".

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

UMEZAINZA

0-3 URTE

San Andres, 8

URIBARRI

JOKIN ZAITEGI

0-3 URTE

Uribarri etorbidea, z/g.

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.

943 77 20 25 www.arizmendi.eus



ARRASATEKO UDALA
AJUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi ikastola ikastetxeak kudeatutako Udal Zerbitzua

ai arizmendi
ikastola



"Familiarekin egotea da orain bion lehentasuna"

TXUS GOIKOETXEA ETA PREMIN SANPEDRO PRESO OHIAK

la 17 urteren ostean, abenduaren 20an irten ziren kartzelatik Goikoetxea eta Sanpedro; biek azpimarratu dute oraindik "kokatzen" dabilzala egunerokotasunean

A.A./E.A. ARRASATE

Arrasate Irratian izan dira asteon bi preso ohiak, euren egunero-koaz eta presoen egungo egoeraz berbetan. Elkarrizketa osoa *Goiena.eus* webgunean dago.

Zer da egiteko beharra sentitu du-zuen lehen gauza?

Tx: 10 urteko seme bat daukat, Peru, eta berarekin harremana goxatu eta areagotzea izan da lehentasuna. Horretan gabilza. **Pr:** Nire kasua ere antzerakoa da. 13 urteko seme bat daukat, eta irteterakoan nire semearekin egotea izan da lehentasuna.

Herria nola aurkitu duzue?

Tx: Biribilgune asko daude, deigarria egin zaigu. Nabarmena da oinezkoari leku gehiago eman zaiola herrian, oro har. Bitxia egiten da, baina ez dago gaizki. **Herriarrak, giroa, nola daude orain?** **Pr:** Kanean giro gutxiago ikusten da. Bizitza bera garestitu egin da, eta, seguruenik, hori izango da arrazoia. Izan ere, dezente garestitu da bizitza, eta langileen soldadak, oro har, ez dut uste hainbeste igo direnik. Bestalde, etorkin asko ikusi ditugu herrian, hori asko nabaritzen da.

Nolako harrera izan duzue?

Pr: Arazo puntualen bat bai, baina, oro har, oso ona. Adeitsua eta esker onekoa.

2011ko urtarilaren 10ean ETAre su-etena etorri zen. Gogoratzten duzue egun hura?

Tx: Bai. Komunikazioa nahiko oztopatua izaten den arren, herriarekin harremanetan egoteko saiakera handia egin dugu, eta susmatzen genuen urrats bat zen. Komunikatu hark Euskal Herriko historian aldaketa sakon bat ekarri du. Beraz, ondo gogoratzten dugu, bai.

Pr: Jendeak zer hausnartu badauka. Momentu hartan borroka armatua arazo funtsezkoena zen jende askorentzat, eta bestelako biolentzia eta gatazkak isiltasunean mantentzen ziren. Gaur egun, presoen dispersioa



Goikoetxea eta Sanpedro, Arrasate Irratiko estudioan, martitzenean. ENEKO AZURMENDI

mantentzen da. Pentsatzen genuen borroka armatua bazterrean utzita, pausoak etorriko zirela. Baina agerian geratu da Espainiako Estatuak demokratizatzeko daukan arazoa. Euren inposatu nahi digute; presoen egoera inposizio horren parte da.

Josu Arkauz, Unai Parot eta Julen Mendizabal oraindik preso daude.

Tx: Kezkagarria da egoera. Josuri, kartzelan pasa beharreko urteak luzatu dizkiote, trikimailu judizial bat erabiliz modu guztiz artifizialean. Unai ere zigor berri bat betetzen ari da,

bere garaian jarri ziotena beteta duelako dagoeneko. Julen hilabete gutxi barru irtengo da. **Nola hartu duzue Frantziako Gobernuaren albiste berria?**

Pr: Frantziako Gobernuak pausoak ematen baditu –ez dakit emango dituen–, Ipar Euskal Herriko herri mugimenduak eta gizarte zibilak instituzio ezberdinekin izandako elkarlanari esker izango da. Hegoaldean ere gauza bera gertatu beharko dela uste dut. Horrek ekarriko ditu presoak Euskal Herrira, lehenik, eta kalera, ondoren.

Ikasle Eguna egingo dute bihar, egitarau zabalarekin

Hitzaldia, triki-poteoa, bazkaria, bakarriketa, manifestazioa eta zuzeneko musika. Osagai horiekin guztiekin prestatu du Arrasateko Ikasle Abertzaleak taldeak biharko –zapatua– Ikasle Eguna. Gazteriak dituen arazoak jendarteratzeko baliatu nahi dute eguna; adibidez, greba eskubidearen alde egiten ari diren lana agerian uzteko.

Egitarauari dagokionez, 11:00etan, hitzaldia egingo da gaztetxean, eta ondoren, triki-poteoa. 14:30ean, bazkaria egingo dute gaztetxean –aukera beganoa ere egingo da–. Txartelak salgai daude bost eurotan, Jai Zale tabernan. 16:30ean, Xusti-k bakarriketa eskainiko du. 18:00etan, Seber Altube plazatik abiatuta, manifestazioa egingo da. Azkenik, 22:30ean, kontzertuak egingo dira gaztetxean: D-Skarga, Libertad Condicional eta Txerrikumeak.

Asteburu honetan jarriko da martxan ludoteka ibiltaria

Musakola eta San Andres auzoetan egingo dute, lau zapatutan, "euskaraz eta lagun giroan".

Lehenik, Musakolako gazte txoko atarian izango da. Otsailaren 3an, 17an, 24an eta martxoaren 3an izango dira saioak, 10:30etik 13:30era, bi hezitzaileen laguntzarekin.

Gero, San Andres auzora mugituko da, Arimazubi plazara.

Martxoaren 10ean eta 17an eta apirilaren 14an eta 21ean, 10:30etik 13:30era.

"Beraz, otsailaren 3an Musakolako gazte txoko atarian elkartzera animatu nahiko genituzke auzotarrak eta auzokoak ez direnak, nahi izanez gero, euskaraz jolastuz goiz atsegin eta dibertigarria pasatzera. San Blas eguna izanik, agian, san blas opilak egiteko aukera egon daiteke, betiere, parte hartzaileek nahi izanez gero", adierazi dute Txatxilipurdi elkarteak kideek.

Garbitasunarekin kezkatuta jarraitzen du EH Bilduk

Komunikabideetara bidalitako ohar batean, zabor edukiontzien arazoa aipatzen dute, besteak beste. Edukiontzi batzuk zabalik egoten direla ohartarazi dute, eta horien erabilpenaren jarraipena egitea eskatu dute, "ez soilik estetikagatik, bereizketaren kalitateagatik beragatik ere". Ohar osoa *Goiena.eus* webgunean dago irakurgai.

Berriro erre dute udaletxeko Espainiako bandera

Ezezagun talde batek eman du horren berri komunikabideetara bidalitako oharrean. Bertan aipatzen dutenez, ez dira "trapu hori kentzeaz eta kiskaltzeaz aspertuko", eta azaldu dute ez dutela "sinbolo zapaltzaileen presentzia" normalizatzerik nahi. Udal Gobernuak baieztatu egin du; jada beste bandera bat jarri dute, lehen solairuko balkoian.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

beinke

arrasate



MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

HAUR HEZKUNTZAN ETA
LEHEN HEZKUNTZAN

Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

Bilera informatiboak:

- Urtarrilaren 30ean, asteartean, 18:00etan, Bedoñabeko eraikinean.
- Urtarrilaren 31n, asteazkenean, 18:00etan, Musakolako eraikinean.
- Bileretara ezin bazarete etorri, deitu eskolara eta arretaz hartuko zaituztegu.

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala irailean, uztailan eta gorriz ez diren eskolako opor egun guztietan

DENONA ETA DENONTZAT





Bihar Azpeitian lehiatuko diren gimnastetako batzuk, institutuan, entrenamendu batean. ENEKO AZURMENDI

Denboraldiari ekiteko gertu daude gimnastak

Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko gimnastek bihar, zapatua, hasiko dute 2018ko denboraldia, Azpeitiko kiroldegian jokatu den txapelketan; eskolarteko amateur mailako lehen fasea izango da biharkoa, eta Arrasateko 24 gimnasta ariko dira lehan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Iraila ezkerro entrenatzen ibili ostean, iritsi da denboraldiari ekiteko garaia. Esan bezala, eskolarteko amateur mailako lehen fasea izango da biharkoa, eta Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko 24 ordezkariz izango dira lehan, infantil, kadete eta gazte mailetakoa. Edurne Elkoro entrenatzaileak adierazi

duenez, "gogotsu" daude denboraldiari ekiteko, bai gimnastak, baita entrenatzaileak ere. "Denbora dezente daramagu entrenatzen eta hasteko gogoz gaude", adierazi du.

135 gimnasta

Guztira, 135 gimnasta ariko dira taldean aurten, bost entrenatzailearen laguntzarekin: Aran-

tzazu Zubia, Elena Lanuza, Miren Beagado, Olatz Fernandez eta Edurne Elkoro. Azken horrek adierazi du "penaz" daudela. Izan ere, "eskaera handia da, eta ez dago guztientzako lekurik". Askok dira, eta talde ezberdinetan banatzen dituzte entrenatzeko. Institutuan eta Uarkapen entrenatzen dira, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan.



Infantil, kadete eta gazte mailetakoa neskak, Uarkapen. E.A.

Lehena Donostian

Infantil, kadete eta gazte mailetakoa neskak agertzen dira argazkian. Talde horrek martxoaren 4an ekingo dio denboraldiari, Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan. Udaberri torneoko lehenengo fasea jokatu dute han.



Benjamin mailakoa neskak. E.A.

Otsailaren 24an, Bergaran

Benjamin mailako nesken taldeetako bat da argazkikoa. Haiek Bergaran hasiko dute denboraldia, otsailaren 24an, eskolarteko B mailako lehenengo fasean. Arrasaten apirilaren 21ean izango dute txapelketa; B mailako bigarren fasea, hain zuzen.

Ointxe!-ko lau talde ariko dira Euskal Ligako bigarren fasean

Kadete eta junior mailetakoa mutilek eta kadete mailako nesken bi taldeek jokatu dute fase erabakigarria

E.A. ARRASATE

Denboraldi hasieran, Ointxe!-ko hiru talde ziren Euskal Ligan: junior mutilek eta kadete mailako nesken bi talde –Ointxe-Araski eta Araski-Ointxe–. Ointxe-Araski taldeak lehenengo

postuan amaitu du lehen fasea, azken partiduan Loiola-Indautxu taldeari irabazita. Haiek A1 multzoan jokatu dute bigarren fasean, nahiz eta lauko finalean leku bat bermatuta duten, lehen fasean lider bukatzearen ondo-

rioz. Hala, lauko finalean, Euskadiko txapeldun izateko lehan ariko dira.

Mailari eustea helburu

Ointxe!-ko gainontzeko hiru taldeak –Araski-Ointxe, junior mailako mutilen taldea eta kadete mailako mutilen taldea– A2 multzoan arituko dira, eta hiru talde horien helburua da datorren denboraldian Euskal Ligan jokatzeko jarraitzea. Horretarako, multzoko lehen bi postuetan sailkatu beharko dute.



Ointxe-Araski lehenengo postuan amaitu du lehen fasea. OINTXE

Txotxongiloekin batera, euskal kulturen barrena

'Kontukantari2, Mendian Ibiltari' haur antzerkia eskainiko du bihar, zapatua, Laenananaranja & La Ressistens konpainiak Amaia antzokian, 17:00etan; betiko euskal kanta eskaintzen ditu emanaldiak, erritmo ezberdinetara eramanda

Eneko Azurmendi ARRASATE

Familiei zuzendutako txotxongilo antzerki bat da *Kontukantari 2, Mendian Ibiltari*. 50 minutu inguru irauten du emanaldiak, eta betiko euskal kantuak interpretatzen ditu eta erritmo desberdinetara eramanez, umorea erabiliz. Haurrei zein gurasoei zuzenduta dago, euskal kantu horiek "txikiek ikas ditzaten eta nagusiek ahaztu ez ditzaten".

Honela azaltzen du antzezlanaren gidoia Jon Koldo Vazquezek, konpainiako kideak: "Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira. Arratsalde honetan, mendi ton-



Txotxongiloekin egindako antzerki kontzertua da. KULTURKLIK

tor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarren puntan aurkituko dute loretxo bat eta... txist! Baxuago abestu! Haurtxo polita sehaskan dago zapi zuritan txit bero...".

Kontukantari proiektua 2014an abiatu zen, eta horri jarraipena emateko asmotan sortu da *Kontukantari 2, Mendian Ibiltari*. Emanaldi horretarako, "oroimean" dituzten beste hamar abesti berrikusten dituzte: *Haurtxo polita, Axuri beltza, Aldapeko, Ikusi mendizaleak, Loretxo bat, Baratz bat, Kolpe kolpeka, Guk euskaraz, Furra furra* eta *Arratsalde honetan*.

Laenananaranja

Laenananaranja Bilbon sortu zen, 1999an, familia antzerki kritiko-konstruktiboa eginez egunerokotasunari aurre egiteko. Hamabost urteko ibilbide honetan, umeei hurbiltzeko biderik aproposena txotxongiloak direla ikusi dute.

Txotxongilo antzerki garaikidea egiten ahalegintzen dira, "arte honen historian zehar beste sortzaile askok egindako lana ahaztu gabe".

Hitzaldia, "elkartasun internacional feminista sustatzeko"

Arrasateko Udaleko Emakume Txokoak antolatuta, Aurora Lolita Chavez ekintzaile indigena eta feminista guatemalarrak hitzaldia eskainiko du otsailaren 8an –eguna– Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Hitzaldia gaztelaniaz izango da eta, hain zuzen, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako kide Luciana Alfaro egingo ditu dinamizatzaile lanak.

Consejo de Pueblos K'iche's por la Defensa de la Vida, Madre Naturaleza, Tierra y Territorio (CPK)-ko kidea izateaz gain, Tzakat Antzinako Sendalari Feministen Sareko kidea ere bada Chavez. Gazte zenetik dihardu gorputz-lurraldeen aldeko borrokan kapitalismo eta patriarkatuaren aurrean.

Azoka, martxoaren 8an

Aurten ere Udaleko Berdintasun Sailak emakumeen azoka antolatu du, herriko emakume ekoizleak eta artisauak eta euren lana ikusarazteko helburuarekin.

AZKEN FASEA SALGAI

GELMAko etxebizitzak (Arrasate)

Terrazadun atikoak

OBRA HASI DUGU, ESKURA EMATEA 2019an

2 logela 200.000 €- tik + BEZa 4 logela 300.000 €- tik + BEZa
3 logela 250.000 €- tik + BEZa Atikoak 335.000 €- tik + BEZa

Bibai
Tel 943 25 38 21
E-mail info@inmobibai.com
Deba kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
www.inmobibai.com

Bisitatu etxebizitza pilotua

Eta ezin badut nire etxea saldu?

EZ KEZKATU
zurea saldu arte ez duzu eskrituratuko

%100eko arrakasta azkeneko 5 urteetan

"Jakin badakit lanaren hutsunea igarriko dudala"

JOSE MARI SEGOVIA UDALEKO HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUEN TEKNIKARIBURU OHIA Urtarrilaren 12an hartu zuen erretiroa, 30 urtean Aretxabaletako Udalean lanean jardun ostean; azken kontuak ixten dabil egunotan, guztia txukun uzteko

Mirari Altube ARETXABALETA

Villa Genoveva izena zuen etxean jaio zen Jose Mari Segovia (Aretxabaleta, 1955). Aretxabaletako Udalean Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen teknikari arduradun, 30 urte bete ostean erretiratu da, urtarrilaren 12an. Mila kontu eta pasadizo daramatza bera-ekin; jaio zen etxea bera eraisteko espediente egin behar izana, esaterako.

Tristuraz esan diozu agur bulegoari ala atsedean hartzeko gogoarekin? Bietatik dago. Zorionez, oso gustuko izan dut lanbidea eta urteak eta agintaldiak oso bizkor joan zaizkit. Osasun arazotxo bat izan nuenetik hona, baina, ez nago erabat ondo eta aurreko agintaldian erabaki nuen aurrez erretiratzea. Unai Elkorori alkatetza hartu orduko eman nion horren berri. Udaletxera joan-etorrian nabil, baina badakit lanaren hutsunea igarriko dudala.

Ordu asko udaletxean...

Pentsa! 1988an hasi nintzen eta 2018an erretiratu; 30 urte eta zortzi agintaldi izan dira. Zortzi alkate ezagutu ditut, Jose Mari Herrastirekin sartu nintzen eta Elkororekin utzi.

Hirigintzako teknikariburu lez ardua handia izan duzu, ala?

Bai; txostenak egin eta defendatu behar nituen Gobernu Batzordean edo zegokion batzordean, eta guztien gustukoak izatea zaila izaten da. Esaten nien: "Hau da nire txostena, eta, ez bazaudete ados, beste bat eskatu"; sekula ez didate eskatu bat zuzentzeko.



Jose Mari Segovia, udaletxea atzean duela. MIRARI ALTUBE

Herritarrekin hartu-eman estua izan duzu...

Aretxabaleta, zorionez, ez da herri handia, txikitik gehiago du. Eta horrek esan gura du herritarrok elkar ezagutzen dugula. Beti, eta guztiekin, ezin da izan bat jatorra; batzuetan, ahots tonua altxatu egin behar izan

dut, eta, ondorioz, batzuek harrotxo izango naiz. Langile sartu berriei beti esan izan diet mordoia ikasiko dutela hemen; zergatik? Arau subsidiarioen berrikusketan parte hartzea tokatuko zaielako, baina baita Maria izeneko bizilagun horren arazotxo konpontzea ere.

Aretxabaleta asko aldatu da 30 urtean; zein proiektu edo obrak eman dizu poztasun handien?

Azpiegitura mordoia egin dira; ur-horniketa eta saneamendu plan berezia, esaterako. Horretarako, auzo osoak altxatu behar

izan ziren: Andramari, Lora-mendi... Horrek bete nau gehien, eta batzuetan ez da samurra izan horren garrantziaz jabeaztea pareko udalbatza! Izan ere, herriarrak ez du ikusten horren garrantzia, lur azpian egindako lan batean hainbeste diru sartu beharra, eta horrek politikoki ez du saltzen. Horrez gain, Kurtzebarri eskolaren handitzea aipatuko nuke. Eskolak duen arazoa kokagunea da, zirkulazioagatik, baina horri, zirkulazio arazoari, heltzeaz daudela esango nuke; ikerketa bat egitekotan geratu garelako. Oso gustuko dudana beste obra bat Arkupe kultura etxea da, behar-beharrezkoa zelako; eta kiroldegia ere bai; obra izarra izan da hori.

Eta arantzatorik geratu zaizu?

Ez; nik proposamenak egin izan ditut eta erabakiak politikariek hartu izan dituzte. Hori bai, Udalaren eskumenetik kanpoko kontuengatik geratu zaizkit arantzak; autobideagatik, esaterako. Erdian egotea tokatu zait, lanek kaltetutakoen erdian, eta konpontzeko daude kontuak han. Sinisten ez nituenak defendatu beharra tokatu izan zait, eta hori oso zaila da. Herri txikitian guztiok ezagutzen dugunez elkar –alkatea, lurperatzaila...–, erabaki batzuk baldintzatuta daude. "Tontakeria bat da" esanez pasatzen uzten da, baina gaur pasatzen utzi den tontakeria horrek soka luzea ekar dezake gero.

Norantz jo beharko luke herriak?

Hiru kontu aipatuko nituzke nik. Etxeak egiteko zona gehiago ez da behar. 550 etxe berri egin daitezke gaur egun, arauetan hala dagoelako jasota, baina kostako da horiek guztiak egitea, ez direlako saltzen. Araba ibilbideko San Martin gunea da

puntu beltza, nire ustez, berri- barik jarraitzen duelako. Txarapean bukatu barik dauden etxeen gainean esan behar da Kutxabank dela jabea, eta bere promotoreak ez badio heltzen horri zaila izango dela kanpoko batek bukatzea. Industriari dagokionez, ez dago aparteko eskaerarik. Basabe industrialdean hainbat lokal daude hutsik; hortaz, baten bat eske etorritz gero, lekua izango luke. Eta Santutxoren atzeko partea ere badago; hor ere badu lurra Udalak. Hirugarrenik, Udalaren eraikinen gaineko hausnarketa egin behar da, eta badabilteza horretan. Hor ditugu hutsik: kuartel zaharra; Basotxo dagoen eraikina; komentua... Badakit horretan dabilteza, eta alderdi nagusiak nahiko ados ikusten ditut.

Ordezkorik baduzu?

Nirekin batera lan egin duten bi teknikariak, Saioa Llodio eta Elena Gidello, arduratuko dira, alkateak koordinatuta. Eta aste honetan bertan hastekoa zen hirugarren teknikari bat, Amaia Sologastoa.

Eta orain zer, obrei begira pasatuko duzu eguna?

Ez dut uste. Oraindik hainbat kontu ditut lotzeko erabat erretiratu aurretik, arkitekto tekniko-koen elkargotik pasatu, esaterako, erretiratu egin naizela esateko. Lehenengo egin dudana izan da ordenagailua erostea, orain arte etxean ez dudalako behar izan. Eta orain etxean, baina ez naiz geldi egongo...

"HAINBAT AUZOTAN UR-HORNIKETA ETA SANEAMENDU PLAN BEREZIA EGIN IZANAK BETE NAU GEHIEN"

Euskaltzain oso izateko hautagai da Miriam Urkia

UZEIn lanean diharduen eta euskaltzain urgazle den Miriam Urkia aretxabaletarra euskaltzain oso izateko hautagai da, Karmele Jaiorekin eta Roberto Gonzalez de Viñasprekin batera. Patxi Uribarren eta Joan Mari Torrealdei euskaltzain emerituen lekuak beteko dituzte horietako bik. Otsailaren 23an hartuko du erabakia Euskaltzaindiak.



Miriam Urkia. IMANOL SORIANO

Lehen postua UDAko karate taldearendako Gipuzkoako txapelketan

Senior mailako (67 kiloz azpikoak) Odei Vazquez karateka txapel-duna izan zen kumite modalitatean, joan den domekan, Hondarribian jokaturako Gipuzkoako txapelketan, eta haren anaia Oxelek hirugarren egin zuen. Eneko Calvok, Aitor Lasagabasterrek eta Oxel Vazquezek osatutako taldea ere txapelduna izan zen kumitean.



Calvo, Lasagabaster eta Vazquez. UDA



Batu Banatu
banaketa
enpresak
banatzaile
euskalduna behar
du Aretxabaletan,
aldi baterako.
Tel.: 688 69 00 07

Badator Txapel Txin Aratusteak girotzera

Kalejirak, torrada lehiaketa, pregoia, jatekoa, musika eta gehiago izango dira Txapel Txin eguna ospatzeko bihar; herriko pertsonaia ezagunak txapela janztera animatuko ditu herritarrek eta datorren domekarako mozorroa gertatzen hasteko dei egingo du

Mirari Altube ARETXABALETAK

Herritarrek lez, Txapel Txin ere mozorroa gertatzen hasita dago, eta jai giroan murgiltzeko gertu etorriko da bihar, zapatua: "Urtero moduan, giro ona ziurtatuta dago; txistor mordoa, torrada eta jai giroa Aratusteak datozela iragartzeko", adierazi du Txapel Txinek. Aratusteen iragarle den pertsonaia ezagunarekin batera torrada izango dira protagonista: "Lehiaketa izango da aurten ere. Eta herritarrei eskatu gura diegu parte har dezatela", azaldu du Joxe Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak. Herriko Plazan jasoko dituzte norberak etxean egindakoak, eta



Txapel Txin, mozorroak gertatzen diharduten lokalean. AMAIA TXINTXURRETA

epaimahaiak onenak zeintzuk diren erabakiko du, gero saritzeko; txapel dotoreenak ere jasoko du saria. Txapel Txinen pregoiaren ostean izango da hori. "San Blas eguna da zapatuan bertan, eta horren bueltako pregoia gertatu dut", dio hark.

Kuadrillak, lanean

Txapel Txin ez ezik, Karnabalen Lagunak elkarteko kideak ere gogotsu daude Aratusteetarako: "Kuadrillak urduri gaude eta hurrengo domekara begira burubelarri lanean". Mozorroak gertatzeko Udalak utzitako lokalean –Basabe industrialdean– hamar kuadrillak dihardute, baina egiten dabilzanaren berri ez dute eman gura, inondik inora. "UDA da karroza ikusgarriena egiten duena, eta hark zer ekarriko zain daude herritarrek. Dena den, kuadrilla askok jartzen dugu irudimena martxan, eta lan politak egin", diote Ibai Zangituk eta Mikel Alberdik, eta Txapel Txinek gaineratu du: "Aratuste eguzkitsuak, koloretsuak, alaitasunez betetakoak espero ditugu; betikoak, baina, era berean, hobeak!"

Txapel Txin eguneko egitaraua

- **12:00** Kalejira trikitilariekin.
- **17:30** Malabarzirko taldearekin kalejira. Ibilbidea: Arkupe, Herriko Plaza, Durana kalea, Mitarte kalea eta Herriko Plaza.
- **18:00** Torrada lehiaketa; etxean egindakoak Herriko Plazan jasoko dituzte.
- **19:00** Aratusteetako pregoia; eta ondoren, sari banaketa: txapel dotoreenari (50 euro) eta torrada onenei (100 euro eta Torratxin txapela, 50 euro eta 30 euro).
- **19:15** Txistorra, sagardoa eta torrada, elkartzen diren guztiendako.
- **19:30** DJ AviTxin-en eskutik, musika Herriko Plazan.

PROIEKTUEN BIDEZKO
PUBLIKOA IKASKUNTZA
EUSKALDUNA
KALITATEZKOA
ARRETA GOIZTIARRA
HURBILA INKLUSIBOA

Zaintza zerbitzua (2 - 12 urte)

2018/19 IKASTURTERAKO
MATRILULAZIO EPEA
ZABALIK
Urtarrilaren 29tik
Otsailaren 9ra

KURTZEBARRI ESKOLA

①BILERA INFORMATIBOA:
URTARRILAREN 25EAN
18:00etan

Bihotzez
ikasi

Kurtzebarri Eskola
Haur eta lehen Hezkuntza
(2-12 urte)



Adinekoak jomugan, zerbitzuak hobetze aldera

Bakarrrik bizi diren 70 urtetik gorakoen erretratua egin gura dute Gizarte Zerbitzuek eta horretarako dabilta lanean. Era berean, komentuari gizarte-osasun erabilera eman gura diote nagusiendako alojamenduekin, osasun etxearekin eta eguneko zentroarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

"Herriarren benetako egoera ezagutu gura dugu 70 urtetik gorakoen diagnostikoa eginda, udal bulegoetara gerturatzen ez diren hainbat daudela uste dugu eta; hortaz, geu gerturatuko gara horiengana", jakinarazi du Kar-mele Uribarrik, Gizarte Zerbitzuen zinegotziak. Diagnostiko hori egiteko, etxerik etxe joango dira galdeketa egitera: "Deitu egingo diegu, lehenengo, baimena eskatzeko. Behin etxean, hainbat galdera egingo dizkie Gizarte Zerbitzuetako langileak: osasun arloari dagozkionak, gizarte beharrei... Eta zelan bizi diren behatuko dugu".

Sei hilabeteko lana izango da eta ekainerako bukatuta izango dutelakoan dago Uribarri: "Bakarrrik bizi diren horien erretratu bat izango dugu orduan, emaitzak aztertuko ditugu eta horren arabera egin esku-hartzeak". Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen eta laguntzen berri ere emango diete adineko horiei.

Osasun erabilera komentuari

2016ko urtarrilean erosi zuen Udalak agustindarren komentua eta apenas izan du erabilerarik bi urtean. Herriak dituen beharrak aztertuta gizarte-osasun erabilera ematea pentsatuta dutela adierazi du Uribarri zi-

negotziak: "Hirugarren adinekoendako alojamenduak egiteko leku benetan aproposa da, eta hori aztertzen gabilta. Era berean, eguneko zentrorik ez dugu Aretxabaletan, eta hori ere behar bat da. Eta gainera, osasun etxea ere zerbaiten beharrea da. Ikusiko dugu horrendako guztiorrendako ematen duen eraikinak".

Nagusiendako alojamenduaren kasuan, "proiektu oso berritzailea" izango litzatekeela dio: "Aurrekari gutxi dago. Gainera, kalkulu asko egin behar ditugu, kudeaketari dagozkionak, erre-kurtsoei dagozkienak... Hortaz, hausnartze prozesuan murgilduta gaude".

Santa Ageda gogoan, kantuan jardungo dute etzi eta astelehenean

Cataniako santuaren omenezko eguna iristear da eta aurten ere kintoek ez dute hutsik egingo. 1999an jaioetako 45en bat neska-mutilek jardungo dute kantuan eta eskean auzorik auzo domekan, Santa Ageda bezpera. Astelehenean, osterara, kalerik kale ibiliko dira eta ikastetxeetara eta enpresetara ere joko dute. Orduan egingo dute gainera, lehenengo dantza saioa Herriko Plazan (19:00), eta azken egunetako entseguetan ikasitakoa erakutsi herriarren aurrean.

Otsailaren 4an kantuan eta eskean ibiliko diren bakarrak ez dira izango. Basotxo erretiratuaren elkarteko abestaldeak, azken urteotan lez, Santa Agedaren omenezko koplekin beteko ditu herriko kaleak; egoitzatik 18:00ak inguruan irten eta 20:00ak bitartean hainbat txokotan egingo dute kantuan. "Elurrarekin ere ibili izan gara, hortaz, iragarrita dagoen eguraldiak ez gaitu beldurtzen", adierazi dute abestaldekoek.

OHARRAK

San Blas eguna

Bihar, zapatua, meza esan eta jakiak bedeinkatuko dituzte Apotzagaetxebarri auzoko Salluente ermitan (10:30).

Zinema asteburuan


El gran showman filma izango dute helduek gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00); eta umeek *Richard zikoina* domekan (17:00).

Odol ateratzeak

Hiru astelehenetan egingo dituzte odol ateratzeak: otsailak 5, 12 eta 19. Autobusa izango da Durana kalean, 16:45etik 20:00etara.

Bertso afarirako deia

Loramendik eta Lekaixokak bertso afaria antolatu dute martxoaren 2rako Maialen Lujanbiorekin eta Aitor Mendiluzerekin. Hibai Gain elkartean da eta txartelak salgai dituzte: udaletxe zaharrean, Tabernan Berrin eta Urbaltz tabernan.



Pausoka
haur eskola

943 77 03 77
pausoka@euskalnet.net
www.pausoka.eu

Belorrieta 8 • 20550 Aretxabaleta

Bulego ordutegia:
09:00-14:00 / 16:00-18:00

matrikulazio epea zabalik

0-3

urte



zeuria

zeuena

geuria





Orain dela bi urte, 1977an jaiotakoek gorbata eraman zuten bereizgarri moduan. GOIENA

Urte berean jaiotakoak elkartzeko ekimena

Zapatuan ospatuko da eskoriatzarrek galdu ezin duten hitzordu garrantzitsua, Kinttaden Eguna. Urte berean jaiotakoak bazkaltzeko batuko dira herriko hainbat elkarte eta tabernatan, eta, horren ostean, parrandan ibiliko dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aurtengo kintoak –Santa Ageda neska-mutilak– 2000n jaiotakoak dira, eta otsailaren 5ean eta 11n dantzak egingo dituzte Fernando Eskoriatza plazan. Horiekin bat egiteko, eta motorrak berotzen joateko, eskoriatzarrek bat egingo dute eurekin, herritarrentzat galdu ezinezko hitzordu garrantzitsuan, Kinttaden Egu-

nean, hain zuzen ere; zapatuan ospatuko da.

Ekimenak zazpi urte beteko ditu Kinttaden Eguna orain dela zazpi urte hasi ziren ospatzen, Einginke elkarteak sustatuta. Hain zuzen, urte berean jaiotakoak elkartzeko eguna izaten da, eta herriko elkarteetan eta tabernetan bazkaria izaten dute.

Eguna goizeko poteoarekin hasiko dute, eta urte berean jaiotakoek bazkaltzeko erreserba egin duten lekuan bapo jan ostean, parranda egiteko aprobetxatuko dute. Egitasmoak hainbat helburu ditu; hasiera batean, Santa Ageda neska-mutilak parrandan irteten zirenerako, herria girotzeko antolatzen zuten, baina gaur egun, urte be-

rekoek lagunartean batu eta egun ederra pasatzeko aitzakia-rekin antolatzen dute. Urtez-urte gainera, kintada kopurua hazten joan da, eta bazkaria egiteki afaria egitera pasa direnak ere badaude; eta alderantziz. Urtero, gainera, bazkaltzeko lekua topatzea ez da lan samurra izaten, eta askok aurreko urtetik egiten dute erreserba, eguna heltzen denean sorpresa-rik ez izateko.

Kintaden bereizgarriak

Egitasmoa hasi zenetik hona, kintada batzuek bereizgarriren bat eraman izan dute egun horretan. Batzuk jaiotza urtea idatzita eraman izan dute, lepotik zintzilik, zapietan; beste batzuek egunerako kamisetak egin izan dituzte, kapelak.... Lehen urteetan, Einginke izan

zen egitasmoaren antolatzailea, baina gaur egun, antolatzaile barik, kintada bakoitza bere bazkariak arduratzen da. Dena den, Einginke elkarteak bereizgarriak eramatera animatu nahi ditu herritarrek. Egunean ez da bestelakorik antolatzen, nahiz eta hainbat urtetan kintada ezberdinetakoa jendea Fernando Eskoriatza plazan batu izan den Santa Ageda neska-mutilen dantzak egiteko asmoz.

Santa-eskean baserriz baserri

Domekan, Santa Ageda bezperan, aurtun 18 urte beteko dituzten gazteek herriko baserriak bisitatuko dituzte. Baserritar jantzita, santa-eskean koplak kantatuz joango dira elizate guztietako baserrietara. 2000n jaiotako neska-mutilak baserriz baserri ibiliko dira.



Guztiak egon ez arren aurtun 34 neska-mutil izango dira kinto. I.B.

Santa Ageda neska-mutilak, prest

Otsailaren 5ean, astelehena, eta otsailaren 11n, domeka, 2000n jaiotako neska-mutilek dantzak egingo dituzte Fernando Eskoriatza plazan. 19:00etan hasiko dira, elizako kanpaien errepikarekin batera, etxafuegoa bota ostean.

Urkiak landatu dituzte Elorretan

Zuhaitz Eguna ospatzeko, urkiak landatu zituzten joan den domekan, Elorreta auzoko haur-parke ondoko belardian.

2017an 24 jaiotza izan ziren herrian, eta haien gurasoek, familiekin lagunduta, aitzurrak hartu eta urkiak landatu zituzten, Saioa Aitzua eta Arrate Landa Ibarraundi museoko teknikariek hainbat argibide eman ostean.



IMANOL SORIANO





Euskaraldia, 11 egun euskaraz egitasmoaren aurkezpenean, Eskoriatzako osoko bilkuren aretoan. MARI CARMEN ARRIETA

Euskara, kontzientziatik ekintzara eraman nahian

'Euskaraldia, 11 egun euskaraz' egitasmoarekin bat egin dute Eskoriatzako hainbat elkarte eta eragilek. Horrekin batera, otsailaren 16an, Kike Amonarriz soziolinguistak Zaldibarren egingo duen hitzaldiaren berri eman zuten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urtarrilaren 22an (astelehena), Eskoriatzako Udalak deituta, herriko hainbat talde eta eragile elkartu ziren udaletxeko osoko bilkuren aretoan, *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* ekimenaren berri emateko.

Euskaraldia 2018ko azaroaren 23a eta abenduaren 3a bitartean Euskal Herrian gauzatuko den ekimena da, herri erakundeek eta euskalgintzako eragileek elkarrekin sortu eta aurrera eramango dutena. Eskoriatzan ez dago propio euskalgintzan lan egiten duen herri elkarterik, baina bai euren jardunean euskara bultzatzea ere helburu dutenak.

Herritarrei, parte hartzeko deia

Egitasmoaren nondik norakoak azaldu ostean, bileran parte hartu zuten elkarte eta eragileetako ordezkariak Euskaraldiarekin bat egitea erabaki zuten, eta herritarrei dei egiten diete *Euskaraldia, 11 egun euskaraz* gauza-

tzeko otsailaren 16an egingo den hitzaldian parte hartzera.

Kike Amonarriz hitzaldia

Eskoriatzako Udalak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak elkarlanean antolatuta, Kike Amonarriz soziolinguistak *"Eskoriatza euskalduna nahi duzu? Egingo du?"* hitzaldia egingo du otsailaren 16an, egubakoitza, 19:00etan, Zaldibar antzokian. *Eskoriatza herri euskalduna dela uste duzu?, Eskoriatza herri euskaldunagoa izatea nahi duzu?, Seme-alabek euskara gehiago erabiltzea gustatuko litzaizuke?, Koadriletan euskara gehiago entzutea gustatuko litzaizuke?...* mota horretako galderak kezkatzen dituzten

**KIKE AMONARRIZ
SOZIOLINGUISTAK
HITZALDIA EGINGO DU
OTSAILAREN 16AN
ZALDIBAR ANTZOKIAN**

16 urtetik gorako euskaltzaileen dako hitzaldia izango da.

Helburu asko

2016an, Soziolinguistika Klusterrak gidatutako Eskoriatzako kale erabilera neurketaren araberak, %37,5ek euskaraz hitz egiten dute, %58,8 euskalduna izan arren. Hala, hizkuntzaren normalizazio bidean urrats sendoak egin nahi dira erabilera aktibatzeke, eta, Euskaraldia-ekin, norbanakoen, erakundeen eta eragile guztien aktibazioa eskatu nahi da, normalizaziorako prozesu arrakastatsu eredu garria sortuta.

Eskoriatzako Euskara teknikari Mari Carmen Arrietak azpimarratu du egitasmo horrekin ilusioa piztu nahi dela, Eskoriatzan euskararen erabilera handitu dadin. Hala ere, hamai-ka egunez euskaraz egitearen hautuak pertsonala izan behar duela gaineratu du. "Kontzientzia hartuta dutenek praktikan jartzea da egitasmo honen funtsa".



Eskoriatzako Santander bankuko sukurtsala. I.B

Santander bankuko lapurretaren egilearen bila ari da Ertzaintza

10.000 euro ostu zituen lapurrak Santa Anako sukurtsalean, eta ezin izan zuten harrapatu

I.B ESKORIATZA

Santander bankuak Eskoriatzako Santa Ana auzoan duen sukurtsalean, Akeita taberna ondoan, lapurreta izan zen pasa den egubakoitzean, hilak 26, 14:30 aldera.

Bankuko sukurtsaleko atearak itxi baino minutu batzuk lehenago izan zen gertaera. Txanoa-ekin eta eguzkitako betaurrekoekin sartu zen beltzez jantzitako gizon bat bankura, eta, Ertzaintzaren arabera, pistola batekin, bertan zegoen langileari dirua emateko exijitu zion. Guztira, 10.000 euroekin egin

zuen ihes. Ertzainek abisua jaso, eta gertaera tokira heldu zirenerako ihes eginda zegoen lapurra, eta oraindik ez dute harrapatu.

Ertzaintzak gaineratu zuen pistola benetakoa ez zen susmoa dutela, eta ikerketak zabalik jarraitzen du.

Sare sozialetatik hedatuta

Santander bankuko lapurreta gertatu eta gutxira, sukurtsaleko zaintza-kameretatik ateratako argazkia hedatzen hasi zen herritarren artean, sare sozialen bidez.

'Motxilaren umeak' filma proiektatuko dute gaur Zaldibarren

Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpitan, Kurkuluxetan elkarrekin aurkeztuta, *Motxilaren umea, Ehunka euskal umeri ukatutako eskubideen aldeko aldarria* filma proiektatuko dute Zaldibar antzokian.

Haurren eskubideen aldeko film pedagogiko horrek benetako gertaerak islatzen ditu, eta *ume motxiladunen* omenez egingo da. Maider izeneko gazte txo baten historia kontatzen da; hain zuzen ere, ama espetxean daukan adingabeko neska batena. Alabaren garapen pertsonala zirkunstantzia horren menpe dago, eta, ama etxetik ehunka kilometrora bizi denez, egoera askoz larriago bihurtzen da.

Erretiratuen tabernan izango da mahai jokoen txapelketa

Olazar erretiratuen elkarteak antolatuta, mahai jokoen txapelketa egingo da datorren martitzenean eta eguaztenean. Urtean zehar egiten dituzten ekintza guztien artean, erretiratuek beharrezkotzat hartzen dutena, hain zuzen ere.

Otsailaren 6an, briska eta tute karta jokoen txapelketa izango dute, 16:00etan hasita, Fernando Eskoriatza plaza ondoko erretiratuen tabernan. Otsailaren 7an, berriz, musean jokatu dute, ordu berean hasita. Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da, txapelketaren eguna, eta kuoten ordainketa eginda izan beharko dute parte hartu nahi dutenek.

Bandaren emanaldia, lehen aldiz Aratusteetan

Beheko Errota Musika Eskolako bandak lehen aldiz eskainiko du kontzertua Eskoriatzako Aratusteetan. Emanaldia otsailaren 9an izango da, Zaldibar antzokian, eta musikarien artean ilusioa piztu eta bide berriari ekiteko lehen ekimena izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako bandak ez du inoiz Aratusteetan kontzerturik eskaini. Hala, aurten egin duten hausnarketa baten ondorioz, lehen aldiz egitea erabaki dute. Kontzertua otsailaren 9an, egubakoitzean, izango da, Zaldibar antzokian, 20:00etan.

Ibilbide luzea

1980an sortu zuten Eskoriatzako musika eskola Maria Esther Oregik eta Mari Cruz Oiangurenerekin. Haiekin batera, Angel Bañares eskolak ematen hasi zen bertan. Eskola sortu eta bost urtera, musika eskolako bandako zuzendari aritu da Bañares.

Gaur egun, 30 musikarik osatzen dute banda, eta, gazteek kanpoan ikasten dutelako, motibazio falta dagoelako... behe-rakada izan dute; hala, 2018ra begira erronka berriak ezarri nahi dituzte. Honela adierazi du Imanol Andetxeagak, Eskoriatzako bandako kideak: "30 urteren ostean, ito egin gara banda osatzen dugun musikariak. Soilik betiko hitzorduetan hartzen dugu parte, bultzada bat behar dugu, ilusioa eta motibazioa pizteko. Hala, epe motzerako erronka banda suspertzea da, eta, epe luzera begirakoa, Angel Bañares zuzendaria ordezkatzeko. Guk ondo pasatzeko egutegi berri bat proposatu dugu: Atxorrotx egunean jotzea, dantzaldia egitea, trikitiarekin uztartzea, ipuin musikatuak eskaintzea..."

Zaldibarko emanaldia

Hainbat pieza eskainiko dituzte otsailaren 9ko emanaldian: *Television Showcase*, *Chariots of fire*, *Ballet Parisien*, Tolosako inauterietako kantauak... eta sorpresak ere egongo direla adierazi dute Eskoriatzako Beheko Errota Musika Eskolako kideek. Hala, herritarrei bertaratzeke dei egiten diete.



Iaz Gabonetan eskaini zuten kontzertua, Zaldibar antzokian. GOIENA

Bañares-Bengoa familia

Bitxikeria moduan, banda osatzen duten hogeita hamar musikaritik hamar Bañares eta Bengoa familiakoak dira. Imanol Andetxagak adierazi du datu bitxia den arren eta oinarri sen-


doa duten arren, jende berriaren aldeko apustua ere egin nahi dutela. "Daukagunarekin bizi gara, eta azken urteetan ez da jende berria sartu; hala, ilusioa eta kohesioa mantentzea da gure helburu nagusia gaur egun".



1986ko banda osatzen zutenak

Eskoriatzako Musika Eskolako banda sortu –1985–, eta hurrengo urtean, 1986an atera zuten talde argazkia. Fernando Eskoriatza plazan zegoen musika eskolako eskaileretan ateratako argazkia da.

LEINTZ GATZAGA 21



Gatz Museoko dorlak. ROBERTO OTAZU

Beste dorla bat martxan jarrita, probak egiten ari dira egunotan

Produkzioa bikoiztu egingo dutela aurreikusten dute, eta, aurrera begira, beste bi dorla jarri nahi dituzte

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagan gatz ekoizpen produkzioa handitzeko egitasmoarekin hasiak dira, eta aste-buru honetan beste pauso bat eman dute. Izan ere, beste dorla bat –gatz egiteko galdara– jarri berri dute eta probak egiten ari dira egunotan –argazkian, ezkerrekoa–.

Orain arte, gatz ekoizteko dorla bakarra izan dute museoan, eta pasa den domekan jarri zuten beste bat. Lehenengoarekin konparatuz, ezberdina da, oxidatzaile ezberdinak ditu eta. Hala, material ezberdinekin

produkzio-probak egiten ari dira. "Dorla jarri berri, ikasten ari gara, behin betiko instalazioa egin aurretik. Gure asmoa da ekoizpena bikoiztea, baina zer-nolako tenperatura hartzen duen, zenbatean behin garbitu behar den... jakin behar dugu aurrena", adierazi du Joannes Mendizabalek, Kultura zinegotziak.

Beste bi jartzeko asmoa

Bigarren dorla horrek ematen dituen emaitzak ikusi ostean beste bi dorla jartzeko asmoa ere badutela adierazi du Joannes Mendizabalek.



GATZ MUSEOA

Kanal garbiketa egin dute

Leintz Gatzagako Hirigintzako zinegotzi Roberto Otazu eta herriko mantentze-lanen arduradun Xabi Jausoro kanal garbiketa egiten izan ziren pasa den zapatuan.

la hilabetero egin beharreko lanean, ur kantitatearen arabera, pasoa itxi edo ireki beharra izaten dute kaudal minimoa mantentzeko.



Nardeaga kaleko 6. eta 8. zenbakien arteko partzela. J.I.

Plan urbanistikoa, arau eta asmo berriak lantzen

Auzoetako plan urbanistikoa bukatuta, Ibarako alde zaharrekoari heldu dio Udalak; plana gauzatzen denean, eraikitzerakoan edo obretan kontuan izan beharreko arau berriak izango dira herrian, eta erdigunean proiektuak egiteko aukera ere sor daiteke

Julen Iriondo ARAMAIO

Duela bospasei urte heldu zion Udalak Ibarako alde zaharreko plan urbanistikoiari, baina haren lanketa eten egin behar izan zuen, halabeharrez, eta orain hartu du berriro gaia. Planak arau berriak ekarriko ditu, eraikitzerakoan edo eraikinetan lanak egiterakoan kontuan hartu beharko direnak, eta baita proiektu berrietarako aukera ere.

Raimundo Mendiburu arkitektoa ari da gaiarekin, eta plan berezi –PERI deritzona– berriak sor ditzakeen aukeren adibideak –oraindik garatu eta euren bideragarritasuna erabat ziurtatu gabeak– eman zituen herritarrekin egindako aurreneko bileran. Proiektu proposamen horiek duela bospasei urte prozesua martxan jarri zenean antzemandako behar eta herritarren nahietan daude oinarrituta, besteak beste.

Adibidez, Nardeaga kaleko 6. eta 8. zenbakidun eraikinen ar-

teko gunean –gaur egun eraiki gabea– plaza bat egiteko aukera jarri zuen mahai gainean arkitektoak, herriak Santa Ana ermita eta Santakruz plaza arteko tartean halako espazio publiko irekirik ez duelako, eta ondo etorriko litzaiokeelako –plazarekin batera frontoi txiki bat egiteko aukera ere aurkeztu zuen arkitektoak–.

Izan ere, Ibarra erdigunean eraiki gabe dauden guneetarako espazio edo eraikin berriak ditu buruan Udalak. "Nardeaga kalean, adibidez, etxe zaharrak eta partzela hutsak daude. Erdiko kalea da, eta biziberritzea nahi dugu. Horretarako zer egin behar da? Etxe zahar horiek berritu, eta hutsik dauden guneak bete,

**NARDEAGA KALEAN
PLAZA BAT ETA
FRONTOI TXIKI BAT
EGITEA DA
AUKERETAKO BAT**

beheetan komertzioak jartzeko aukera sortuz, adibidez, herriari bizitasuna emateko", zioen Martin Arriolabengoak, Hiri-gintza zinegotziak. Eta plan berriko irizpideak izango dira, alde batetik, eta ahal den heinean, hutsik dauden partzela horiek betetzea errazteko.

Bestela, arau berriak arruntak izango direla zioen Raimundo Mendiburu arkitektoak, "alde zahar bateko baldintza arruntak": "Arauak aldatu egin behar dira, orain indarrean daudenak ondo ez daudelako, urte batzuk pasa dira, eta berritu egin behar dira. Arau orokorrak eta arau partikularrak aldatu behar ditugu: orokorrak batetik, ze leiho mota baimentzen den, ze teilatu mota...; eta partikularrak, partzelaz partzela zehaztuko dugu ze baldintza bete behar diren eraikin bat egiteko edo berreskuratzeko". Behin alde zaharreko plan berezia eginda, hura berritzeko diru laguntzak eskatu ahal izango dira.



Udaleko eta Aldundiko ordezkariak, Gureian. J.I.

Aramaioko beharrak eta lanak ezagutzen izan da Aldundia

Ramiro Gonzalez ahaldun nagusiak herrira egindako bisitan, Gureian Foru Planarekin egindakoak ikusi ditu

J.I. ARAMAIO

Ramiro Gonzalez, Arabako ahaldun nagusia, eta Pilar Garcia de Salazar, ahaldun nagusiordea, Aramaioko udalbatzako ordezkariarekin bildu dira berriki, Gureia auzo-gunera bisita egitearekin batera. Foru Planeko diru laguntzarekin egindako lanak ikusten egon ziren han: kanalizazioa, lurzorua eta bestelako zerbitzuetaarako lanak.

400.000 euro inguruko kostua izan zuten lanak, eta %90 Foru Planeko diruarekin ordaindu zuten. 30 bizilagun inguru ditu Gureiak, eta haien "eguneroko bizitzak, obra horiekin, hobera egingo duen ustea" agertu zuen Pilar Garcia de Salazar ahaldun nagusiordeak: "Foru Planeko dirua udaletako eta administrazio-batzarretako dirua da, eta eurentzat izan behar du, ondorioz; obretan eta egoitzetan erabiltzen da".

Gureiara bisita egin aurretik, udaletxean bildu ziren Aldundiko eta Udaleko ordezkariak. Aramaioarrek dituzten arazoak eta beharren berri eman zioten Diputazioari: "AHTarekin ditugun arazoak, erresidentzia baten beharra, obrekin eta pistekin ditugun arazoak...", zioen Lierri Altuna alkateak. Foru Aldundia euskaldundu eta erakunde bien arteko harremanetan euskara normaltasunez erabiltzeko aramaioarren nahiaren gainean ere jardun zuten.

Alkatea gustura agertu zen Aldundiko arduradunen bisitagatik eta interesagatik. "Gustatzen zaigu leku bakoitza bisitatzeko, alkateekin eta zinegotziekin harremanak sendotzeko, eta udalen beharrak gertutik eza-gutzeko", zioen ahaldun nagusiordeak. Aramaioarren eskaerak aztertzeak asmoa agertu zuten Aldundiko ordezkariak.

Aldundirako dokumentuak, udaletxean ere bai

Urtarrileko osoko bilkura egin zuen aurreko astean udalbatzak, eta bertan onartu zuten Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hain zuzen ere, herritarrek Aldundirako izan ditzaketen dokumentuak udaletxean erregistratu ahaliko dituzte, baita alderantziz ere, Udalerako direnei Aldundian sarrera eman.

Kerixara gaztandegia, 'Nekazaritzako berrikuntza' saria

Oletan dagoen Kerixara gaztandegiari –eta Otxandion dagoen Kerizara landetxeari– eman diote 2017ko *Nekazaritzako berrikuntza* saria. *Turtolio* proiektuko partaide da, eta proiektu hori saritu du Madrilgo Innagrotables foroak. *Turtolio* proiektuan koltzaren erabilera sustatzen dute Idiazabalgo gazta eta erregai biologikoa ekoizteko.



lazko Inauterietan, neskatilak euren ikuskizuna egiten gainerakoen begiradapean, plazan. GOIENA

Egun osoko jaia aurten, berriz ere, Inauterietan

Aurreko urteetan zenbaitetan egin izan zena berreskuratu, eta, arratsaldekoa barik, egun osokoa izango da otsailaren 10eko festa; horretarako, bazkalosteko ohiko ekitaldiei eguerdi partekoak batuko zaizkie, kalejira eta herri bazkaria

J.I. ARAMAIO

Zenbait urtetan Gazte Asanbladak antolatuta egin izan zen Inauterietako herri bazkaria –herriar guztientzat irekia izan ohi zen hura ere– egitaraura itzuli da aurten. Eta itzuli da herriar baten proposamena aintzat hartuta, bestela eguna labur geratzen zela-eta hark iradokita. Eta Udalak bazkaria antolatzea erabakita, bazkarira ere moztarro giroan sartuta joateko, aperitiboaren orduan hasiko da festa.

Honela, 13:00etan izango du hasiera Inauteri-zapatuko egitarauak: kalejira izango da Ibarako kaleetan zehar, herriko trikitilariekin. Bazkaria, berriz, 14:30ean izango da, eskolan. Bazkarirako txartelak udaletxean eros daitezke, gaur –egubakoitza–, astelehenean edo martitzenean –hilaren 6a da azken eguna–, 09:00etatik 14:30era.

Bazkari menua izango da makarroiak eta oilaskoa –bularra umeentzat eta izterra saltsan

nagusientzat–, eta postrea –goxua nagusientzat, eta umeentzat beste azkenburuko bat–. Txartelak eskuratzeko ordaindu beharrekoa da 17 euro nagusien kasuan, eta 10 euro 10 urtetik beherakoek.

Bazkalostean jarraituko du festak, eta 17:00etan moztarro desfilea izango da kiroldegitik behera, plazara bitartean. Han lehiaketa egingo da gero: talde bakoitzak egunerako prestatutako dantza edo ikuskizuntxoak aurkeztuko du. Lehiaketan parte hartzeko izena bezperara arte eman daiteke, liburutegian. Gutxienez, lau pertsonako taldeak izan daitezke, eta bakarka ere eman daiteke izena. Eta sariak ere izango dira, ohikoa den mo-

EGURALDI TXARRA EGITEN BADU, KIROLDEGIAN EGINGO DA MOZORRO DESFILEA

duan, moztarro onenentzat: 90 eta 50 euroko sariak lehen eta bigarren sailkatuentzat, bai haurretan eta bai 14 urtetik gorakoetan. Moztarorik originalenak ere izango du ordaina –izan banakakoa edo taldekakoa–: 50 euro. Epaimahaia herriko taldeetako ordezkariak osatuko dute; Alaiak erretiratuen elkartekoek, adibidez.

Txokolatea eta dantza

Txokolate beroa prestatu eta 18:30ean banatu egingo dute Itur Zuri emakumeen elkarteko ki-deek, eta ondoren disko festa hasiko da Sastiñan. Ilunkera girotzeaz musika jartzaile bat arduratuko da, eta tarte horretan banatuko dituzte moztarro lehiaketako sariak ere.

Giro polita ziurtatuta dago, beraz, Aramaioko Inauterietan; hori bai, halakoetan kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua izaten da eguraldiarena, eta txarra balego desfilea kiroldegian egingo litzateke.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

-Zeren beldur zara?

-Ba, egia esanda, ez nuke jakingo definitzen.

Armiarme beldurra diezula? Erraza, araknofobia deritzo horri. Toki altuei diezula beldurra? Horrek ere izena dauka, akrofobia. Hegaldiei? Aerofobia. Katuei? Ailurofobia. Toki itxiei? Klaustrofobia. Beldur guztiek daukate izena, identifikatzea besterik ez dago. Brontofobia, adibidez, oso normala da, ekaitzek beldur handia eman dezaketelako. Eta cinofobia? Txikitan txakurrei beldurra nien eta gaur egun sugeez ere ez naiz fidatzen –herpetofobikoa izango naiz?–. Beldurak identifikatzea erraza da, baina benetan zaila justu kontrakoa egitea da: fobiak topatu beharrean filiak identifikatzea. Ilargiak betidanik erakarri nau, baina ez nekien horri selenofilia deitzen zitzaioela. Ama liburuz inguratuta bizi da, beharbada berea bibliofilia izango litzateke, eta aita mendira zuhaitz artera ahal duen bakoitzean joaten da, dendrofilikoa izango ote da?

-Eta zuk zer duzu gustuko?

-Ez al duzu antzeman? Nirea lofobia da.



ROSA MONDRAGON

Zuraiden, Lagun-Artean

Aramaioko dantza taldeko hogeitik gora lagun izan ziren aurreko asteburuan Zuraiden (Lapurdi), bertako neguko jaialdian parte hartzen. Giro bikaina izan zen, eta aramaiorak ederki ibili ziren euren dantzak erakutsiz: txakolin dantza, zinta dantza, ikurrin dantza... Eta Zuraiden taldearekin batera makin tiki ere dantzatu zuten.

Bigarren saioa ere irabazita, Kuadrilla Artekoaren finalerdira

Ibabeko Bertaren bilobak taldeak Aiaraldeko *Alfredo*-k baino puntu gehiago lortu zituen aurreko egubakoitzean Marixekan egindako saioan, eta Andere Arriolabengoa, Manex Agirre eta Xabi Igoa otsailaren 24ko Amurrioko finalaurrekoan izango dira. *Aramaioko sobrak* taldekoek, berriz, Errekaleorren kantatuko dute bihar.



Andere Arriolabengoa. IMANOL SORIANO

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea esk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealedea 2 behea esk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Oñalora Lizentziaduna 18, solairuarte esk.
685 70 17 96

HOMEOPATIA

AMAJA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arebacaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arebacaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arebacaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Kalitateko botoarekin onartu dute aurrekontua

EAJko Igor Oiarbidek bilkuran egoterik izan ez zuenez eta oposizioak "informazio eta definizio faltagatik" kontra bozkatu zuenez, alkatearen kalitateko botoarekin onartu zen udal aurrekontua; proiektu izarrak: seminario azpiko aparkalekua eta Arrizuriaga

Jokin Bereziartua BERGARA

Seminario azpiko aparkalekua. Hori izango da, Elena Lete alkateak udal aurrekontua onartzeko astelehenean egindako osoko bilkuran adierazi zuenez, 2018ko proiektua: "Plan Orokorrean kokapena aukeratuta dago eta aparkalekuen inguruan egindako azterketan behar hori nabarmen ageri da. Partida horrekin, herriari gure konpromisoa erakutsi gura diogu, aparkalekua egitera goaz". 1.400.000 euroko partida aurreikusten du Gobernuak; 1.200.000 euro maillegu bidez lortuko lirateke eta gainerakoa, Udalaren diru-kutxatik. Eta lur azpiko aparkalekuekin batera, Arrizuriaga jauregia eta lorategia eraberritzeko beste 1.100.000 euroko partida dago aurreikusita. Azken proiektu hori, baina, Espainiako Sustapen Ministerioaren 900.000 euroko diru laguntza baten menpe dago. AHTaren lanek Bergarako lotu-nean, Angiozarren, eragindako kostuaren %1 kultur azpiegituratarako bideratzeko laguntzaren barruan kokatuko litzateke.

Alkateak azpimarratu zuen hauteskunde programan jasota zituztela aparkalekurako zein Arrizuriagarako proiektuak. Eta, hain justu, bi proiektu horiekin eragin zuzena izan dute aurrekontuaren %11ko igoeran –inbertsioen %48 izango da–. 2018rako udal aurrekontua 24.857.039 eurokoa izango da eta, iazkoa (22.362.510 euro) baino ia bi milioi eta erdi euro gehiago.

"Ez dute inongo definiziorik"

Oposizioak aurka bozkatu zuen. Igor Oiarbide zinegotzi jeltzaleak lan kontuengatik bilkuran egoterik izan ez zuenez eta Gobernuaren zein oposizioaren arteko botoetan berdinketa izan zenez, alkatearen kalitateko botoari esker onartu zen aurrekontua. EH Bilduk herritarrekin batera epe luzera begirako Bergara



Udal aurrekontuaren bozketa: EAJ eta PSE-EE, alde; EH Bildu eta Irabazi, kontra. J.B.

ALBERDIREN AGURRA HUNKIGARRIA IZAN ZEN; UDALBATZAK TXALAZ ETA ESKER ON HITZEZ AGURTU ZUEN

irudikatzen "hausnarketa estrategiko bat" egiteko gonbidapenaren aurrean EAJren ezezkoa jaso ostean, bi inbertsio nagusien aurrean definizio eta informazio eza salatzen zituen. "Bi inbertsio nagusiek ez dute inongo definiziorik, eta, beraz, ez dugu inongo bermerik zer eta zenbat eurotan irtengo dan jakiteko. Ez dakigu aparkalekua nolakoa izango den; zenbat plaza, doakoa edo ordainpekoa... Eta Arrizuriaga ere ez dakigu zer egingo den, eta osoko bilkuran ez dugu Gobernuaren erantzunik jaso. Informazio barik ezin dugu halako inbertsiorik onartu", uste du EH Bilduko Agurte Barrusok.

Irabazik ere kontra bozkatu zuen. Lehentasunen fokua behartuenengan dutela diote eta gogor ekarri zuten Bergaran 614 langabe daudela. Gobernuari eskatu zioten, adibidez, ordenan-

tza fiskalak eta aurrekontua uztailetik lantzen hasteko. "Adreiluan oinarritutako bi obrari eman diote lehentasuna. Hasiara batean, ez gaude proiektu horien aurka, baina lehentasuna larrialdi egoeran daudenengan jartzen dugu". Gainera, oposizioak bi taldeek nabarmendu zuten Udalaren zorpetzea handitu egingo dela, azken urteetako joera apurtuz. 6.824.492 eurokoa izatetik 7.944.492 eurokoa izatera pasatuko litzateke.

Ander Alberdiren agur hunkigarria

Bestalde, bilkurako unerik hunkigarriena orain arte alkateorde eta Ogasun batzordeko buru izan den Ander Alberdiren agurrean bizi izan zen; udalbatzak zein bertaratutakoek –senideak eta alderdikideak tartean– txaloz agurtu zuten. Alberdiren lekua Rafa Amasorrainek hartuko du.

Goiena telebistan, bihar eta etzi

Bestelako gaiak ere landu ziren. Esaterako, Udalaren eta Bergara Kirol Elkartearen arteko hitzarmena Agorrosin eta Ipintzaren erabilerarako eta mantentzerako; bilkura osorik ikusi ahalko da Goiena telebistan zapatuan (19:00) eta domekan (12:30).

NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR

MokoLoL

Zibergararrok modu analogikoan eta *unamunixuan* aurkeztu genuen gure azken jostailua. Herriko esaera zahar eta berriei osatutako pegatina digital sorta –informazio gehiago: *www.zibergara.net*–. Gutxienez, hiru erpinen elkarlanetik eraiki da:

bat) Euskalgintzatik: Jardun eta Elexpuru bidaide, Bergaran euskaraz komunikatzeko berbeta beroaren beharra izaten jarraitzen dugu. Ezin bada jolastu, hau ez da gure hizkuntza.

bit) Iruditeriatik: gure herriko bost artistak ezin hobeto islatu dituztelako kaleetan mintzagai direnak. Artekale digital eraldatzaile bat sortu dute, gure karkabetako ezinegonak, kritikak eta satirak esamolde mokoloekin *marruskatuz*.

hirut) Teknologia askeetatik: Telegram komunikazio tresna librean izan da proiektuaren oinarria. Bere askatasunak eman digu proiektua euskaratik eta iruditegi libre batetik eraikitzeko aukera. Komunikazioa, hiztunek eraikitako hitz eta irudien bitartez gauzatzen denean bilakatzen da benetako hartu-eman. MokoLoL hizkuntza bizirik dagoen seinale da, itsatsi libre eta euskaraz, hemen eta *Pikulittan*.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Bidekurutzeta kalean, autoak espaloi gainean

"Ohitura bihurtzen ari da Bidekurutzetan espaloi gainean autoak lagatzea; errepide zatia hartzen dute, eta, ondorioz, bidetik doazen ibilgailuak eskumako espaloiara ere igotzen dira", dio herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

San Blas jaiak ospatuko dituzte Buruñao auzoan

Bihar, otsailak 3, San Blas Egun ospatuko dute Buruñao auzoan. Suziri jaurtiketa (08:00); meza nagusia eta opil bedeinkapena (11:00) –eta ondoren auzo elkartean salda eta txoria egongo dira–; Aranzadi Ikastolaren eta Moises Aspiazu dantza taldearen ekitaldia (12:30), eta ondoren umeendako kukainak; Manu Iztueta, Unai Azka-

rate (Azkaiter Pelox) eta Aitor Aranburu musikariekin zuzeneko kontzertua (13:00); mus txapelketa zortzi erregetara –izen-ematea 15:30ean hasiko da eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu– (16:00); eta gauean, amaitzeko, auzo afaria eta erromeria izango dira.

Astelehenean, otsailak 5, Santa Ageda eguna ospatuko dute; aspaldiko usadioak agintzen duen moduan, San Blas ermita-ko ermandadeko kideen bilkura egingo dute, 19:00etan.



Bergarako Musika Bandaren emanaldiarekin borobildu zuten inaugurazio ofiziala, bertaratutakoen gozamenerako. IMANOL SORIANO

Sorkuntzarako "hazitegi" izateko inauguratu dute

Seminarixoaren inaugurazio ofizialean azaldu dute Bergarak "aspaldian" behar zuen kultur agertoki berria sorkuntzarako gune ere izatea espero dutela; bestalde, 2018ko udal aurrekontuan 80.000 euroko partida bideratuko da aurten zinema eskaintzeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako "gune kutun eta berezian" kokatua, herriak "aspaldian" behar zuen kultur agertoki moduan inauguratu dute Seminarixoa. Egubakoitzeko ekitaldian nabarmendu zuten, "ausarta eta berritzailea" izan da halako leku batean "askotariko erabileretarako egokia" izango den areto bat egokitzea.

Bergaran kultura sorkuntzak etenik izan ez dezan "hazitegi" izateko helburuarekin ireki dute, eta, Elena Lete alkatearen ustez, "oso pozgarria" da aretoa martxan ikustea: "Aspaldiko ametsa izan da, eta dagoeneko badugu herriak merezi duen moduko kultur agertokia. Duela urte batzuk ametsa zirudien XVIII. mendeko eraikin historiko honetan halako azpie-

gitura bat bermatu ahal izango zenik. Guztiok erabili ahal izango dugu". Seminarixoa gaur egun dena izateko arazoak askotarikoak izan direla gaineratu zuen Letek: "Obra zaila izan da. Esparru ezberdinetako lankidetzak izan dugu bi urteko bide honetan. Asko izan dira eta horiei guztiei esker eman gura dizkiet". Besteak beste, aipamen berezia egin zion

Lorelei tabernan urte luzez egon zen Iñaki Landa artistaren mosaikoari: "Berreskuratu eta areto sarrera alboan kokatu dugu. Halako elementuek ere gure historia bizia osatzen dute; gorde eta zabaldu beharrekoak dira". Ekitaldian, txistulari banda, Azkaiter Pelox eta Bergarako Musika Banda igo ziren agertokira, eta harmailetan kultura, kirol eta gizarte arloetako eragileen ordezkariak batu ziren ordezkari politikoekin batera.

"Esfortzu handia eta berritzailea"

Diputatu nagusi Markel Olanok esan zuen Seminarixoa posible izan dadin "esfortzu handia, berritzailea eta arrakastatsua" egin dela. "Herri industrialak gara, eta, bereziki, barrualdeko eskualdeetan nabari da hori, baina, aldi berean, gure nortasuna eta izaera definitzen duen kulturak berebiziko garrantzia dauka gurean. Seminarixoa ez du bakarrik kultur adierazpenak ikusteko eta entzuteko aukera eskainiko, baizik eta sorkuntzarako gune ere izango da. Eta hori oso garrantzitsua da".

Zinemarako 80.000 euro aurten

Bestalde, asteleheneko osoko bilkuran onartu zen 2018rako udal aurrekontua (ikus 25. orria), eta inbertsioen artean alkateak berretsi zuen Seminarixoan zinemaz gozatu ahal dela aurten. Izan ere, 80.000 euroko partida bideratuko da ekipamendua erostera. Hori bai, alkateak ez zuen aurreratu noizko egongo den. Gogora ekarri behar da aretoa egiteko obraren eta ekipamenduaren aurrekontu osoa 2.322.633 euro izan dela; horietatik 1.435.089 euro lortu dira Jaurlaritzaren eta Diputazioaren diru laguntzetatik.

Aratusteetako kontzerturako sarrerak salgai daude oraindik

Otsailaren 9an izango da; 'on line' eta Seminarixoko txarteldegian erosi ahal da –gaur eta etzi–

J.B. BERGARA

Badatoz Aratusteak. Otsailaren 8an hasi eta otsailaren 13an bukatuko dira. Ekitaldi garrantzitsuenetarako txartelak salgai daude dagoeneko: Bergarako Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren Aratusteetako kontzertua otsailaren 9an izango da, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Sarrerak salgai daude Ticket.kutxabank.es helbidean, eta Seminarixoko txarteldegian ere erosi ahal da gaur eta domekan, 18:00etatik 20:00etara. Gehienez, pertsonako sei sarrera erosi ahal da. Domekatik aurrera, sarrerak Internetez egongo dira salgai. Hilaren 9an frontoiko leihatilak 21:30ean irekiko dituzte, baldin eta aurretik sarre guztiak agortzen ez badira.

Otsailaren 10ean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Boroblean!* ikuskizuna egongo da frontoian, 16:15ean eta 18:30ean. *On line* gaur jarriko dira salgai eta Seminarixoko txarteldegian gaur eta etzi erosi ahal da (18:00-20:00). Bestalde, otsailaren 10ean Aranzadiko gimnasioan egingo den mozorro bazkarirako txartelak Kultura Zerbitzuan (943 77 91 59) eta Kortazar zein Eruan tabernetan erosi ahal da, hamasei eurotan.


OHARRAK

Erramu Zapatuko feria

Martxoaren 24ko Erramu Zapatuko ferian salmenta postua jarri gura duenak otsailaren 26a baino lehen entregatu beharko ditu agiri guztiak –www.bergara.eus–.


Biodibertsitatea

Azken aukera dago gaur biodibertsitatearen gaineko bisita gidatura joateko, Laboratoriumen: 943 76 90 03.



MIGUEL LAZPIUR LAZPIUR ENPRESAKO UGAZABA

"Ekitaldian parte hartu duten guztiek maila itzela eman dute, baina, guztietatik, musika banda nabarmenduko nuke. Zoragarria izan da, aretoak soinu ederra du".




MARIJE UGALDE BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Kontxa akustikoarekin asko irabazten du aretoak, oso ondo entzuten da. Horretarako eginda dago eta espero dugu guztiok aprobetxatzeko aukera izatea".



MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA ARETOKO LOGOAREN EGILEA

"Akustika ederra dauka aretoak, oso ondo entzuten da. Igarri dut jendea pozik dagoela; itxaronaldi luzea izan du, baina ondo geratu da. Orain, erabili egin behar da".



KARLOS ETXANIZ BERGARAKO ORFEOIKO PRESIDENTEA

"Gabonetako kontzertuan oso gustura egon ginen. Lehen aldia izan da maskor akustikoarekin eta asko igartzen da; oso soinu polit eta garbia ematen dio aretoari".



Lander Agirre zinegotzia, Felix Peralta eta Markos Atutxa taxi gidariak eta Joseba Aizpuru teknikaria. ARANTZAZU EZKIBEL

Auzo-taxi zerbitzua jarriko dute martxan

Programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztenek txartel bat eskuratuko dute udaletxean; bidaia bakoitzeko 3 euro ordaindu beharko du zerbitzuaren erabiltzaileak. Udalak 2018rako 15.000 euroko partida onartu du programa horretarako

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Udalak auzo-taxi zerbitzua jarriko du martxan –egin beharreko tramiteak egin ondoren, otsailean martxan hastea espero dute–. "Bergarako auzotarren eskaerari erantzuna eman nahi izan diogu", azaldu du Lander Arregik, Auzoetako zinegotziak. "Herriko autobusa ez da auzo eta landagune askotara iristen", dio, eta gaineratu du: "Helburua da landa eremuetan bizi direnen bizi kalitatea hobetzea".

Norendako den

Programan sartu diren auzoak dira: Angiozar, Basalgo, Buruñao, Elorregi, Elosua, Goiauzoa, Osintxuko baserri eremua, San Juan, Sanantonabat eta Aldaiegia. Auzo horietan erroldatuta dauden eta auto propiorik ez duten 16 eta 25 urte bitartekoek, 65 urtetik gorakoek eta autonomia propiorik ez dutenek parte hartuko dute programan. "Baldintza horiek betetzen dituztenek udaletxean txartel bat eskuratuko

dute, erabiltzeko orduan erakutsi beharrekoa", azaldu du Joseba Aizpuruak, Hirigintza teknikariak.

Bidaiako 3 euro ordaindu beharko du zerbitzuaren erabiltzaileak –pertsona bat baino gehiago joan daiteke bidaian–; gainontzeko 9 euroak Udalak ordainduko dizkio taxi gidariari. "Udalak 15.000 euroko parti-

da onartu du 2018rako. Bost taxi batu dira zerbitzua emateko programara", azaldu du Arregik.

Ordutegia da: astelehenetik egubakoitzera 07:30etik 20:00etara eta zapatuetan 09:00etatik 14:00etara. Erabiltzaileak hiru ordu lehenago deitu beharko du, 685 73 32 83 zenbakira. Whatsapp aplikazioa erabiltzea eskatu dute udal ordezkariak.



Ibai Redondo, Maren Belastegi eta Iñigo Akaiturri. ENKO AZURMENDI

Ezkerraren erronkak aztertuko dituzte eskola herritarrean

Sortuk eta Iratzar Fundazioak antolatuta, hiru hitzaldi ziklo egingo dituzte otsailean zehar Irizar jauregian

Eneko Azurmendi BERGARA

Sorturen eta Iratzar Fundazioaren elkarlanaren ondorioz sortutako egitasmoa da Bergarako Eskola Herritarra. Hiru hitzaldiz osatutako ziklo bat izango da, otsailean zehar egingo dutena, eta herri jakintza sustatzea izango da helburu nagusia.

"Helburua da eguneroko lanerako formakuntza bat eskaintzea Bergarako ezkerriar, feminista, euskaltzale, abertzale, ekologista eta independentista guztiei. Formazioa eman eta jaso egingo da eskola honetan. Hizlariak egongo dira, baina herritarrek ere euren esperientziak partekatu ahal izango dituzte", azaldu du Maren Belastegik, antolakuntzako kideak.

Krisiari alternatiba

Munduak gaur egun bizi duen krisiari aurre egiteko ezkerriar alternatiba baduela uste dute

eskola herritarren sortzaileek, eta "izaera asanbleario, parte-hartzaile eta burujabea sustatuz" egin gura dute hori. "Ezkerreko mugimendu, alderdi, eta sindikatu ezberdinen iritziak jaso nahi ditugu. Ez dugu dogma bat sortu nahi, baizik eta jende guztia elkartu, adituek esaten dutena entzun, eta parte hartzen dugun kide guztiei hitza ematen saiatuko gara, modu pedagogikoan", adierazi du Ibai Redondok, eskola herritarreko kideak.

Hiru hitzaldi egongo dira lehen ziklo honetan. Guztiak Irizar jauregian izango dira, 19:00etan, otsailaren 6an, 20an eta 27an. "Herritar guztiak animatu nahi ditugu etortzera. Ahal izanez gero, hiru saioetara, eta, batera bakarrik etorri nahi izanez gero ere, ateak zabalik ditugu. Jendearen nahi eta behararen arabera, gehiago edo gutxiago antolatuko ditugu", diote.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

"Ilusioa egingo lidake finalerdietara iristeak"

ARRATE BERGARA PILOTARIA

Tuteran jaio baina Bergaran bizi den Arrate Bergara pilotariak Emakume Master Cup txapelketa jokatu du. Nagore Bilbao bizkaitarra izango du bikotekide txapelketan

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Emakume Master Cup txapelketa hasi zuten atzo, Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Zortzi bikote lehiatuko dira gorengo mailan; pilotari horien artean dago Bergaran bizi den Arrate Bergara (Tutera, 2001). Tuteran batxilergoa euskaraz egiteko aukerarik ez duenez, euskarazko ikasketen aldeko apustua eginda etorri da Bergarara bizi izatera. Harekin izan gara, atzoko partiduen aurretik.

Noiztik jokatzen duzu pilotan?

Benjaminetatik nabil pilotan. Tuterako taldean hasi nintzen eta egun Bergaran entrenatzen naiz. Ni baino mutil gazteagoekin entrenatzen naiz. Orain, hasi dira neska batzuk, eta izango dut aukera aurrerago neskekin entrenatzeko.

Zure adineko mutilekin alderatuta, zein da ezberdintasuna?

Tuteran nengoenan, nire adinekoekin jokatzen nuen, baina hemen bakarra dago –Ander Etxaniz–, eta, hark nagusiekin jokatzen duenez, ni txikiagoekin entrenatzen naiz. Material aldetik ere badaude ezberdintasunak; baina, horrez gain, parekideagoak garela uste dut.

Non dago alde handiena?

Ikuskizuna ematerakoan, edo teknikan, ez dago horrenbeste-



Arrate Bergara, udal pilotalekuan. ENEKO AZKARATE

ko alderik. Egia da neskek ez garela hainbeste airez sartzan, baina, gehienbat, esango nuke indarrean dagoela aldea. Gaur egun emakumeek erabiltzen ditugun pilotak koadro bateko botea egiten dute, eta gizonen pilotek hiru koadroko botea. Hala ere, ezin da alderatu gizonen indarra eta emakumeena. Egia da emakumeen partidu bat ikusterakoan airez oraindik ez dela hainbeste ikusten. Pixka bat garatzea falta zaio, eta konfiantza hartzea. Gazteek ikusi behar dute oraindik asko garatu gaitezkeela.

16 urterekin, lehenengo mailan parte hartuko duzu?

Kontua da aurreko urteko txapelketan bigarren mailan apuntatu nintzela. Beste neska batekin osatu nuen bikotea eta irabazi egin genuen txapelketa. Hori horrela, ulertu nuen mailaz igo behar nuela, hobetzeko. Aurten, lehenengo mailan eman dut izena, baina mekanismoa ezberdina da eta eurek osatu dituzte bikoteak. Nire bikotekidea Nagore Bilbao da.

Ezagutzen duzu eta entrenatu zarete elkarrekin?

Iaz bigarren mailako finala jokatu nuen haren kontra, maila onekoa zen. Alde horretatik, pozik nago. Egia da elkarrekin entrenatzea hobe izango litzaitekeela, baina ez dugu denborarik izan txapelketa prestatzeko. **Nortzuk izango dituzue aurrez aurre?**

Gure taldean –A– jokatu dugu Amaia Aldaik eta Joane Flabianok, Leire Etxanizek eta Olatz Arrizabalagak, Amaia Araistegik eta Maddi Mendizabalek eta guk geuk. Lehenengo fase honetan bi partidu jokatu ditugu eta hiru bikote onenak pasatu dira bigarren fasea jo-

katzera –otsailaren 17an eta 18an izango da, Larrabetzun–.

100 emakumezko baino gehiagok parte hartuko duzue. Uste duzu beharra zegoela Euskal Herriko pilotari onenak txapelketa baten batzeko?

Nire ustez, bai. Iaz ere jende asko apuntatu zen, baina, aurten, ikusten da bigarren mailan dardela asko; hortaz, uste dut neska gazteak izango direla. Oso ondo dago, pilota beti izan delako mutilen kirola; hortaz, ondo dago neskek ere animatzea. Nik beti jokatu izan dut pilotan, eta Tuterako klubean bi neska bakarrik geunden. Horregatik pozten naiz.

Nondik datorkizu zaletasuna?

Familiatik; aita beti ibili izan da pilotan, eta baita anaia ere. Aitak esaten dit 2 urte nituenetik jokatzen dudala pilotan.

Nor izan duzu erreferente?

Gure familian beti izan gara Irujoren zaleak. Izaera handikoak gara eta Irujo ere horrelakoa da; baita sinpatikoa ere.

Iaz bigarren mailako txapeldun izan zinen?

Bigarren mailako txapeldun, binakako txapelketan. Banaka ere ibili nintzen, baina final-laurdenetan kanporatu ninduten.

Noraino nahiko zenuke iritsi?

Zail dago, baina ilusioa egingo lidake finalerdietara iristeak, telebistan emango dutelako eta lagunak ikusteko aukera izango dutelako. Finalerdiak eta finalak eskainiko dituzte. Ondo jokatu nahi dut, ez dut presiorik.

"EMAKUMEZKOEN PARTIDUETAN EZ DA AIREZ ASKO SARTZEN, BAINA IKUSKIZUNA EMATEN DUGU"

Garmendiak eroan du saria

Lokatza ziklismo eskolak urtero Gabonetan egiten duen zozketaren sariduna Unai Garmendia izan da.

Argazkian Garmendia agertzen da, 12 Kirolak bizikleta dendan, saria eskuetan duela. Irabazitakoa da: Zumelaga jatetxeko saria eta 200 euro. Pello Garitano eta Jon Unamuno Lokatzako ordezkariak eta 12ko arduradunarekin dago sariduna.



LOKATZA

Sagardotegira joango dira realzaleak otsailaren 18an

Bergarako Erreal Zaleak taldeak sagardotegira irteera antolatu du otsailaren 18rako. Petritegi sagardotegira joango dira Real-Levante futbol partidua ikusi ondoren. Bazkideek peñaren kontu korrontean –Bankoa– 15 euro sartu beharko dute otsailaren 14a baino lehen. Partidua ikusi gura duenak 699 40 23 41 telefonora deitu beharko du.



2017ko sari banaketa Udal Pilotalekuan; aurtengoa Seminarixoan izango da. GOIENA

Herriko literaturazaleen txapelketa abian da

Koldo Eleizalde lehiaketako lanak apirilaren 11ra arte aurkezteko epea egongo da. Lau lan mota aurkez daitezke: ipuin idatzia, bertso eta koplak, komikia eta interpretazioa edo kontaketa. Sariak maiatzaren 26an emango dituzte, Seminarixoan

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Apirilaren 11ra arte izango dute epea Koldo Eleizalde lehiaketan parte hartu gura dutenek lanak aurkezteko. Aurtengoa 33. aldia izango da.

Lehiaketan parte har dezake te Bergaran jaiotakoek, Bergaran bizi direnek edo bertan ikasi edo lan egiten dutenek.

Lan guztietan gaia librea izango da eta originalak izan behar dute.

Lau sail egongo dira

Lau lan mota aurkezteko aukera dago: ipuin idatzia, bertso edo koplak, komikia eta interpretazioa edo kontaketa. Ipuin idatzia dagokionez, gaia librea

izango da eta lanek originalak eta inoiz saritu gabeak izan behar dute. Bost taldetan banatuko dituzte lanak, egilearen adinaren arabera: lehenengo taldean 2010-2011 urteetan jaiotakoak; bigarren taldean 2008-2009 urteetan jaiotakoak; hirugarren taldean 2006-2007 urteetan jaiotakoak; laugarren taldean 2003-

2004-2005 urteetan jaiotakoak; eta azkeneko taldean 2002 edo aurretik jaiotakoak.

Bertsokak edo koplak sailean: bertsotzat hartuko da gutxienez lau oin dituen, eta koplak gutxienez bi oin dituen. Gaia, neurria eta doinua librea izango dira. Lanek originalak eta inoiz saritu gabeak izan behar dute. Hiru taldetan banatuko dituzte, adinaren arabera: lehenengo taldean 2004an edo ondoren jaiotakoak; bigarren taldean 2000, 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak, eta hirugarren taldean 1999 edo aurretik jaiotakoak.

Komikiari dagokionez, aurkeztuko den lanaren egitura eta tamaina librea izango da, baina gutxienezko tamaina 29x10 zentimetroko komiki tira izango da. Horrez gain, aukera egongo da aplikazio informatikoz sortutako komikiak aurkezteko. Lehiaketaren helburu nagusietako bat komikien bitartez ahozko berbeta lantzea denez, ez da onartuko komiki muturik.

Azkeneko sailak ipuin kontaketa, antzerkia, umorezko pasadizoak eta txisteak batzen ditu. Gutxienez, minutu bateko iraupena izango dute kontaketeak, eta egile bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu. Lehiaketaren helburua ahozko-tasuna lantzea da eta epai-mahaiak lanak baloratzeko, kontatera edo antzezteko modua –ahots modulazioak, isiluneak, intonazioa, gorputz espresioa...

hartuko ditu, batez ere, kontuan. Arrazoi horregatik, ez da antzerki muturik onartuko eta ez da baloratuko kontakizuna originala izatea. Lanak entzunezko edo ikus-entzunezko artxibo digitalean –formatuak: MP3, FLV, MP4 edo AVI– grabatuta aurkeztu beharko dira, eta sare bidez aurkeztea gomendatzen da, *Bergarakoeuskara.eus* webgunean horretarako gertatutako formularioa erabilita.

Aurkezteko modua

Paperean bakarrik entregatu beharreko lanak –ipuin idatzia eta komikia derrigorrez eta bertsoa, aukeran– kartazal handi batean bidali edo entregatu beharko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan, kartazalaren kanpoko aldean honako hauek idatzita: *Koldo Eleizalde Lehiaketak* izenburua, generoa eta kategoria. Kartazal handian, berriaz, honako hauek sartu beharko da: lanaren ale bat. Lanean bertan ez da egilearen izenik jarriko; horren ordez goitizen bat jarriko da. Beste gutun-azal txiki batean, egilearen izen goitia izango duena, egilearen datuak jarriko dira.

LANEAN EZ DA EGILEAREN IZENIK JARRI BEHAR; HORREN ORDEZ, GOITIZEN BAT

"Lehengo erreperatorioko abestiak joko ditugu biran"

UNAI AZKARATE MUSIKARIA

'Azkaiter Pelox on the road again' bira hasi du

A.E. BERGARA

Unai Azkarate eta Aitor Aranburu zuzenekoetara itzuli dira. San Blas auzoan izango dira bihar, zapatua, eguerdian.

On the road again bira hasi duzu.

Bai. Seminarixoaren inaugurazioan jo genuen aurreko aste bukaeran. Oraingo honetan, aldiz, San Blas jaietan izango gara. Horrez gain, beste hainbat kontzertu ere izango ditugu hurrengo egunetan. Ostegun Gizen egunean, esaterako, Donostian joko dugu Juan Jose Erentxun kontrabaxuarekin batera –Mikel

Erentxunen lehengusua da. Martxoaren 4an Aramaion joko dugu eta martxoaren 17an, berriaz, Antzuolan.

Bikotea osatzen duzu Aitor Aranbururekin, baina zuzenekoetan beste musikari batzuen laguntza ere izango duzue.

Bai; esan bezala, Juan Jose Erentxunekin izango gara Donostian, eta Jon Prieto biola jotzailea izango dugu lagun Aramaioko Eki tabernan, Bergarako Bulen eta Antzuolako Aitz Garbin. Horrez gain, Shane Curley irlandarrak ere abestuko du gu-



Unai Azkarate. BERNAT ALBERDI

rekin Saint Patrick's eguneko kontzertuan, Antzuolan.

Abesti berriak joko dituzue bira honetan?

Ez, lehengo erreperatorioarekin gabiltza. Hala ere, kontzertua moldatu egiten dugu sonorita-

tearen arabera. Adibidez, kontrabaxuarekin jotzerakoan, oso indartsu geratzen da, grabe politak egiten ditu. Hari instrumentuak gehitzeak, aldiz, dotorezia ematen digu. Martxoan zehar eskainiko ditugun zuzenekoetan, abesti tradizional irlandarrak joko ditugu, eta baita gure abestiak ere.

Zer dela eta hasi duzue bira?

Barneko ezingonari erantzuna emateko.

Bazabiltzate abesti berrieekin?

Bai, baina ez dugu denborarik horiek grabatzeko. Udarara arte, zuzenekoak jotzen jarraitzea da gure asmoa; eta ea udarako jaialdirik lotzen dugun.

Nola joan zen Seminarixoaren inaugurazioa?

Ondo joan zen. Protokolozko ekitaldia izan zen, eta bi abesti lasai jo genituen.

Hazi nahi ez duen neskato baten istorioa aurkeztuko dute

Aparteko piano jotzailea den neska baten istorioa kontatuko dute *Izar* antzezlanean. Hurrei zuzendutako antzerkia izango da; domekan eskainiko dute, 18:00etan, Seminarixoan. 55 minutuko iraupena izango du lanak eta sarrerak 4 eurotan salduko dituzte.

Hainbat sari jaso dituen Marie De Jongh antzerki konpainiak aurkeztuko du antzezlan. Familia guztiari zuzendutako antzezlan izango da: maskaraz, keinuz eta musikaz lagundutako lana. Izarrek ez du hazi nahi, baina Bizitzak, ezusteko izaki bihurriak, bestelako patua ekarri dio, ustekabeko labirinto emozionala.



Udal ordezkariak martitzeneko osoko bilkuran. MAIDER ARREGI

Aurrekontuan, "pertsona oinarri"

Antzuolako 2018rako udal aurrekontuak gizarte zerbitzua indartzeko apustua egin du. Hala, Bideberri mankomunitatera 172. 700 euro pasatxo bideratuko dira. Helburua gizarte larrialdietarako bideratzen den diru laguntza indartzea da

Maider Arregi ANTZUOLA

EH Bilduren aldeko botoekin, 2018rako udal aurrekontua onartu dute. EAJk eta PSE-EEk aurkako botoa eman dute.

Hala, 2018rako iaz baino ia 16.000 euro gehiago edukiko ditu Antzuolako Udalak. Guztira: 2.701.714 euro.

Beñardo Kortabarria alkateak aurtengo inbertsio nagusia pertsonengan egingo dutela azaldu du, eta Gizarte Ongizate Sailera diru partida garrantzitsua bideratu dute. Bideberri mankomunitatera 172.700 euro bideratuko dituzte. "Iaz konturatu ginen gizarte larrialdietarako diru-laguntza ekarpena eskasa zela. Beharrak estaltzera ez ginen iristen; eta jendea hil bukaerara iritsi ezinda ibiltzea ez zela normala. Hala, Bideberri mankomunitatearekin adostu dugu inbertsio indartsua egitea aur-

ten", azaldu du alkateak. Adostu duten hainbat gairen artean, drogamenpekotasuna lantzeko programa dago, adibidez.

Askotariko inbertsioak

Egingo dituzten bestelako inbertsio nagusien artean landa eremuetako bideak konpontzea, hainbat auzotako asfaltatze lanak egitea eta hilerriko zorua txukuntzea jasotzen ditu aurrekontuak: "Herriko hainbat kaletako zoladura konponduko dugu eta baserri bideetarako ere diru partida indartsua bideratu dugu aurten: 30.000 euro".

Euskararen arloan, 79.180 euro bideratuko dira *Zergatik euskaraz-era*, mahai inguruak antolatzen eta gaztetxoei bideratutako Eskola proiektua lantzeko. Nobedadeen artean, dantza jardunaldiak eta trikiti eguna egingo dira -5.000 euro-.

Parte-hartzea

2018a aurrera begirako urtea izango dela dio alkateak; herriarrek nora joan nahi duten erabakitzeke eta oinarriak jartzeko urtea dela azaldu du: "Parte-hartze prozesuak jendearen beharra izango du eta gurako nieke herritarrei parte hartzea eskatu. Iritzia emateko zein elkarbanatzeko eta nolako Antzuola egin gura dugun denon artean erabakitzeke". Izan ere, parte-hartze prozesutik irtengo da, besteak beste, Narroa gaia-ekin zer egin daitekeen erabakia.

PARTE-HARTZE PROZESUAN NOLAKO ANTZUOLA GURA DUTEN ERABAKITZEKO DEI EGIN DU UDALAK

Gastuen 2018rako aurrekontua

Saila	Gastua
Idazkaritza, Kontu-hartzailetza	1.488.033,86
Kultura, Kirola, Hezkuntza	148.375
Gizarte Zerbitzuak	434.804,29
Hirigintza eta Zerbitzuak	498.550
Euskara, Liburutegia eta Gazteak	79.140,85
Alkatetza eta Gobernu Organoak	52.810
Guztira	2.701.714

ITURRIA: ANTZUOLAKO UDALA



Antzuolako hilerria. MAIDER ARREGI

Hilerriko zorua txukundu egingo dute

Antzuolako hilerrian dagoen zorua egokitu eta egonkortu egingo dute. Izan ere, bertan hazten diren belar txarrak kendu eta berriro ez hazteko zorua egokitzeke lanak egingo dituzte. Txukuntze lan horiek 13.000 euroko aurrekontua dute.

Pertsonak ardatz

Aipatu bezala, pertsonengan egin gura izan dutela inbertsioa dio Udal Gobernuak: "Zuhurtziaz jokatu gura izan dugu eta inbertsio txikiak egin ditugu. Izan ere, irailetik aurrera, parte-hartze prozesutik irteten denarekin, aurrera begirako plana edukiko dugu".

Oposizioko alderdiei erantzunez -irakur 31. orria-, alkateak haxe argitu gura izan du: "Egia da egin gabe daudela iazko bi inbertsio handi: ura baserrietara eramatearen eta komun publikoak jartzearena. Baina horrek ez du esan nahi ez direla egingo. 2017a ez da erraza izan. Industrialdearen proiektuarekin, denbora eta ahalegin asko geratu dira bidean. Zubia konpondu behar izatearena ere ez genuen espero; ezta futbol zelaiko aldagelak. Aurten egingo dira atzean

geratutako proiektuak". Bestetik, argitu du oposizioak aurrekontuen proposamena aztertzeke denbora izan duela eta ez dutela 2018rako ekarpenik egin: "Abendu hasieran proposamena egin genizuen. Aurrekontuak batzordeetan landu ditugu. Guk zuen proposamenak ere gura ditugu. Entzuteko prest gaude".

Alkateak Alderdi Sozialistari ere erantzun gura izan dio: "Udal Gobernuak ikusten duen nazioa, zazpi herrialdek osatzen dutena, sozialistek ez duzue ikusten; eta, beraz, politikoki urruntzen gaituen gaia da eta ez gara inora iritsiko eztabaidan. Bestetik, presoak etxetik gertu egongo balira, agian, bestelako babes bat izango lukete. Ezberdintasun horiek egonda ere, Antzuolako aurrekontuak eztabaidatu daitezkeela uste dugu", nabarmendu du alkateak.



"Konfiantza galdu egin dugu"

BASILIO ORMAZABAL EAJ-KO BOZERAMAILEA

"EAJk ahalegina egin zuen iaz. Aurrerapauso bat eman eta 2017ko aurrekontua adostu zuen EH Bildurekin. Diruz ez ziren partida oso handiak eta abstenitu egin ginen. Guretzat, borondate oneko erakustaldia izan zen, eta halaxe jakinarazi genion alkateari. Beste gai batzuetan ere, etorkizunean, akordioen bidea jorratu nahi genuen. Bada, zer gertatu da 2017an akordio horiekin? Alkatea ez da gugana hurbildu, ezta bere gobernu taldea aurrekontuan adostutako partidak argitzeko edo negoziatzeko. Inongo ahaleginik ez, akordioei bide emateko.

2018ko aurrekontu berria jasotzearekin ikusi dugu hainbat partida ez direla gauzatu. Adibidez, Narroala proiektuan aurrera egiteko aukerari buruzko azterlan teknikoa edo garbiketari eta ingurumen heziketari buruzko kanpaina didaktikoa egitea.

2017an egin ez, eta berriro agertu dira 2018ko aurrekontuan. Urtebete galduta. Proiektu horiek garatzeko aukera genuen, baina urtebete galdu dugu. Bestalde, baserrietara iturriko ura eramatea ere eskatu dugu, eta horren partida ere ez da gauzatu. 120.000 euroko partida berriro ere aurkeztu duzue 2018rako, baina urtebete galdu dugu, gure herriarentzat interes handiko proiektu bat egin gabe. Esan genezake beste partida batzuk ez dituzuela ukitu ere egin: adibidez, baserrietarako seinalizazioa edo barandak berritzea. Eta horrek, noski, gobernu taldearekiko konfiantza gutxi izatera garamatza. [...] Eta beste hainbat konturengatik, uste dugu posiziorik arduratsuen delako aurrekontua ez onartzea, ez gatzelako bat.

Jakin badakigu talde txikia garena Udal honetan, eta baita oposizioan gaudela ere. Baina beti jokatu dugu ardura maila handiarekin, beti erakutsi dugu jarrera eraikitzailea. Elkarrekin egon ginen plan estrategikoa garatzeko proposamenean, aurrekontuak onartu genituen iaz, eta aurren ordenantza fiskalak onetsi ditugu. Baina kale egin diguzuela sentitzen dugu. Antzuola hobetzeko lanean jarraituko dugu. Udal Gobernu taldeari gure elkarlana eskaintzen jarraituko dugu eskatzen duguten bakoitzean, baina badakigu gure zeregina oposizioan dagoela, oposizio arduratsua, baina, azken finean, gobernu taldearekiko konfiantza galdu duen oposizioa".



"Interes alderdikoia dute"

MIREN ARRATE GALLASTEGI PSE-EE-KO BOZERAMAILEA

"Aurka bozkatu dugu, batetik, ETAko kideen senideei 2.100 euroko diru laguntza bideratzen zaielako bisita gastuei aurre egiteko; bestetik, Udalbiltzara 4.000 euro bideratu dituztelako.

ETAko biktimen sentsibilitatea iraintzen duten mota hauetako diru partidekin bukatu beharra dago. Gainera, gizarte-ongizate atalean dago integratuta eta sail horretako kompetentziak oso murriztak dira. Diru laguntzak pertsona nagusiei, bazterkeria egoeran daudenei edo baliabide ekonomiko murriztuak dituzten familiengana bideratu behar dira. Diskriminazio positiboa jasaten dute ETAko presoek familiak laguntza horiekin. Integratzen arazoak duten familia antzuolarrek ere behar dute laguntza hori.

Bestalde, argi ikusten da EH Bilduren interes alderdikoia. Udalbiltzak 4.000 euro jasoko ditu; hor ikusten da euren dako gobernatzen dutela. Bien bitartean, askotariko kolore politikoa duen elkarerako –Eudei– 310 euro bideratuko ditu EH Bilduk.

Diru hori herrian inbertitzeko erabili beharrean, herritik kanpoko jardueretara bideratzen dute. Diru publikoa xahutzen dute Gipuzkoatik kanpoko proiektuak finantzatzeko eta aldarrikapen nazionalista egiteko. Ez du helburu ekonomikorik, ez sozialik".

Mendizaleak Kakoetan

Arrola taldeak antolatuta, talde giro ezin hobean Izarraitz aldera irteera egin zuen antzuolar talde batek. 17 lagunek 11,5 kilometroko ibilbidea egin zuten. Argazkia Kakoetan ateratakoa da. Herriartasuna eta Euskal Herria sakonago ezagutzeko aukera horiek aprobetxatzeko, herritarrek animatu gura dituzte Arrolak.



ARROLA MENDIZALE ELKARTEA

Musean txapeldunak

Mus txapelketak baditu irabazleak: Ion Pagaldai eta David Martin. Bigarren gelditu dira Joseba Azkarate eta Claudio Cabrera. Lau horiek eta hirugarren eta laugarren postuetan gelditu diren Markel Letek eta Gorka Etchezarretak eta Xabier Iparragirrek eta Jon Etchezarretak ordezkatzeko dute Antzuola Gipuzkoako finalean, Bergaran.



KAXETA

Emakume artzainen bizia

14 emakume bildu dira Pikunieta baserrian, bertako eguneroko lana gertutik ezagutzeko eta egiteko; hausnarketarako tarteak izan dute ostean. Emakumeen Etxalde mugimenduak bultzatu du egitasmoa. Emakume artzainaren egunerokoa ezagutu dute, eta, horretan geratu barik, lanak egiten lagundu diete baserrikoei.



ETXALDE

OHARRAK

Aratuste-dantzak

Sorgin dantzaren entsegua: otsailak 3 eta 10, Torresorua, 10:00. Plazako dantzen entsegua: otsailak 6, 20:15, eta otsailak 10, 11:00, Torresorua.

Santa eskean

Saharar haurrei laguntzeko santa eskea domekan, abesbatza eta txistulariekin. 12:00etan, Herriko Plazan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

**MUJKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Triki-poteoa Elgetako gaztetxean orain dela urte batzuk. ELGETAKO GAZTETXEA

Hartuta dago gaztetxea ixteko erabakia

Abenduan egindako batzarrean guraso batek bideari eusteko aukera egon zitekeela adierazi arren, azkenean, ez da gauzatu, eta espazioa ixteko erabakia hartu du Gazte Asanbladak. Gelditzen den ondare apurrarekin zer egin erabaki behar dute orain

Larraitx Zeberio ELGETA

Martxoan beteko dira 22 urte herriko gazte talde bat eraikinean sartu eta gaztetxea antolatzeko ekimenean hasi zela. Ibilbide oparoa izan du urte askoan Elgetako gaztetxeak, baina azkenaldiko martxa bestelakoa izan da. "Herriko gazte batzuk gerturatu dira eta prest daude ekin-tza puntualetan lan egiteko, baina eraikinak mantentze-lanak behar ditu eta kontu horri tira egiteko indarririk ez dago", adierazi du Gazte Asanbladak.

Abenduaren 15ean egin zuen Gazte Asanbladak gaztetxearen etorkizuna erabakitzeke batzarrak. "Nahiko argi genuen itxiera saihesteko Gazte Asanblada berri batek hartu behar zuela lekukoa, eta ez dago. Baina batzarrera etorritako pertsona batek planteatu zuen hurrengo belaunaldiak lekukoa hartu bitartean guraso talde bat prest egon zitekeela bideari eusteko. Gerora, proposamen horrek ez du aurrera egin eta uste dugu

egokiena gaztetxea ixtea dela", azaldu du Asanbladak.

Eraikina, egoera txarrean

Urte asko ditu gaztetxearen eraikinak eta erabilera faltaren ondorioz azkartu egin da zaharkitze prozesua. Mantentze-lanak behar ditu, eta luze jo gabe. "Itoginak ditu eraikinak eta argiteria instalazioa zaharra da. Sarri egiten du salto. Dagoen-tan espazioak berak ere ez du ekintza puntualetarako ematen", azaldu dute gazteek.

Itxiera prozesuko erabakiak

Urteetan ekintza entzutetsuak izan dira Elgetako gaztetxean. Sagardo Eguna, Asentzio Eguna, Umeen Eguna, gaztaina-erre

PILATUTA DAGOEN MATERIALAREKIN ZER EGIN ERABAKITZEKO BATZARRA DEITU DUTE OTSAILAREN 16RAKO

eguna eta Garagardo Jaia ere gaztetxeak antolatutako ekintzak izan dira. Herriko gazteek, bestalde, espazio bat izan dute autokudeaketan eta autofinantzazioan trebatzeko.

Urteetan pilatutako gauzeekin zer egin erabaki behar dute orain Gazte Asanbladako kideek. "Ez da sekulako ondarea, baina kontu korronte bat dago eta gaztetxean pilatzen joan diren hainbat gauza. Pertsona asko pasa dira gaztetxetik urte hauetan guztietan eta zer esana eduki dezakete. Uste dugu egokia dela erabaki hori inplikaturik egon direnei ere zabaltea".

Gazte Asanbladakoek hainbat aukera dituzte buruan; adibidez, material hori gobernu kanpoko erakunde bati ematea, interesatuta egon daitezkeen herritarren artean banatzea, Udalarari uztea herriak erabil dezan... Baina gehiago egon daitezkeela ere uste dute. Hala, batzar irekia deitu dute otsailaren 16rako, 18:30ean, gaztetxean.

Gueñes-Itsaso linearen kontrako errekurtso bateratuan, Elgeta

Udalak Arrankudiaga Zolloko, Igorreko, Lemoako eta Zaldibarko udalekin batera joko du epaitegietara

L.Z. ELGETA

Elgetako Udalak Gueñes-Itsaso goi tentsioko linearen aurkako errekurtso bateratua ipiniko du kaltetutako beste hainbat udalekin batera. Gaia martitzenean egindako udal osoko bilkurara eramane zuten Udal Gobernuak, eta EH Bilduren aldeko botoekin egin zuen proposamenak aurrera. Gu Geu Elgetako ordezkariak kontra agertu ziren.

Iraitx Lazkano alkateak azaldu zuen planteamendua dela abokatu eta ingurumen arloko bulego batzuekin kontsulta egitea, goi tentsioko lineak duen ingurumen baimenaren kontrako errekurtso bateratua jartzeko. Errekurtso bateratu batek indar handiagoa izan dezakeela eta ekonomikoki hobeto ateratzen dela esan zuen alkateak. "Bi abokatu talde proposatzen dituzte: ingurumen arloko lanak eta perituen txostenak egiteko Ambientalia 21 eta argudio juridikoak gauzatzeko Diez eta Maeztu abokatuen bulegoa. Dena den, beste batzuk proposa daitezke. 15.000 bat euro izango dira denon artean ordaintzeko", esan zuen. Elgetako EH Bilduk proiektuaren aurkakotasuna berretsi

du. Zentzugabekeriatzat jotzen dute arlo juridikotik, energetikotik zein ingurumen arlotik.

Gu Geu Elgetako ordezkariak ez daude proiektuaren aurka; bai, ordea, trazatuaren kontra. Horregatik eskatzen zuten errekurtsoaren edukia zein izango den argitzeko. "Errekurtsoa proiektu osoaren aurkakoa izango da?", galdetu zuen Gu Geu Elgetako Eduardo Zubiaurrek. "Alegazioak idazten direnean plenotik pasatzea gustatuko litzaidake eta orduan eztabaidatu ados gauden edo ez", gaineratu zuen Mikel Larreak.

Elgetako Udalak aurkeztuta dauzka hainbat alegazio Red Elctrica de Españari, eta ez ziren onartuak izan. Aukera berriak aztertzeke ahaleginean sakondu gura du EH Bilduk. "Konpromisoa hartu genuen ahal genituen bide juridikoak aztertuko genituela proiektu hori gauza ez zedin edo jarritako terminoetan gauza ez zedin", esan zuen alkateak.

Gu Geu Elgetako ordezkariak uste dute gastu bat gehiago dela eta zalantzak dituzte gauzak dauden moduan egonda ekimenak zerbait aldatzeko balioko duen.

Euskaraldiarekin lotutako ekintzak egingo ditugu

Elgetak emana du izena Euskaraldian eta urte erditik aurrera egin gura ditugu horrekin lotutako ekintzak

Goiena komunitatea

Goibeko Euskaltzaleen Topagunea

ELGETA

"Azken neurketen arabera euskararen ezagutza Elgetan %84,3 da eta erabilera, berriz, %61,8. Ezagutzaren eta erabileraren arteko desorekak kezkatuta eta herrian euskararen erabilera indartzeko asmoarekin, 2018an hainbat ekimen eramango ditugu aurrera.

Ekintzok Euskaraldia ekimenaren barruan kokatuko ditugu. Urtearen erdialdetik aurrera gura ditugu ekintzak egin, eta

dagoeneko lotu ditugu Kike Amonarrizaren hitzaldia, Xabi Paiaren hitzaldia, zirkua euskaraz, Euskaltzaleen Eguna eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra euskaraz bizitzeko Euskal Herrian herriz herri aurrera eramango den Euskaraldia. Ikasiko ditugu bi berba berri: *ahobizi* eta *belarriprest*.

Elgetako erakunde ezberdinekin —erretiratuen elkarteak, mendizaleen elkarteak, Udala, bestelako elkarteak...— egongo gara eta aberastuko da proposamen ireki hau".

Lema enpresaren lehiakortasuna, eredu

Pagatza industrialdean dagoen enpresak egindako ibilbidea nabarmendu dute Markel Olano ahaldun nagusiak eta MEK Group taldeko buruek. Ibilbide berriari ekingo diote orain Lema, eta 1.600 metro koadro handituko dute Elgetako planta

L.Z. ELGETA

Iaz bete zituen 75 urte Tornilleria Lema SA enpresak. Eibarren sortua, duela hemezortzi urte igo zuten jarduera Elgetara. Gaur egun, automoziorako piezak dira produkzioaren %98; frenoak eta direkzioak egiten dituzte, gehienbat. Tornilleria Lemako jabeek azaroaren 24an sinatu zuten MEK Group taldean sartzeko akordioa. Ehun bat langile ditu enpresak, horietako hamabi Mexikoko plantan.

Foru Aldundiko ordezkariak aspaldi zuten bisita egiteko asmoa, eta aurreko astean izan ziren Elgetan Markel Olano ahaldun nagusia, Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko diputatu Ainhoa Aizpuru eta Ogasun eta Finantza diputatu Jabier Larrañaga. "Enpresa lehiakor baten aurrean gaude", esan zuen Olanok. "Ehun lanpostutik gora mantendu dituzte eta krisi garaian enplegua sortzeko gauza izan dira. Hori



Lemako, Foru Aldundiko eta MEK Group-eko ordezkariak Elgetako plantan. L.Z.

GAUR EGUN, EHUN BAT LANGILE DITU ENPRESAK, HORIETAKO HAMABI MEXIKOKO PLANTAN

lehiakorra bazara soilik egin daiteke". Iritzi berekoa da MEK Group taldeko aholkulari delegatu Jabier Alcoba. "Enpresa honek etorkizun oso ona dauka, eta bizi dugun mundu honetan globalista izan beharra dago".

"Makina eta jende gehiago sartu nahi ditugu eta obrak egingo ditugu"

RAMON AZKARATE MEK LEMAKO INDUSTRIA ZUZENDARIA

Ondo eutsi diote krisialdian eta handitzen jarraitzeko proiektua dute. MEK Lema dira orain.

Emaizta onak ditu enpresak eta orain MEK Group-eko kide izatera pasatzen da.

Emaizta onak ditugu eta Foru Aldundiko arduradunendako garrantzitsua da bertako enpresak kanpora ez joatea eta erabakitze-guneak hemen mantentzea. MEK Group bertakoa da. Badauzka beste enpresa batzuk, baina Lema izango da tamainaz eta teknologikoki handiena. Ez genuen Markel Olanoren bisita



L.Z.

espero. Nola lan egiten dugun jakin nahi zuten aspaldi. Etorri dira, erakutsi diegu lantegia eta pozik joan dira. **Zergatik MEK Group-en sartzeko erabakia?**

Atzetik belaunaldi berririk ez zetorrela ikusita, jabeek pentsatu zuten enpresa merkatura ateratzea. Potentzial handiko enpresa da eta interesatu bat baino gehiago egon da, baina jabeen interesa zen talde industrial batek hartzea, jarduerak jarrai zezan. **Handitu egingo duzue Elgetako planta, ezta?**

Bai. Makina eta jende gehiago sartu nahi ditugu eta atzeko aldean bi solairuko planta egingo dugu. Kamioiendako irteera nahi genuen, baina bidegorria dagoela eta ezinezkoa izango dela dirudi. **Elgetako langileak dituzue?** Gero eta gehiago. Orain dela zazpi bat urte bakarra egongo zen. Gaur egun, saiatzen gara herriko jendea hartzen lanerako.

"Jendeak erantzuten duen bitartean, jarraitu egingo dugu"

PATXI MONTERO HERRIXA DANTZAN

Hileroko dantzaldiek zaleen bilgune bihurtu dute Elgeta

L.Z. ELGETA

2010ean jarri zuen martxan Herrixa Dantzan, eta, urteak joan, urteak etorri, dantzarako bilgune bihurtu da Elgeta. Domekan, esaterako, 90 bat lagun elkartu ziren kafe antzokian.

Kopuru horren bueltan ibiltzen zarete beti?

Hilero ez da berdin, baina azken boladan oso goian gaude. Egia esan, hasi ginenean ere oso goian ibiltzen ginen. Zortzi urteotan gorabeherak izan dira, baina hor mantendu gara, 50 eta 100 pertsona artean.

Espero zenuen ekimenak zortzi urteko ibilbidea egitea?


Ez nuen proiektiorik. Gogo handia nuen zerbait egiteko eta etxe parean Espaloia zabaldu zenean sortu ziren leku eta jendarte egokiak. Espaloia proiektuari bultzada ematea ere nahi nuen. Jarraitu egingo dugu, jendeak erantzuten duen bitartean.

Hasierako helburu berekin diharduzu, zortzi urte geroago?

Bai. Jendea elkartzea eta dantzan elkarrekin ondo pasatzea da oinarria. Uste dut Durangalderako, Debabarreneko eta Debagoieneko dantzazaleen bilgune bihurtu dela Elgeta, eta sortzen dira harremanak, egiten dugu herrigintza, eta, jakina, euskaraz. Ezkutuko beste balio batzuk ere badaude, noski.

Dantza irakaslea zara lanbidez. Nola prestatzen dituzu Elgetako Herrixa Dantzan saioak?

Badago oinarri bat, baina saiatzen naiz saioetan denetik egon



Patxi Montero. L.Z.

dadin, eta baita gauza berriak sartzen. Beti egoten da lotuan, soltean edo borobilean dantza egiteko aukera. Baita ere kontradantzak, ingurutxoak... Niretzat, musika oso garrantzitsua da. Europa mendebaldean hartzen badugu, esaterako, tradiziozko dantzari zein musikari dagokionez, badugu oinarri komun oso zabal bat, eta bertatik edaten dugu denok. Gero, zuzeneko musikarekin egindako saioek erakarpen berezia sortzen dute. Marka jarrita dugu urtean hiru egiteko. Elgetako Udalaren laguntza dugu saio horietarako. **Bestelako finantzaziorik baduzue?** Udalak ipintzen du lekua —argindarra, berogailua...—, eta ez dugu sarrerarik kobratzen. Bestelako laguntzarik ez dugu bilatu, eta ez dugu behar. **Gustura zabilta zu zeu ere?** Bestela ez nuke egingo.

OHARRAK

San Blas ospakizunak

Bihar, zapatua, meza esango dute Arantzetako San Blas ermitan, patroiaaren eguna ospatzeko, 12:00etan.

Piano ikasleen kontzertua Oñatin

Otsailaren 24an egingo dute Andoaingo piano jaialdia eta aurten Elgetako zortzi ikasle izango dira bertan. Aurretik, otsailaren 5ean, Debagoieneko ikasleen kontzertua egingo dute Oñatin.

Martxoaren 8a: batzar irekia

Emakumeen Nazioarteko Egunekeo ekintzak prestatzen hasteko batzar irekia deitu du Ongizate Sailak. Otsailaren 7rako deitu dute, 18:00etan, udaletxean.



Josema Azpeitia, Donostian egindako dastatze batean. GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Ardoen berezitasunak ikasiko dituzte ostalariek

Josema Azpeitia kazetari gastronomikoak gidatuko du dastatze saioa, Zumeltzegi dorrean, martitzenean, eta EAEko txakolinen eta ardoen ezaugarriak ikusten saiatuko dira; adibidez, Murgialdaikoa. Bailarako ostalariei zuzendutako saioa izango da

Oihana Elortza OÑATI

Dastatzea Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak eta Hazi Fundazioak bermatua duten Kalitatea proiektuaren barruan sartzen da eta Euskadiko elikagaien sustapena egitea du helburu. Oñatin, martitzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko txakolinen eta ardoak probatuko dituzte. "Nafarroan, esaterako, barneratuta dute bertako produktuak zerbitzatzearen ohitura. Hango jatetxe batean ardoa eskatuz gero, Nafarroako ardoa eskainiko dizute. EAEn ohitura hori ez dago hain barneratuta, eta horixe sustatu gura dugu Oñatin egingo dugun moduko ekitaldietan", dio dastatze saioa gidatuko duen Josema Azpeitia kazetari gastronomikoak.

Murgialdaikoa

Saioak bi zati izango ditu, teorikoa bata eta praktikoa bestea. "Teorikoarekin hasiko gara. 40 minutu inguru iraungo du eta han azaldutakoak probatuko

ditugu gero saio praktikoan. Ebro ibaiaren hegoaldeko eta iparraldeko ardoek, esaterako, oso ezaugarri ezberdinak dituzte eta horiek ezagutzen saiatuko gara, besteak beste. Urte eta inguru ezberdinetako ardoak izango ditugu horretarako, zuriak, gorriak zein beltzak. Egile ardoekin amaituko dugu dastatzea", azaldu du Azpeitiak. Saio praktikoan bertako elikagaiak izango dituzte jateko.

Txakolinen ere probatuko dituzte. Hiru guztira: Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako bana. Gipuzkoakoa, gainera, Oñatiko Murgialdai txakolina izango da. "Etxeak ditut eta horregatik aukeratu dut hori", adierazi du Azpeitiak.

SAIO TEORIKOA ETA PRAKTIKOA IZANGO DIRA, BERTAKO PRODUKTUEKIN LAGUNDUTA

Izena

Ekin hori Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak eta Eusko Jaur-laritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailaren menpe den Hazi Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako Fundazioak antolatu dute, Oñatiko Udalaren laguntzarekin. "Ez da bakarria izango. Joan den urtean ere egin genituen eta Oñatikoa-ren ondoren etorriko dira, adibidez, Azpeitikoa eta Tolosakoa", azaldu du Gipuzkoako Ostalaritza elkarteak Ane Ruizek.

Oñatiko Zumeltzegi dorrean egingo dute, martitzenean, otsailak 6, 10:00etatik 12:30era, eta Debagoieneko ostalariei dago zuzenduta. "Parte-hartzaileen plazak mugatuak izango dira, hamabost guztira, eta herriko bailarako ostalariak daude gonbidatuta ekitaldira", gehitu du Ruizek. Joan gura duenak, baina, izena eman behar du aurretik, eta, horretarako, telefono zenbaki honetara deitu behar du: 943 31 60 40.

Udalbatza: "Urrunketa politika desaktibatu egin behar da"

Oñatiko senide baten istripuaren harira egindako erakunde adierazpenean, giza katerako dei egin du

O.E. OÑATI

Auto istripua izan zuen joan den zapatuan Xabier Ugarteren emazteak, eta dispartzioa amaiera eskatuko duen giza katea antolatu dute Oñatiko preso senideek gaurko. Oñatiko Udalak bat egin du deialdi horrekin eta bertan parte hartzeko deia luzatu du.

Gai horren inguruan udalbatzak egindako erakunde adierazpenean barruan egin du deialdia Udalak. "Arrazoi politikoei erantzuten dien neurri honek ez dio soilik oinazea sortzen zigorra betetzen ari den presoari, zuzen eragiten die senide eta lagunei ere. Praktikan beharrezkoa ez den zigor bat da, senideek euren borondatearen aurka egin behar dituzten bidaiak dira, euren senide presoekin bisita eta komunikazio eskubiak gauzatzeko bakarrik egi-

nak", dio adierazpenak. Dispartzioak dirauen 29 urteotan egoerak sortu dituen kalte fisiko eta materialak ehunka direla aipatzen du, eta baita bisitetara joanda hil diren hamasei pertsonaren heriotza ere. Horieta-ko bat, Natividad Junco oñatiarra, 2007ko abenduaren 26an hil zena Teruelgo espetxera bidean izandako istripuan. "ETAren behin betiko etenaren ondoren, bere armagabetze barne, egoera hau luzatzeak ez du inolako zentzurik", dio adierazpenak, eta baita "senideen sufrimendua amaitu beharra" dagoela. Udalbatzak kezka agertu du Susana Uribeberriak izandako istripuagatik eta "urrunketa politaren desaktibazioa" eskatu du.

Giza katea gaur, egubakoitza, egingo dute, 19:30ean, Foruen plazatik abiatuta, Oñatiko preso senideek deituta.

EAJk eskatu du segurtasun neurriak "hobetu eta indartzea"

"Azken astetan jasandako lapurreten harira", Oñatin segurtasun neurriak hobetu eta indartzeko eskatu dio EAJk Udal Gobernuari. Horretarako, "Udal-tzaingo zerbitzua zabaltzeko egindako proposamena berretsi" du, eta "zaintza prebentiboa hobetzeko Ertzaintzarekin elkar-lana proposatu". EAJk prentsa oharrean esan duenez, "oñatia-

rrengandik jasotako eskaerak aintzat hartuta, herrian segurtasun neurri gehigarriak ezartzea" proposatu zuen 2018ko aurrekontuetarako. Neurri horien artean daude, esaterako, asteburuetan edo herriko festetan Udaltzaingo zerbitzua gaue-tara ere zabaltzea. Urnietan bezala, "Ertzaintzak gaueko zaintza zerbitzua eskaintzeko" akordio bat egitea ere proposatu dute. Herriko kaleak ondo argiztatzeak segurtasuna indartuko lukeela diote.

Ate irekiak izango dituzte astelehenean Txiki Txokon

Astelehenean, otsailak 5, Txiki Txokon ate irekien jardunaldia egingo dute 18:00etatik 20:00etara 0-1 eta 1-2 urte dutenentzat. Aurtengo ikasturtean hasteko izena eman dezakete; irailean hasteko maiatzetan eman behar dute. Eraikina, baina, edonorentzako zabalduko dute "eta inongo konpromiso barik etor daitezke ikustera", diote.

Santa Ageda kantuan ibiliko dira domekan 100 bat kinto

2000n jaiotako 100 bat gazte kantuan ibiliko dira herriko kaleetan zehar domekan. 08:00etan elkartuko dira Portu plazan eta Errekalde aldera joango dira. Handik behera, Euskadi etorbidea pasa eta SanLorentzo eta Olakua auzoetan abestu ostean, erdigunera bueltatuko dira. Hurrengo astean, berriz, auzoetara joango dira.

Lapikoko txokolate beroa eskura egunero

"Ohituta gaudenarekin konparatuz, kakao gehiago eta azukre gutxiago du; oso zaporea", azaldu du Anton Azpiatzuk. Maiatzera bitartean eskainiko dute, Txokolateixian, euro baten truke. Datorren urtean, piperrekin egindako txokolatea izango dute

Oihana Elortza OÑATI

Ohiko txokolate tabletez, trufez eta bonboiez gain, txokolate beroa ere badute Oñatiko Txokolateixian. "Lapikoan egindakoa da, lehen egiten zen moduan, eta bero-beroa zerbitzatzen dugu hemen. Sartu eta eskatu baino ez da egin behar", dio Txokolateixiako arduradun Anton Azpiatzuk.

Basoan

Lapikoan egin eta bero mantentzen dute txokolatea, horretarako propio jarri duten tresna baten. "Askotan, probatzeko ematen diegu sartzen direnei, eta edalontzia ez botatzeko eskatzen diegu. Gehienei gustatu egiten zaie probatutakoa, eta orduan bai, orduan, goraino betetzen diegu edalontzia txokolatez, eta euro bat kobratu", dio Azpiatzuk.

Haren esanetan, txokolatea gustuko dutenek apreziatu egin dute egindakoa: "Egia da normalean hartzen duguna dultzeagoa dela. Honek kakao gehiago du eta azukre gutxiago ditu, baina zaporea sekulakoa da. Orain arte probatu dutenak gustura gelditu dira. Batzuei gehiago gustatu zaie, bai, baina txarra dagoenik ez du inork esan".

Bisitariak

Txokolateixiara doan edonork du aukera egindako txokolatea eskatzeko. Egunero egiten dute eta maiatzera arte dute ideia horrekin jarraitzeko asmoa. "Eta euren iritzia jakin gurako nuke. Nik ematen ditut txokolatearen gaineko azalpenak eta bere historia kontatzeko gertu egoten naiz, baina gustatzen zait hona datorren jendeak pentsatzen duena jakitea, entzutea. Azken finean, txokolatea bizia da, eta denon kolaborazioarekin atera diezaiokegu probetxua. Oso garrantzitsua da bisitariekin sortzen den hartu-eman hori",



Anton Azpiatzuk, Oihana Diaz eta Ane Astigarraga. M.G.

EGUNERO EGITEN DUTE TXOKOLATEA ETA BERO MANTENTZEKO TRESNA JARRI DUTE

azaldu du txokolatean aditua den Azpiatzuk.

Pozik dago oñatiarra Txokolateixiako orain arte egin duen ibilbidearekin. "Joan den urtean ere jende asko etorri zen eta ondo erantzun zuen jendeak. Ez nuen espero, egia esan, jendeak horrenbeste kontu esatea txokolateari buruz, euren esperientziei, gustuei, ohiturei... buruz, eta horrek asko pozten nau", adierazi du Anton Azpiatzuk.

Izozkia

Burua beti martxan izaten duen horietakoa da Azpiatzuk eta egindako txokolatea zerbitzatzeari batera ideia berriak ditu buruan. Horietako bat da, esaterako, izozkia eskaintzea: "Txokolate beroa maiatzera bitartean izango dugu hemen, eta gero, izozkia izatea gurako nuke, baina ez dut hau bezain erraza

ikusten. Ez dut gura marka komertzial handiekin egin, baizik eta hemengo batekin, Oñatikoa, Euskal Herrikoa, eta lehengo errezetekin edo lehen egiten zuten modura egin. Bertako esnearekin lan egiten duena... Hori lortuta ere, izozkia hotz zelan mantendu eta nola eskaini pentsatu beharko nuke. Ideia bat da; agian, ez da aurrera aterako, baina tira...".

Piperrarekin

Hori baino egingarriagoa ikusten du piperrekin egindako txokolatea salgai jartzea. Datorren urterako egin gura du hori Anton Azpiatzuk: "Gatzarekin ere egiten dugu eta piperrarekin probatu gura dut orain. Tolosako Rafael Gorrotxategi gozogileak egindako piper-opilak izan ditugu orain hemen salgai eta dena jan arte ez zitzaion piper gusturik hartzen. Duela egun batzuk, esaterako, Arabatik etorritako taldetxo bat izan zen hemen eta ez zuten sinistu piperopilak zirenik bukaerara arte. Orduan hartu zuten piperraren zaporea. Horrelakoa izango litzateke piperrekin egindako txokolatea ere".



NIRE USTEZ

JOSE LUIS MADINAGOITIA

Langileen partaidetza enpresan

Langileen parte-hartzeak enpresako arlo desberdinetan beti arduratu nau eta egun gehiago, *4.0 Industri iraultzan* sartzen ari garelako eta honek enpresaren mundua erabat eraldatuko duelako. Aurrerantzean, enpresak gero eta gehiago egongo dira beren langileen ahalmen sortzailearen menpe, eta ahalmen hori ahal den gehienean aprobetxatzera eramanez behar gaitu. Nola?

Lehenengo, langileak pertsona moduan integratzea enpresan, proiektu osoaren parte izateko aukera emanez. Hartarako, informazio gardena eta pertsonarekiko konfiantza osoa beharrezkoak dira. Langileak kudeaketan parte hartu behar badu, erabakitzen nola banatu behar diren enpresako etekinak, kapitala eta pertsonan ekarpen intelektual edo fisikoan artean? Zenbat zuzendu behar da ikerketara? Edo etorkizuna bermatzen duten inbertsioetara? Zergatik eman ez langileari enpresako kapital sozialean parte hartzeko aukera?

Emaitzetan eta kapital sozialean parte hartzea begiesten duten formula sozio-juridikoak badaude; hor dago kooperatiba. Baina zergatik ez planteatu sozietate anonimoetan ere?



AMAIA TXINTXURRETA

Umeen aukitxoak autoetan

Haurdun dauden emakumeei osasun zentroan eskaintzen zaien saioetan, udaltzainaren bisita jasotzen dute tarteka. Errepidean modu seguruan ibiltzeko gomendioak ematen dizkie Eñaut Unamuno udaltzainak, eta autoetan umeen aukitxoak nola jarri azaltzen die guraso izango diren herritarrei.

Ministerioaren gutuna itzultzeko eskatu diete pentsiodunei

Erretiratuen pentsioak %0,25eko igoera izango du aurtengo, eta, neurri "lotsagarria" dela iritzita, horren kontrako protesta ekitaldia abiarazi dute herrian, Oñatiko Pentsiodunen Elkarteak deituta. "Ministerioak bidalitako gutunak berriz bueltan Madrilera bidaltzea da asmoa. Horregatik, herriko pentsiodunei esan gura diegu jasotzen

duten gutuna herrian jarriko ditugun leku konkretuetara eramateko, gero Madrilera bidaltzeko bueltan", adierazi du elkartearen kide Jose Antonio Amundarainek. Eskutitzazalean *rehusado* hitza idatzi eta kutxatzen sartzea. Kutxa horiek egongo dira jarrita: Super BMn, Eskolatxo eta Irizar okindegi-tan, San Migel kooperatiban, Pake Lekun, Zubikoan eta Igar-tua farmazian.

Astelehenean kale agerraldia egingo dute, plazan, 12:00etan.

"Epaileak behar ziren, eta lagundu egin genuen"

ANDONI GALDOS IGERIKETA EPAILEA

Gipuzkoako Federazioko igeriketa epaileen artean bada oñatiarrik: Andoni Galdos, tartean. Hala, igeriketaren pasioa elikatzen dihardu oraindik ere, beste era batera

Iker Oñate OÑATI

Kirolariak ez ezik, epaileek ere badihardute kirol hitzorduetan. Besteak beste, haiena da lehiaketa egoki doala berrestearen ardura. Hain zuzen, horretan dihardu Andoni Galdosek, igeriketa epaile oñatiarrak. Gipuzkoako Federazioaren eskaerari erantzunez, epaile bilakatzea erabaki zuen. Bere zereginaz jardun du Galdosek.

Igeriketa epaile zara. Ez da ohiko jarduna... Nolatan hartu zenuen erabakia?

Gipuzkoako Federaziotik epaile eskaera iritsi zen lurraldeko igeriketa taldeetara. Eta laguntzeko prest azaldu ginen zenbait oñatiar; interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen, eta, lagungarri bada, askoz hobe. Hala, Donostiara joan ginen azterketa egitera. Eta hori gaindituta bilakatu ginen igeriketa epaile. Duela hamalau urte izan zen hori.

Eta zein da epaile baten jarduna?

Hiru epailek jarduten dugu igeriketa lehiaketetan; guztion artean egiten ditugu epaile lanak. Bada, lehiaketaren osoaren ardura du horietako batek, hori koordinatzearena, nolabait; serieen kontrola eroaten du, hainbaten artean. Bigarrenak, ostera, irteerak markatzen ditu –berak esandakoan irten behar dute igerilariak–. Eta, azkenik, parte hartzaileek estiloa egoki egiten dihardutela baieztatu beharra du hirugarren epaileak.

Denborak ere zehaztu behar dira...

Hala da. Akta moduko bat dugu horretarako. Bertan, probaren igeriketa estiloa eta distantzia adierazteaz aparte, bakoitzaren denbora jaso behar izaten dugu. Ostean, beste epaile batek du –laugarrenak– geuk jasotako hori digitalizatzearen ardura. **Txapelketaren arabera da epaile kopurua?**

Bai. Lehiaketa bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta garran-



Andoni Galdos, Zubikoako igerilekuan, epaileen akta eskuan duela. AMAIA TXINTXURRETA

"HASIBERRIEKIN MALGUAGO JARDUN OHI DU EPAILEAK, IKASTEN ARI DIRELA AHAZTU BARIK"

tziaren arabera aldatzen doa epaile kopurua; esan beharrik ez, igerilari profesionalz dihardugunean. Bertan epaile askok dihardute igerilekuaren alde batetik bestera; denborak kontrolatzen dituzte, esate baterako. Hemen, ostera, bestelakoa da panorama: denborak taldeko ordezkariak hartzen dituzte, horren ostean epaileoi jakinarazteko.

Halakoetan, hasiberriekin malguago jarduten da sarri. Bertara gertatzen da igeriketan?

Baietz esan dezakegu. Epaileok ez dihardugu maila berean adin guztietako igerilariekin; ezin dugu ahaztu hasiberri horiek ikasten dabiltzala. Besteak beste, esan dezakegu ez ditugula deskalifikatzen; gaizki egitekoan, entrenatzaileei pasatzen diegu abisua, ikasten joan daitezkeen.

Eta zeintzuk izan daitezke deskalifikatzeko arrazoiak?

Hainbat izan daitezke hori eragin dezaketen arrazoiak. Hainbaten artean, behar baino lehenago irtetea, luze tartean buelta gaizki ematea eta proba modu okerrean bukatzea –bi eskuekin beharrean, bakarrekin, adibidez–. Horiek lirateke deskalifikazioa eragiten duten arrazoi nagusiak. Dena den, tarteka, bada estiloa gaizki egiteagatik lehiatik kanpo gelditzen denik ere.

Bestetik, Gipuzkoako epaileak koordinatzea ez da lan samurra izango...

Gipuzkoako Federazioak pertsona bat du horretarako, bere ardura delarik lehiaketetarako epaileak topatzea. Hala, lurraldeko epaileekin jartzen da harremanetan, libre gauden jakiteko. Bada, hori epaileren baiezkotza jasota, lotua du hitzordua. **Baiezkoa emanda, hitzordua heltzen da. Urduri jartzen da epailea?**

Onartu beharra duri honetan hasi nintzenean urduri jartzen nintzela. Finean, arauak ez dituzu behar bezala ezagutzen, eta zalantzak sortzen dira. Baina urteek aurrera egin ahala, gora doa esperientzia; eta, behera, urduritasuna.

Hainbat egokitzapen egingo dituzte Azkoagainen

Aldaketa egin behar izan dituzte hasierako proiektuan, eta atzeratu egin dute lanen hasiera eguna

I.O. OÑATI

Azkoagainen futbol zelaiko segurtasuna hobetzeko bidean, hainbat egokitzapen egitea adostu zuen Udalak, Kirol Batzordeak proposamena egin ostean. Hain zuzen, taberna ondoko harmailan –atearen atzean– egingo dituzte egokitzapenok: 18 metroko sarea eta 33 metro luzeko baranda jarriko dute. Jada hasia behar zuten egokitzapen lanek, baina "hainbat arazo tarteko", atzeratu egin dute hasiera eguna: "Zenbait aldaketa egin beharra zuen hasierako proiektuak.

Bada, horiek zehazten dihardugu". Hamabost egunen buruan egingo dituzte egokitzapen lan horiek.

Partidua, domekan

Futbol taldekoek, berriz, gelditu barik dihardute. Hain zuzen, domekan dute hurrengo partidua, Azkoagainen bertan. 16:30ean hasiko da Zestoaren kontrako norgehiagoka; hamahirugarren postuan dira zestoarrak –hamasei talde daude–. Beraz, lehen postua sendotzeko aukera izango dute oñatiarrek.

Azken partiduetan bezala segi gura dute saskibaloit taldekoek

Gora bidean jarraitu gura dute Aloña Mendi saskibaloit taldeko mutilek. Eta asteburuan dute hurrengo hitzordua, Zubikoa kiroldegian. 18:00etan hasiko da Bosteko Irauli taldearen kontra. Sailkapenean parean dira bi taldeak; zazpigarren postuan da Aloña Mendi eta atzetik segika du Bosteko Irauli –zortzigarren postuan da–, puntu bat gutxia-

gorekin. Horrenbestez, oñatiarrek ihes egiten saiatzeko aukera izango dute zapatuan.

Esan bezala, sailkapenean goraka doaz Aloña Mendikoak, txapelketaren hasierako bolada irauliz. Zehatz esanda, azken postuetatik irten ezinik hasi zuten Gipuzkoako txapelketa. "Jaitsi ginenez, maila berria da guretzat, ez oso ezaguna. Egoitu beharra izan dugu, beraz", azaldu du Aitor Ugartek, taldeko entrenatzaileak. Bada, ondo bidean doaz.



MIREIA BIKUÑA

Gura baina ezin, igoera fasean

Athlon-Aloña Mendiko neskek Euskal Ligarako igoera fasea izan zuten aurreko asteburuan, Mundakako kiroldegian. Hiru partidu jokatu zituzten bi egunetan –zapatuan eta domekan–, eta ezin izan zituzten mailaz igotzeko emaitzak erdietsi; hirurak galdu zituzten. Dena den, nekez ahaztuko dute Mundakako igoera fasearen esperientzia.



Aitor Biain –eskuman–, Bilboko Orkestra Sinfonikoko kideak agurtzen. AMAIA GURIDI

"Erronka handia izan da, eta esperientzia bikaina"

Aitor Biain oñatiarrak Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin zazpi kontzertu didaktiko zuzentzeko aukera izan du asteburuan; adierazi du oso esperientzia aberasgarria izan dela: "Plazera izan da maila honetako musikariekin oholta partekatzea"

Eneko Azurmendi OÑATI

Musikenen orkestra zuzendaritza ikasten ari da Biain. Azaroan Musikeneko zuzendaritzak aukeratu zuen Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zazpi kontzertu didaktiko zuzentzeko. Oso esperientzia polita eta berezia izan dela azpimarratu du oñatiarrak. "Euskal Herri mailan bi orkestra sinfoniko profesional daude, Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, eta horietako batean, hain maila handiko musikariekin lan egitea plazera izan da. Gainera, eurekin lan egitea oso erraza izan da. Beraz, esperientzia ikaragarria izan da niretzako, oso pozik nago", onartu du.

Maila horretako kontzertu bat zuzendu duen lehen aldia izan da Biainentzat. "Hasieran, errespetu handia eman zidan 65 musikari profesional nire aurrean ikusteak, izugarrizko maila duten musikariak direlako. Niretzako erronka handia zen. Baina oso ondo onartu naute,

asko lagundu didate, eta uste dut guztion artean kontzertu politik eskaini ditugula", dio.

Kontzertu hauek zuzendu aurretiko lana bere kabuz egin duela azaldu du zuzendariak. "Aukeratua izan nintzenean, prestatu beharreko programa bat eman zidaten. Harpa eta orkestrarako erreperitorio bat, harpa bakarlari moduan agertzen zena. Nik erreperitorio hori ikasi dut nire kontura, eta azken egun hauetan orkestrarekin landu dut ikasitakoa. Aste gogorra izan da. Bi egun eurekin entseatzen eta lau egun kontzertuak eskaintzen, guztira zazpi kontzertu". Oso pozik dagoela nabarmendu du Biainek, eta onartu mota horretako kontzer-

tu bat erreperikatzea gustatuko litzaiokeela.

'Harparen bila'

Zazpi kontzertuz osatutako ziko horren izena *Harparen bila* izan da, harpa bera instrumentu moduan ezagutzea helburu zela. "Aurkezleak dinamizatzaila lanak egin ditu harpa zer den azaltzeko, denboran zehar egindako bidaia moduko bat egiten genuen, eta historian zehar esanguratsuenak izan diren harpa obrak jo ditugu –Wagnerrenak, Tchaikovskyrenak, Mozartenak...–. Azken finean, egin duguna da modu didaktikoan familiei azaltzea harpa zer den, nola funtzionatzen duen".

Uztailen, Hungariara

Beste proiektu garrantzitsu bat ere badu esku artean Biainek. Izan ere, Ganbara abesbatzak Debrecen hirian (Hungaria) egingo den Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartuko du uztailen.

"HAIN MAILA HANDIKO MUSIKARIEKIN LAN EGITEA PLAZERA IZAN DA NIRETZAT"

Txinparta Gazte Sariketako bigarren finalaurrekoa bihar

Pasa den astean jokatu zen lehenengo saioa eta Urko Arregi eta Gartxot Ramirez bikotea nagusitu zen

E.A. OÑATI

Txinparta Bertso Eskolak antolatutako txapelketa pasa den astean abiatu zen, Arrano tabernan jokaturako saioan. "Uste baino jende gehiago batu zen, eta giro goxoa sortu zen, abes- teko giro erosoa", azaldu du Gontzal Belategik, antolatzaileetako batek eta parte-hartzaile ere badenak.

Lehenengo saio hartan lau bikote aritu ziren lehian: Urko Arregi –oñatiarra– eta Gartxo Ramirez; Aitor Tatieggi –oñatiarra– eta Bittor Altube; Aritz Irigoiien –oñatiarra– eta Haizea Arana; eta Gontzal Belategi –oñatiarra– eta Asier Ibarguren.

Bikoteko kide bakoitzak antzeko ariketak egin behar izan zituen neurri ezberdineko bertsoak kantatuz, eta bukaeran, Arregik eta Ramirezek osatutako bikotea izan zen onena, 354,05

puntu eskuratuta. Hala, zuzenean finalerako sailkatu ziren.

Bigarren Tatieggi eta Altube sailkatu ziren, 352,45 punturekin. Haiek, berriz, biharko saioan gertatzen denaren zain geratu beharko dute finalean ariko diren edo ez jakiteko. Izan ere, bi saioetako irabazleez gain, puntuazio altuena lortu duen bigarren sailkatuak lortuko du finalerako txartela –hiru bikotek jokatu dute finala–.

Biharko saioari dagokionez, Pako tabernan jokatu da, 17:00etan, eta beste lau bikote ariko dira: Bittor Zubiagirre –oñatiarra– eta Andoni Mujika, Xabi Agirre –oñatiarra– eta Ane Peñagarikano, Garazi Navarro eta Oihana Arana eta Ane Beloki eta Iraitz Sarasola.

Finala, berriz, otsailaren 16an izango da, 19:00etan, Antixena gaztetxean.

Petti, Pako tabernan etzi

Petti musikari beratarrak kontzertua eskainiko du Pako tabernan domekan, 19:30ean.

Leku ezaguna du Pettik, aurrez ere eskaini izan du-eta kontzertua Pakon. Urte berriarekin, asmo berriak ontzen ari da beratarra. Haiek argitara atera artean, kontzertu zainduak eta beroak ari da eskaintzen. Horietako bat izango da domekakoa.



IMANOL SORIANO

Pelaxen eta Joseba B. Lenoirren kontzertua gaur gaztetxean

22:00etan izango da emanaldia eta sarrera bost euro da –langabeek eta ikasleek hiru euro–. Unai Pelayo da Pelax. 2017an beste hainbat musikarirekin batera argitaratu du azken lana: *Talkak egiten du didaktika*. Joseba B. Lenoir, berriz, proiektu berri batekin dabil, Miren Narbaiza, Ilargi Agirre eta Nagore Etxabe musikariekin.

'Ergela' emanaldirako sarrerak salgai daude, 10 eurotan

Otsailaren 9an –egubakoitza– *Ergela* antzezlanaren egongo da ikusgai Santa Ana antzokian eta sarrerak salgai daude dagoeneko *Bibe.me* webgunean.

Sara Cozar eta Joseba Apaolaza aktoreak dira Txalo antzerki taldeak eskaintzen duen emanaldiko protagonistak. Psikologia, tranpa eta iruzurra dira antzezlanaren ardatzak.



Jon Jaunarena, Iker Irribarria, Danel Elezkano eta Beñat Rezusta eguaztenean egindako pilota aukeraketan. ASPEPELOTA.EUS

Bizirik jarraitzeko garaipenaren bila

Beñat Rezustak etxeko zaleen aurrean jokatu du gaur, garaipen gosez etorriko den iazko bikotekidearen aurka. Merino II.a lesionatu ostean, Irribarriak Jon Jaunarena izango du atzealdea babesten, eta, galduz gero, agur esango diote Binakako Txapelketari

Xabi Gorostidi BERGARA

Binakako Txapelketaren 11. jardunaldiak geldialdia egingo du gaur, 22:00etan, Bergarako Udal Pilotalekuan. Partidu berezia izango da, besteak beste, iazko Txapelketako bikote garailea elkarren aurka arituko delako.

Partidu nagusian, Danel Elezkano eta Beñat Rezustak Iker Irribarriaren eta Jon Jaunarenaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Rezustak zaleen babesa izango du alde, baina aurkariak horri aurre egiten ahalginduko dira, garaipena behar dutelako.

Lehen partidua, ordea, Dario Irusta eta Arretxe II-Erasun bikoteek jokatu dute.

Egoera antagonikoak

Egoera zeharo desberdinean helduko dira bi bikoteak Bergarako pilotalekura. Elezkano eta Rezusta sailkapeneko lehen postuan daude, hamar partidutatik zortzi irabazita. Azken jardunaldian, maila ona ematen

ari den Altuna II.a-Martija bikotea erraz gainditu zuten (22-12), eta konfiantzaz beterik daude.

Bestelakoa da Irribarriaren eta Merinoren egoera: sailkapeneko azken bigarren postuan daude, lau garaipenekin. Azken jardunaldian, 22-19 galdu zuten Labriten, Ezkurdia eta Zabaleteren aurka, baina azken hiru partiduetatik bi irabazi dituzte, eta bolada onari eusteko esperantzarekin kantxaratuko dira gaur.

"Duela hilabete bat, sinatuko genuen gaur gauden egoeran heltzea. Geratzen zaizkigun partidua irabazi beharra daukagu, eta ea ostiralean lan hori egiten hasten garen", esan du Irribarriak partiduen atarian.

REZUSTA-ELEZKANO SAILKAPEN BURU DIRA ETA IRRIBARRIA ETA MERINO AZKEN BIGARREN DAUDE

Tamalez, gaurko lehiaren ez badira 22. kartoira heltzen, automatikoki txapelketatik kanpo geratuko dira.

Nobedadea atzealdean

Aramako aurrelariak Jon Jaunarena izango du atzeko koadroetan zaindari. David Merinok min hartu du eskuin eskuko kailu baten, eta atzelari errioxarrak utzitako hutsunea Leitzako pilotariak beteko du. Izaitez aurrelaria da, baina azkenaldian atzealdean jokatzen dihardu promozio mailan, eta bertan erakutsitako maila onari esker lehen mailako partidua bat jokatu du, aspaldiko partez. Aukera ilusioz hartzen duela esan du, eta daukan onena ematen saiatuko da.

Bost antzerako eta ezberdin bat

Asteazkenean egin zuten pilota aukeraketa Bergaran. Sei pilotak oso antzerakoan izan ziren, Irribarriak aukeratutako pilota azkar bat izan ezik.



2015eko martxoaren 24an egin zuten lagunartearen aurkezpena. X.U.

Reala animatzen jarraituko du Oñatiko lagunarteak

Iñigo Martinez ondarrutarra jokalaria kutun zuten Txantxiku Txuriurdinak lagunartean taldearen sorreratik

Oihana Elortza OÑATI

Jokalaria kutun zuten Iñigo Martinez ondarrutarra Oñatiko lagunartean. Athletic taldera doala jakinda, Txantxiku Txuriurdinak lagunarteko zuzendaritzako kideek bilera egin zuten martitzen gauean, 22:00etan. "Aita pontekoa galdu dugu, baina guk Reala animatzen jarraituko dugu aurrerantzean ere, orain arte bezala", adierazi zuten hurrengo goizean.

Duela ia hiru urte sortu zen Oñatiko Txantxiku Txuriurdinak lagunartea, 2015eko martxoaren 24an, eta hasieratik hartu zuten jokalaria kutun Iñigo Martinez bizkaitarra. Golak sartu dituen aldiro xanpainaz eta Oñatin egindako gaztaz eta txakolinaz osatutako otarra eman izan diote. Hain zuzen, Zubietara edo Anoetara joan izan dira lagunarteko kideak otarra jokalariori eskura ematera.

2015a ezker

Duela bost urte, 2013an, hasi ziren herriko realzaleak lagunarteko bat egiteko ideia martxan jartzen. Anoetara joateko hiruzpalau autobus betetzen zirela ikusita, deialdia egin zuten lagunartea sortzeko. Handik bi urtera egin zuten aurkezpena. Sorreratik hartu zuten Iñigo Martinez atzelari ondarrutarra lagun arteko jokalaria kutun. "Kasualitate hutsa izan da. Ondarroako lagun batzuek esan ziguten ez zuela lagunarterik, eta proposamena egin genion jokalariori", esan zuten kideek orduan. Lagunartearen aurkezpen ofiziala egin zutenean, Oñatin izan zen jokalaria, David Zurutuzarekin batera.

Oñati, Ondarroa, Gasteiz eta Valentziako 400 bazkide ingururekin sortu zuten lagunartea. Kale Zaharreko Izarraitz taberna da egoitza.

Ford Mugarri eta Fagor Industrial, postuei eustera

Etxean jokatu dute asteburuan bai Arrasateko Ford Mugarri eta baita Oñatiko Fagor Industrial eskubaloit taldeek. Hirugarren eta laugarren postuetan daude sailkapen nagusian, hurrenez hurren, eta postu horiei eusten saiatuko dira talde biak.

Arrasateko taldeak hamaikagarren postuan dagoen Bidasoa taldea izango du aurrez aurre

Iturripen, zapatuan, 17:00etan. Azken partiduan, Hondarribiaren kontra, 22 gol sartu zituzten Patxi Gartziaren mutilek, eta beste horrenbeste aurkariek. Oñatiko Aitor Aranbururen taldeak, berri, Corazonistas taldeak baino hiru gol gehiago sartu zituen azken jardunaldian. Asteburu honetan, zapatuan jokatu dute, 18:00etan, Zubikoan, Deustu Loyola Unibertsitate taldearen kontra.

Bi taldeen arteko derbia apirilaren 7an izango da, Oñatin.



Istar Dapena eta Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilariak Anoetan. IMANOL BELOKI

Euskadiko Txapelketara, askotariko helburuekin

ATLETISMOA Pista estaliko Euskadiko Txapelketa absolutua jokatu da asteburu honetan Anoetan; Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena ariko dira pertika-jauzian, Mikel Agirre luzera-jauzian eta Ibai Fernandez 60 metroko proban

Eneko Azurmendi ARRASATE
Lau arrasatear ariko dira aste-buru honetan pista estaliko Euskadiko Txapelketa absolutuan parte hartzen, hiru kirol ezberdinetan.

Batetik, pertika-jauzian, Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena arituko dira. Ruiz de Azuak pasa den asteburuan Anoetan bertan jokatuako partaidetza libreko proban 4,20 metroko marka egin zuen, denboraldiko markarik onena ezarriz –Espainia mailan–. "Ez nuen espero marka horretara heltzerik. Sorpresa hartu nuen. Izan ere, ez nago nire momenturik onenean. Hala ere, egia da konfiantza eman zidala horrek, eta marka hobetzen saiatuko gara asteburu honetan. Zergatik ez?", adierazi du. Pista estalian 4,21 metroko marka pertsonala du Ruiz de Azuak.

Istar Dapenak 5,20 metroko marka du aurten, denboraldiko hirugarren onena –Espainia mailan–. Pasa den astean, baina, 5 metrotik ez zen pasa Valentzian,

partaidetza libreko proban. "Hankan bihurritu bat neukan eta ez nuen nire onena ematerik izan. Baina dagoeneko sendatuta nago, eta 5,20 metroko marka hobetzeko esperantza dut asteburu honetan".

Agirre, luzera-jauzian
Mikel Agirrek luzera-jauzian hartuko du parte, gazte mailan. 6,38 metroko marka du, eta Espainiako Txapelketetara joateko marka minimoa lortzea izango da haren helburua –6,40 metro da marka minimo hori–. "Marka ona egitea gustatuko litzaidake. Fisikoki ondo nago, gorputza arin sentitzen dut. Beraz, ea lortzen dudan marka hori gainditzea", azaldu du jauzilariak.

LAU ARRASATEAR ARIKO DIRA ASTEBURU HONETAN EUSKADIKO TXAPELKETAN

Fernando Zufiria Arrasate atletismo taldeko kideak ere uste du momentu onean dagoela, eta lortuko duela marka hori gainditzea.

Fernandez, 60 metroko proban
Ibai Fernandez junior mailako 60 metroko proban ariko da. 6.94 segundoko marka du aurten, denboraldiko bigarren markarik onena –Espainia mailan–. "Momentu onean nago, eta esperantza daukat marka hori hobetuko dudala asteburuan", aitortu du korrikalariak.

Axpe, Zaragozan
Maialen Axperi dagokionez, Zaragozako trofeoan hartuko du parte asteburu honetan, pertika-jauzian. "Pista ona da Zaragozako, eta Euskadiko Txapelketarekin batera den arren, erabaki dut han parte hartzea", azaldu du. Urteko markarik onena 4 metrotan dauka Axpek, nahiz eta bere markarik onena 4,15 metro izan.

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA	Aretxabaleta-Lazkao	ESKUBALOIA
EUSKAL LIGA	Zapatua. 15:30. Ibarra.	EUSKADIKO TXAPELKE.
Mariño-Leintz Arizmen.	Eibar-Aloña Mendi	Fagor Indus.- Deusto.
Zapatua. 16:00. Ventas.	Domeka. 18:00. Unbe.	Zapatua. 18:00. Zubikoa.
OHOREZKO ERREGIONA.	ARETO FUTBOLA	Ford Mug.-Bidasoa I.
Añorga-UDA	NAZIONAL MAILA	Zapatua. 17:00. Iturripe.
Zapatua. 18:00. Rezola.	Aurrera Vitoria-Aretxa.	EUSKADI. TXAP. EMAK.
Beti Gazte-Mondra	Zapatua. 17:30. Olaranbe.	Jarriller.-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Mastegi.	EUSKADIKO TXAPELK.	Zapatua. 19:30. Pando A.
Zarautz-Bergara	Batzarre-Eskoriatza	GIPUZKOAKO TXAP.
Zapatua. 16:00. Asti.	Domeka. 18:00. Abetxuko.	Soraluce BKE-Aritzbat.
ERREGIONAL PREFERE.	Mondrate	Zapatua. 18:15. Labegar.
Aretxabaleta-Idiazabal	(Atsedena).	Sesiñena Aloña- Egia.
Gaur. 20:30.Ibarra.	GIPUZKOAKO LIGA	Domeka. 12:00. Zubikoa.
Mondra-Antzuola	Mondrate-Anoeta	GIP. BIGARREN MAILA
Domeka. 16:00. Mojategi.	Zapatua. 17:30. Musakol.	Ilcapo Honda.-Bergara
Bergara-Soraluze	SENIOR EMAKUMEZKOA	Domeka. 12:00. Hondart.
Domeka. 16:30.Agorrosin.	Trumoi-Eskoriatza	Munttarpe-Arrasate
Aloña Mendi-Zestoa	Zapatua. 16:00. M. Chorr.	Zapatua. 18:00. Bekoerro.
Domeka. 16:30.Azkoagai.	OHOREZKO GAZTEAK	ERRUGBIA
LEHEN ERREG. IGOERA	Otxartabe-Eskoriatza	EUSKADIKO TXAPELKE.
Aloña Mendi-Getariako	Domeka. 12:15. Txurdina.	Kanpanzar Arrasate
Zapatua. 15:30.Azkoagai.	SASKIBALOIA	(Atsedena).
ERREGIONALA. KOPA.	EBA	PILOTA
Zarautz-Arizmendi	La Flecha-MU	PILOTA FEDERATUA
Zapatua. 15:30. Asti txiki.	Zapatua. 18:30. La Vega.	Aretxabaleta:
EMAKU. IGOERA FASEA	GIPUZKOAKO LEHEN M.	Gaur. 19:00ean hasita lau
Lagun Onak-Bergara	Aloña Mendi-Bosteko	partidu.
Zapatua. 15:30. Garmen.	Zapatua. 18:00. Zubikoa.	Oñati:
OHOREZKO GAZTEAK	GIP. BIGARREN MAILA	Zapatua. 17:00etan hasita
Mondra-Urola	Bergara Sora.-Astigar.	bi partidu.
Zapatua. 16:30. Mojategi.	Zapatua. 16:00. Labegar.	
Bergara-Billabona	SENIOR EMAKUMEZKO	
Zapatua. 16:30. Ipintza.	Eskoriatza-Ostadar	
	Gaur. 20:15. M. Muñoz.	

MENDI LASTERKETA Aloñako igoera: dortsalak agortuta

Apirilaren 22an egingo da XIV. Aloñako Igoera, eta salgai jarri zituzten 300 dortsalak bi ordu eta erdian agortu ziren, eguaztenean. Antolakuntzako kideek adierazi dute ez zutela halako arrakastarik espero.

22,6 kilometro eta 1.800 metroko desnibel positiboa duen Oñatiko lasterketan, kategoria ezberdinak izango dira, eta aurten, gainera, Euskal Herriko txapelketa izango da. "Iaz, 24 ordu baino lehen agortu ziren dortsal guztiak, baina aurten, Euskal Herrikoa izanik, berehala saldu dira. Orain, itxarote-zerrenda zabalik dago...", adierazi du Iban Isastik, antolakuntza taldeko kideak.

FUTBOLA Derbia jokatu dute Mondrak eta Antzuolak

Erregional Preferente mailako Mondra eta Antzuola futbol taldeek derbia jokatu dute domekan, 16:00etan, Mojategin.

Antzuolak pasa den astean ere derbia izan zuen Bergararen aurka, eta Eztalan 2-0 irabazi zuen norgehiagoka. Partidu berroa izan zen, eta lau txartel gorri ateratu zituen epaileak. Mondrak, aldiz, Idiazabalen aurka bi gol jaso zituen etxetik kanpora. Baina arrasatearrak sailkapen nagusian antzuolarren aurretik daude.

Antzuola, azken aurreko postuan, zulotik irten nahian ari da, baina, derbi guztietan gertatu ohi den moduan, edozer gauza gerta liteke.

"Borroka sanorako" gertu, Goyak etxeratzeko asmoz

'Handia' filmaren lantaldea Madrilen da, Espainiako Zinema Akademiak bihar, zapatua, egingo duen sari-banaketa ekitaldirako gogotsu. Lasai daudela diote, eta hamahiru izendapen dituzten arren ez dutela euren burua faboritotzat

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ikusmin eta ilusio handia dago bihar, zapatua, Madrilen banatuko dituzten Goya sarien inguruan. Zaleen eta adituen kinieletan askotariko iritzia daude. Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendutako *Handia* filmak ditu izendapen gehien-hamahiru-, eta Goyen aurrerari diren bestelako sariketetan lortutakoek ere bultzatzen dute *Altzoko erraldoia*-ren istorioa irabazleen artean iragartzen.

Astelehenean bi sari jaso zituen Moriartiko lantaldeak; oraingoan, Zinema Idazleen Espainiako Zirkuluaren eskutik: Pascal Gaignek musika onenaren atalean eta Eneko Sagardoik, gizonen aktore berri onenaren kategorian.

Biharko eguna heltzeko deseazten daudela kontatu dio GOIENARI Aitor Arregi oñatiarrak, eta gaineratu du ez dagoela irabazle faborito argirik. "Bukatze-k deseazten gaude, nahiko nekagarria delako Madrilera atzera eta aurrera ibiltzea; konpromiso asko daude, polita da, baina nabaritzen duzu mugara heltzen ari zarela. Burbuila baten barruan moduan zaude, jende bera ari gara azkeneko asteetan toki beretan bueltaka. Egoera nahiko martzianoa bihurtzen



Handia filmeko lan taldea Idazleen Zirkuluaren sariketan, Madrilen. HANDIA TWITTER

da, baina ezagun edo famatu asko ezagutzeko aukera izan dugu. Aurrean, aniztasun handiko urtea da. Gu ez gara faboritoak; nahiz eta izendapen gehien jaso, beste batzuk dira faborito. Sentsazio horrekin gaude, ez gaudela aurre-aurrean, baina, izendapen asko ditugunez, era sanoan borrokan egiteko gogoz gaudela. Egunotan beste filmetako lantaldeak ezagutu ditugu eta oso giro ona dago gure artean. Lasai gaude, galarako trajeak ere prest ditugu, Donostiako Neu jostundegiak egindakoak".

Familien eta lagun babesean

Aste osoa Madrilen egin dute Aitor Arregik eta Josemari Goenagak, eta poliki-poliki batzen joan zaizkie lantaldekoak. Biharko ekitaldian kuadrilla polita elkartuko direla aurreratu du oñatiarrak: "Zenbaki handiagoan edo txikiagoan, guztion senideak eta lagunak ere etorriko dira. Zenbat izango garen ez dakit zehatz-mehatz esaten, baina galan bertan kuadrillatxo elkartuko gara; eta, ondoren, galdu edo irabazi, festa bat egingo dugu".

Piano entzunaldia egingo dute Oñatin ibarreko musika eskolek

Andoainen otsail amaieran egingo den Piano Jaialdirako prestatzeko saioa izango da eta 70 bat ikasle ariko dira

Eneko Azkarate OÑATI

Debagoieneko eta Sorluzeko musika eskoletako piano ikasleek entzunaldia egingo dute astelehenean, hilaren 5ean, Oñatin. Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta, Oñati eta Sorluzeko ikasleek hartuko dute parte. 18:30ean hasita, Santa Ana aretoan. Ordubete inguruko saioa izango da. "Aurretik Arrasateko Amaia antzokian egin izan da, baina Santa Ana egokiagoa da; txikiagoa denez, hobeto egokitzen da", dio Jaione Intxauspek, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako irakasleak.

Ikasleek otsailaren 24ko eta 25eko asteburuan Andoainen egingo den XIII. Piano Jaialdian parte hartuko dute, eta astelehenean Oñatin egingo den topaketak balioko du Andoaingoa prestatzeko. 70 bat neska-mutiko izango dira Oñatin, 9 eta 15

urte artekoak. "Ikasturtean zehar egindako lana jendaurrean eta gurasoen eta senideen aurrean erakusteko eta, batez ere, Andoaingo jaialdirako trebatzeko, prestatzeko, balio du entzunaldi honek; ondo egindakoak nabarmendu eta hobetzekoak antzemateko", dio Intxauspek.

Bergaratik gehien

Andoaingo jaialdian joko dituzten piezak eskainiko dituzte Oñatin. Banaka, binaka eta hirunaka joko dute, hainbat mailatan sailkatuta. Herriko ariko dira. Entzunaldi hori Oñatin antolatuta ohi dute azkeneko urteetan. Bergaratik joan izan ohi dira ikasle gehien, han dago eta piano jotzaile ikasleei dagokienez tradizio handien, baina "Elgetatik ere dezente" joango direla dio Intxauspek, baita Oñatitik bertatik ere.

Bertsomovieda lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik

Abian da bertsoa eta bideoa batzen dituen Bertsomovieda lehiaketa. Bertsoklip, irudiz hornitutako bertso sorta edo besteren baten bertsoekin eta irudiekin osatutako edozein bideo aurkez daiteke. Bertsoren bat ageri den bideo bat, gutxienez, 7 segundokoa, grabatu eta Internetera igo behar dute. Youtube, Vimeo, Euskaltube... dira bideoak igo-

tzeko plataformak. Bideoa igo ostean, www.berksomovieda.com webgunean bete beharko dituzte datuak, *Parte hartu* atalean.

Bideoak webgunean ikusgai egongo dira epea ixten denetik aurrera, eta gogokoena bozkatzeko aukera ere izango da. Apirilaren 9tik 20ra arte egongo da zabalik lanak aurkezteko epea, eta apirilaren 23tik apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte egongo da botoa emateko aukera zabalik. 2.500 euro banatuko dituzte saritan.

KANTARI

GOIENA TELEBISTA, KANTARI ARETXABALETAKO SAIOAK
OTSAILAREN 3AN, ZAPATUAN, 09:30EAN ETA 16:30EAN
OTSAILAREN 4AN, DOMEKAN, 09:30EAN ETA 16:30EAN

goiena"
Zu hemen zaude.



Oñatiko artista gazteen txanda Kantari saioan

Gaztelekuan grabatuko dituzte karaoke ikuskizun ezagunaren saio berriak bihar eta etzi. 7 eta 11 urte bitarteko 248 abeslari eta dantzari igoko dira taularen gainera; martxoaren 3tik aurrera izango dira oñatiarren saioak Goiena telebistan ikusgai

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Debagoieneko herri eta ikastetxe askotariko 1.000 gaztetxo ari dira parte hartzen Goienak Debagoieneko ikastetxeen eta udalen laguntzarekin antolatzen duen seigarren Kantari saioan.

Lehenengo grabaketak Arkupe kultura etxeko Zaratia aretoan egin zituzten urtarilaren 20an eta 21ean; eta bihar, zapatua, eskainiko dituzte Goiena telebistan Aretxabaletan grabatutako lehenengo bi saioak.

Oñatin, hamar saio

Grabazio egunetarako dena prest izateko, aurreko asteburuan entsegu orokorrak egin zituzten Eltzian, Aitor Agirianok eta Miren Ibabek gidatuta. "Kantariaren denboraldi berriko bigarren geltokian 248 neska-mutiko oñatiar izango dira oholtzaren gainean, 57 taldetan banatuta. Grabazio eguneko urduritasunak eragingo die, akaso, baina, entseguetan ikusi genuenaren arabera, esan dezakegu etxeko lanak ondo eginda eramango dituztela. Ilusio handiarekin eta onena emateko gogoarekin sumatu genituen", dio Agirianok.

Bi egunean hamar telebista saio grabatuko dituzte; eta orain arte moduan, bost edo sei taldek hartuko dute parte saio bako-



Gaztelekuko agertokian izango diren artista batzuk entseatzan. AITOR AGIRIANO

tzean. "Bihar, arratsaldeko lau eta erdietan hasiko gara ordu erdiko iraupena duen lehen saioa grabatzen, eta, hoge minutuko atsedena hartuta, 17:20rako dena prest izango dugu bigarren grabatzeko; modu horretan, eguneko bost saio grabatuko ditugu. Gaztelekuan ez dago mugarik edukiera aldetik; beraz, artisten senideez eta gertukoez gainera, telebista saio bat nola grabatzen den ikusi gura duten guztiak gonbidatu gura ditugu. Gonbidatu bereziak ere izango ditugu: Potx eta Lotx pailazoak".

Zapatu oro bi saio berri

Bihar hasita, zapatu oro bi saio berri estreinatuko dituzte Goiena telebistan, grabatutako ordenaren arabera; hortaz, Aretxabaletako eta Eskoriatzako artisten ikuskizunen ondoren eskainiko dituzte, martxoaren 3an hasita, Oñatikoak. "Hala ere, parte hartzaileen gurasoek Whatsapp bidez jasoko dituzte argazki galeriak grabazioen hurrengo egunetan, eta, saioa telebistan eskaini ondoren, modu berean jasoko dute dagokien taldearen grabazioa".

Euskal kulturaren ikuspegi oso eta integrala eskaintzeko ataria

'Sortzaileak.eus' zazpi kultur adierazpidetan sortzen ari diren pertsonen erreferentzia iturri sortu berria da

A. A. ARRASATE

Andoingo Martin Ugalde kultur parkean aurkeztu zuten atzo, eguna, Berria Bekari esker gauzatu duten *Sortzaileak.eus* ataria. Gotzon Barandiaran kultura eragileak jardun du, bere-

ziki, lan horretan, baina alboan izan ditu beste hainbat lagun. "Diseinu grafikoa Unai Iturriagarena da, garapen funtzionala Josu Landak egin du eta kulturentzako bidelagun titudana hainbat burkiderekin makina

bat batzar egin ditugu ataria ideologikoki zein teknikoki egituratzeko. Euskal sortzaileon lanak hedatzea eta ikusgarri egitea ditugu, besteak beste, helburu. Praktiko eta erreferentziala izango da euskal sortzaileendako, komunikabideentzako eta, orokorrean, kulturazaleendako", dio Barandiaranek.

Zazpi kultur adierazpide biltzen ditu: antzerkia, arte-plastikoak, bertsolaritza, dantza, ikus-entzunezkoak, literatura eta musika; 2.230 fitxategi jaso dituzte.

Goiena Klubaren txokoa

Urtarrileko irabazleak!

TABLETA

Kristina Markina Igarza (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Isabel Guerra Coedero (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK

Juan Ignacio Blain Uribarren (Arrasate)

Angel M. Zabaleta Iturbe (Bergara)

Amala Mungiondo Aramendi (Aretxabaleta)

"GLAUKOMA" TALDEAREN CD-a SINATUTA

Oskar Askasibar (Elgeta)

"GLAUKOMA" KONTZERTUETARAKO SARRERAK

Itziar Kortabarria Garitano (Bergara)

BASKONIA PARTIDUETARAKO SARRERAK

Onintza Andres (Oñati)

David Urrutia Muñoz (Eskoriatza)

Kristina Gomez Pagaldai (Aretxabaleta)

Eneritz Agirrebalaztegi Ortuzo (Bergara)

Ruth Osinaga Zubia (Arrasate)

Bellat Unzueta Elorza (Aretxabaleta)

Olaitz Arteaga Pagaldai (Bergara)

Larraitz Hererra Urzelai (Arrasate)

EIBAR PARTIDUETARAKO SARRERAK

Nerea Arregi Uribeaberrria (Oñati)

Kontxita Bilbao Mujika (Bergara)

Kristina Atxa Gallastegi (Bergara)

Araetza Garmendia Zabal (Bergara)

GOIKO - BENTA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Zuriñe Valez de Mendizabal (Arrasate)

TARTUPO JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Rosa Mondragon Elorza (Arrasate)

SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Leire Garmendia Zabal (Bergara)

DUKIENA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Jon Ander Ugalde Ortubai (Arrasate)

"INPERNUKO" IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Iban Caballero Pino (Bergara)

